



Gabonetako loteria:
aberats izateko
ametsetan

Cesar Bona idazle
eta irakasleari
elkarriketa



PERTSONAK ETA NATURA BABESTE, ALKATEEN NAHIA

Oñatiko alkatea eta alkate ohiak batu ditu 'Kontzejupetik' aldizkariak,
etorkizuneko Oñatiren gainean hausnartzeko / 30

Ezkerretik hasita, Lourdes Idoiaga,
Andoni Gartzia, Izaro Elorza, Anjel
Iturbe eta Mikel Biain.

XABIER URZELAI

**'Mugiment' txartel
bateratua eskualdeko
kirol instalazioetan
erabilgarri izango da
hilaren 2tik aurrera** / 2

**Mondragon Taldeak
pozik hartu du
Kooperatiben Euskal
Legea, "argitasuna"
dakarrela iritzita** / 9

**Goiena Taldea, lehen
hedabidea Kudeaketa
Aurreratuaren
'Zilarrezko A' saria
lortu duena** / 4



GABONETAKO AGENDA / 42

SINADURAK

 ESTEPAN PLAZAOLA / 8	 AITOR UGALDE / 32
 JOSU ZUGASTI / 10	 IDOIA ETXEBERRIA / 48

GABONAK

Honako egun hauetan jasoko
dituzue hurrengo aldizkariak:
'2019 urtekaria': 27an.
GOIENA: urtarrilaren 10ean.
'Puntua': urtarrilaren 3an.

Ondo
izan!

SKODA KODIAQ



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • AFRASATE • 943 71 18 70



'Mugiment' kirol txartela, urtarrilean erabilgarri

Kirol txartel bateratua urtarrilaren 2tik ekainaren 30era arte egongo da erabilgarri Debagoieneko kirol instalazioetan. 'App' formatuko txartel birtuala izango da, eta eskaintzen dituen instalazio, ekintza eta ordutegietara egokituko du herri bakoitzak

Maialen Santos DEBAGOIENA

Debagoiendarren artean kirola sustatzeko asmoz, urtarrilaren 2tik aurrera egongo da martxan *Mugiment* kirol txartel bateratua. Asteon egin dute momentuz proiektu pilotua izango denaren aurkezpena, Arrasaten, eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak bildu dira bertan zehaztapenak emateko, baita bailarako herrietako ordezkariak eta Mankomunitateko presidente Maite Anton.

Hain zuzen, Jaurlaritzak eta Aldundiak Mankomunitatearekin elkarlanean garatutako proiektua da kirol txartel bateratua. Sei hilabetez jarriko dute martxan, oraingoan: urtarrilaren 2tik ekainaren 30era arte, zehazki. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol teknikariak, Maria Jose Paredesek, azpimarratu du proiektuak "herriarregian kirol ekintza eta osasunaren zainketa" bultzatu nahi dituela.

Mugikorrerako 'app'-a

Erabilerari dagokionez, *Mugiment* ez da ohiko txartela izango, txartel birtual bat baizik. Mugikorrerako aplikazio baten bidez erabili ahal izango da. Hala, *app*-a instalatu, norberaren datuak erregistratu eta udaletako kirol zerbitzuetako arduradunek balioztatu beharko dituzte. Behin hori eginda, kirol instalaziora joandakoan mugikorra bertako langileari erakutsi beharko zaio, hark sarrera erregistratu dezan eta ostean erabiltzailea zerbitzuak erabiltzera sartu dadin.

Herri bakoitzak bere eskaintza

Mugiment txartela zein zerbitzutan eta zein ordutegitan erabili ahal izango den herri bakoitzak zehaztu behar izan du. Hala, Oñatin eta Bergaran egunero eta irekiera ordu osoan erabili ahalko dira instalazio eta zerbitzuak. Aretxabaletan, astelehenetik ostiralera 11:00ak eta



Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Debagoieneko ordezkariak. JONE OLABARRIA

16:00ak bitarte eta Eskoriatzan egunero 07:45etik 16:00etara arte. Arrasateren kasuan, eremu hezea eta lehorra bereiziko dira: lehorra astean zehar 07:00tik 17:30era egongo da erabilgarri eta asteburuan, aldiz, 16:00etatik

20:00etara. Eremu hezea astelehenetik ostiralera 07:00etatik 16:00etara erabili ahal izango da. Zapatuetan, 16:30etik 20:00etara eta igandeetan egun osoan.

Bizkaiko eredia oinarri

Txartela dagoeneko erabilgarri dago Bizkaiko toki batzuetan; eta, hain zuzen, Jon Redondo Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoko eta Kiroletako zuzendariak azaldu duenez, bertako "eredua jarraituta" nahi izan dute proiektua Debagoienean ezarri. Arrasateko alkate Maria Ubarretxenenaren esanetan, berriz: "Hein batean, bailara mailan berriz ere kirol txartel bateratua izateko eskariari erantzun nahi izan diogu proiektu honekin". Gaineratu duenez, "behar" hori "asetzea" espero dute.

Bestalde, orain arteko ohiturari jarraiki, herritar bakoitzak abonamendua bere herrian ateratzea gomendatu dute Debagoieneko Mankomunitatetik, eta gogora ekarri dute abonamendua nork bere herrian aterata gaitzeko herrietako zerbitzuez gozatzeko aukera izango dutela erabiltzaileek, gaitzeko ordu daindu beharrik gabe.

Abonatuak, herriz herri

Debagoienean *Mugiment* txartela erabili ahal izango duten abonatu kopurua:

- **Oñati:** 4.692
- **Bergara:** 3.947
- **Aretxabaleta:** 3.359
- **Eskoriatza:** 1.541
- **Arrasate:** 2.839

Arrasateren kasuan, abonatu plusa edo hileko abonatu dutenek erabili ahal izango dute txartela. Aipatzen ez diren gainontzeko bailarako herrietan ez dago abonaturik; beraz, ezingo da txartela erabili.



Martitzenean Arrasateko plazan egindako elkarretaratzea. DANI SANCHEZ

Emakumeen aurkako bi eraso larri salatu dituzte egunotan

Oñatin eta Arrasaten bizi diren bi emakumeri eraso egin diete bikotekideek; eta "larriak" izan direla adierazi dute

M.S. DEBAGOIENA

Oñatin bizi den familia bat, euren jaioterrira oporretan joan eta bertan gertatu da eraso, Dominikar Errepublikan. Villa Isabela Digital hedabideak argitaratu duenez, gizonezkoak bikotekideari labankada ugari eman dizkio, eta horren ondorioz emakumea egoera larrian dago ospitalean. Gizonezkoak erruduntzat aitortu du bere burua poliziaren aurrean.

Eraso honen aurrean, Oñatiko Udalak eta Sare feministak adierazpenak egin nahi izan dituzte, eraso gaitzesteko: "Gaitzespen gogorrena azaldu nahi dugu aurreko astean izandako eraso matxistaren gainean, eta gure laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi diogu eraso pairatu duen emakumeari, eta bere ingurukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu

erasotako emakumearen eta honen familiako en esku, baita prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztiaren gaineko informazioa ere".

Beste eraso, Arrasaten

Arrasateko Mugimendu Feministak jakinarazi duenez, Arrasaten eraso sexista bat gertatu da azken egunetan: "Joan den egunetan jaso genuen erasoaren berri. Jipoi larria izan zen, eta emakumea ospitalera eraman behar izan zuten".

Emakumeen Mundu Martxaren Arrasateko Plataformak eta Potogorriek deituta, "eraso larri" hori salatzeke elkarretaratzea egin zuten martitzen arratsaldean, Arrasateko plazan.

Bide batez, hitzordua baliatu zuten orain artean gertatutako eraso guztiak salatzeke; Euskal Herrian aurtan lau emakume hil baititu indarkeria matxistak.

Pentsioei buruzko hausnarketa egin du bailarako Agijupensek

Debagoieneko Agijupens pentsiodunen taldeak batzen dituen bailarako hamaika elkarteak adindunen eskubideak "sustatu" eta "defendatzeko" lanean dabil-tzan heinean, aldarrikapen bateratuak zehaztu dituzte, elkarrekin "indarra egitea" helburu. Taldeko kide Pilar Etxanizek azaldu duenez, eskualdeko batzordeak pentsioei buruzko

"hausnarketa bat" jarri du martxan tokiko elkartearen artean. Hala, besteak beste, hiru aldarrikapen nagusirekin egin dute bat hamaika elkarteek. Hain zuzen, pentsioak KPIaren arabera gaurkotzea eta lege bermatzeko gura dute guztiek, baita sostengarritasun eta birbalorazio faktoreak ukatzea ere. Bestalde, gutxieneko pentsioa 1.080 eurora iritsi dadin ere gura dute eskatu. Adostasunik ez dute lortu taldeek, bestalde, alarguntasunaren gaiari dagokionean.



Aretxabaletako Lanbide Eskolan egindako automozioiko topaketan elkartutako emakumeak. AITOR AGIRIANO

50 emakume bildu ditu automozioiko topaketak

Emakumeen presentzia aldarrikatzeko helburuarekin Euskadiko Lanbide Heziketa zentroetako 50 bat emakumek hartu dute parte eguazten honetan Aretxabaleta Lanbide Eskolan egin duten Automozioiko emakumeen lehenengo topaketan

Maialen Santos ARETXABALETA

Euskadiko hainbat ikastetxetako emakumeak gerturatu ziren eguaztenean Aretxabaleta Lanbide Eskolara, automozioaren inguruan hitz egin eta elkarrekin bizipenak partekatzera. Hain zuzen, Gipuzkoako Don Bosco eta Mekakoak; Bizkaiko Emilio Campuzano, San Jorge, San Viator, Iurreta eta Ezkurtzekoak; eta Arabako Egibide eta Mendizabalatik etorritakoak bildu ziren bertan. Irakasleak zein ikasleak elkartu ziren, eta horiek ez ezik, ikasketak amaituta automozioan lanean diharduten emakume langileek ere –Ederlanen eta Ulman dihardutenak– nahi izan zuten parte hartu.

Hain zuzen, Maialen Iarza langileak tailerrean "oso gustura" lan egiten duela azaldu zien bertaratuei, eta automozioa gus-tuko dutenak ikasketak egitera animatu zituen. Emakundeko presidentea, Izaskun Landaia ere izan zen topaketan, eta berak azaldu zuenez, "balio aldaketa" bat behar dela emakumeek eta gizonek askatasunez eta genero rolen "eraginik gabe" ikasketak aukeratu ditzaten: "Horretarako erreferenteak izatea garrantzitsua da", gaineratu zuen.

Bizipenak elkarbanatu ez ezik, goizeko solasaldia bukatutakoan hainbat enpresak utzitako auto elektrikoak probatzeko aukera izan zuten bertan bildutakoek.

Aretxabaletan, neska bakarra

Uxue Morales emakumezko elektromekanika ikasle bakarra da aurtan, eta berak aitortu moduan asteen egindako topaketak ikasten jarraitzeko gogoia areagotu zion: "Gizon artean ikasten dut, baina sektorean emakume gehiagok lan egiten dutela ikusi nuen; eta horrek izugarri poztu ninduen". Leire Urretxo irakasleak, bestalde, Aretxabaletan irakasle lanetan diharduen emakumezko bakarra izanik horrelako topaketak egitea "oso garrantzitsua" dela esan zuen. Hala, automozioan ikasi eta lan egiten duten emakumeak badaudela, eta horien lanari balioa eman behar zaiola aldarrikatu zuten.

Munillaren Eliza eredua gaitzesteko elizkizuna egin dute

Gotzainaren klerikalismoa, ideologizazioa eta jauntxokeria salatu ditu Gipuzkoako Kristau Elkartek

M.S. DEBAGOIENA

Arantzazuko Santutegia bete egin zen zapatuan, Gipuzkoako Eliza bizirik dagoela aldarrikatu eta Gipuzkoako gotzain Munillaren Eliza ereduari gaitzespena erakusteko.

Arantzazun batutako kristau komunitateko kideek salatu zuten, Munillaren eredua "inposizioan, klerikalismoan eta jauntxokerian" oinarritua dago, Vatikanoko II. Kontzilioaren aurreko Eliza ereduaren, alegia. Gotzainaren inposizioaren aurka azaldu ziren, beraz: "Ebanjelioaren lekuko eta Jesukristoren jarraitzaile gisa, fededun heldu eta gizon-emakume aske izatera deituta gaude, eta ez dugu onartzen gotzain honen eta beretarren klerikalismoa ezta inposizioa ere".

Batasuna aldarri

Munillaren Eliza eredua gaitzesteaz gain, Gipuzkoako Elizaren batasuna aldarrikatzeko ere baliatu zuten hitzordua. Arrasateko Kristau Elkarteko kide Andoni Uribetxeberriak azaldu zuenez, zapatuko elizkizunean argi ikusi zen Gipuzkoako Eliza "oso bizirik" dagoela. Hala, irmo azaldu zen: "Munilla iritsi aurreko hamarkada guztietan egindako lana ez da suntsitu eta ez da suntsituko". Hain zuzen, bere aburuz, Gipuzkoako elizbarrutia "zatituta" dago egun, eta, beraz, batasuna aldarrikatu beharra nabarmendu zuen: "Otoitz egitera etorri gara, Jain-

koari batasuna eskatzera, gorroto gabe eta Vatikanoko II. Kontzilioari jarraituz". Horretaz gain, adierazi zuen Munillarekin hitz egitea "oso zaila" dela, ez baitu aniztasuna onartzen, eta pentsamendu bakarreko Eliza-rekin egiten duelako amets.

Joxean Larrañaga Oñatiko parroko ohiak ere batasunaren ideia azpimarratu nahi izan du. "Jendea oso gustura egon zen zapatuko elizkizunean, eta bertan sortutako giroarekin geratu nahiko nuke. Elkarrekin otoitz egin genuen guztiok, eta polita izan zen", nabarmendu du.

Gipuzkoako Kristau Elkartek, berriz, Setien gotzainak jarraitu zuen bide-orri kontziliotarra defendatu zuen, euren esanetan, ebanjelioa bizitzeko "era anitz" baitago, baina "dena" ez da balekoa. "Ezin dugu eraman Jesu-sen espirituaren antipodetan dagoen gotzaina eta behartzen ari den Eliza atzerakoia, non gotzain-boterearen abusua gailentzen zaion zerbitzu jarrerari". Horretaz gain, pobreentzako Elizaren keinu eta ekintzak behar-rean negozioa eta dirua egitea dituela gako leporatu zioten.

Gipuzkoa osoko fededunak

Gipuzkoako herri askotatik etorritako fededunak elkartu ziren Arantzazuko elizkizunean. Urnietatik, Astigarragatik, Hernanitik, Donostiatik... autobus ugari iritsi ziren Santutegira, Fededunak ez ezik, elizgizonak eta laikoak ere batu ziren.

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Soraluez errepidetza.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluez (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabillioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

'Zilarrezko A' kalitate ziurtagiria Goienarentzat

Eguaztenean, abenduaren 18an, jaso zuen Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak 'Zilarrezko A' Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria, Gasteizko Europa jauregian. Goiena da orain arte sari hau jaso duen lehenengo hedabidea

Jone Olabarria ARRASATE

Eguaztenean Gasteizko Europa jauregian egin zuten ekitaldian jaso zuen Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak *Zilarrezko A* Kudeaketa Aurreratuaren aintzatespena. Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabalek Estibaliz Hernaezen eskutik jaso zuen aitortza. Guztira, 25 erakunde jaso dute Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuaren saria, baina hedabide batek jaso duen lehen aldia izan da.

Besteak beste, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazak, Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek eta



Iban Arantzabal, *Zilarrezko A* sariarekin. EUSKALIT

sailburuorde Estibaliz Hernaezek eman zituzten sariak, Euskalit-eko presidente Jose Hernandezekin batera –azken hau omendu zuten ekitaldian, urteetako lanaren ostean Euskalit Fundazioa uztera doalako-. Lehendakari Iñigo Urkullu ere izan zen ekitaldian.

Debagoiendar bakarra

Goienak bere interes taldeekiko –bezeroak, pertsonak, bazkideak eta gizartea, besteak beste– duen asebetetze orekatua eta praktika aurreratuak saritu nahi izan dizkio Euskalitek Goienari. Aurten Euskaliten zilarrezko aitortza hori jaso duen Debagoieneko enpresa bakarra da Goiena; horrez gain, Tubax-ek, Potron Electronicak, Spri Agentziak eta Mercabilbaok ere jaso dute *Zilarrezko A* saria aurten.

Dena den, beste bi enpresa edo erakunde debagoiendarrek jaso zuten eguazteneko ekitaldian Euskaliten aitortza bat, diplomak, hain justu ere: Emun kooperatibak eta Arrasateko institutuak. Emunen izenean, Olatz Dorron-soro baliabideetako arduradunak jaso zuen eta Arrasateko insti-

tutuaren izenean, Maite Lasa zuzendariak.

Goiena Komunikazio Taldeari emandako saria pozarren jaso du komunikazio taldeko zuzendari Iban Arantzabalek: "Oso pozik gaude kudeaketaren gainekoa delako eta Goiena osatzen dugun guztioi eragiten digulako: kazetaritza lanetan dihardutenak, informatikariak, administrariak, komertzialak; bazkideak, bazeroak, herritarak, Debagoiena osoa".

Lehiakortasuna sarituz

Euskalit Fundazioak dioenez, sariaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketako erakunde aurreratuak identifikatzea da, "kudeaketa aurreratu lehiakortasunaren funtsezko elementu gisa ezartzearen garrantziaz sentsibilizatzeko".

Euskaliteko Ebaluazio Kluba osatzen dute modu altruistan elkarlanean aritzen diren 2.000 zuzendarik eta teknikarik baino gehiagok. Goienan, zazpi kanpobalutzaile ibili dira lanean indarguneak eta ahulguneak identifikatu ahal izateko, eta 22 elkarriketa egin dituzte.

2020 on!




goiena
Zu hemen zaude.

ZKO

Etorkizuna orain

Gipuzkoa
etorkizuna da.
Iritsi den
etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



Elgeta eta Eibar arteko GI-2639 errepidea. GOIENA



Oñati eta Elorregi lotzen dituen bidea moztuta, pasa de egubakoitzean. GOIENA



Antzuolako trenbide zaharreko tunela, jauregi parean. J.A. ITURBE



Autobusa kaltetuta Arrasaten, mendiko lurra gainera etorrita. GOIENA

Euriak eraginda, kalte ugari Debagoienean

Arrasaten, Oñatin eta Elgetan izan ziren larrienak. Hainbat errepide itxi zituzten, zenbait puntutan auto ilara luzeak eraginda. Egun, kaltetutako bide gehienak garbi daude, eta Aldundiak ez du, garbiketez gain, bide-lan berezirik egitea aurreikusten

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Pasa den asteko eguenetik egubakoitz goizera arte, abenduaren 12tik 13ra bitarte, botatako euri jasek hainbat lur-jausi eragin zituzten Debagoienean; Arrasaten, Oñatin eta Elgetan izan ziren larrienak. Arrasaten, esaterako, bost autobus kaltetu ziren; Elgetan, Eibarrera doan errepidea moztuta egon zen; eta Oñatin, Elorregirako errepidean ere zirkulazioa moztu behar izan zuten, une batzuetan, auto ilara handiak sortuta.

Autobusak, erabat kaltetuta

Kataide industrialde parean dagoen autobus gordelekuan, autobusak aparkatuta zeuden atzeko pareta behera etorri eta mendiko lurra gainera jausi zen. Ondorioz, bertan aparkatuta zeuden Herribuseko bi autobu-

sek –bata guztiz estali zuen lurrak–, Leintzeko batek eta Lurraldebusen beste bik kalteak izan zituzten. Orduan azaldu bezala, autobusak ez dituzte konponduko eta ordez berriak ekarriko dituzte.

Elorregin ilara luzeak

Elorregitik Oñatira, GI-2630 errepidean, Oxiñurdin enpresaren inguruan, lurra erori zen errepidera, eta, beraz, zirkulaziora itxita egon zen zenbait orduz. Errepidea erabat moztuta ordubetez egon zen, baina errei mozketa denbora gehiagoz luzatu behar izan zuten, Gipuzkoako Foru Aldunditik azaldu dutenez, "ur asko erortzen zela-ko".

Ez da bertan horrelako zerbait gertatzen den lehen aldia, eta, Udanako errepidea ere itxita

dagoela kontutan hartuta, ibilgailuentzako bidegorria irekitzeko aukera ere aztertzen aritu zen Udala. Hala ere, azkenean, errepidea garbitu eta erabat ireki zuten eguerdirako.

Elgeta eta Eibar artean, itxita

Euriak eta haizeak kalte handiak eragin zituzten Elgetan ere; luiziak gertatu ziren, zuhaitzak erori, bideak apurtu ziren... GI-2639 errepidea, Elgeta eta Eibar artean izandako luiziaren eraginez, itxita egon zen zapatura arte. Aldunditik adierazi dutenez,

ORAINGOZ, EGINDAKO GARBIKETEZ GAIN, ALDUNDITIK EZ DUTE BIDE-LAN BEREZIRIK EGITEA AURREIKUSI

lur-jausia "handia" izan zen eta garbiketa lanek luizia gertatu eta hurrengo eguneko 14:15 aldera arte iraun zuten.

Gipuzkoako Foru Aldunditik adierazi dutenez, Elorregi eta Oñati arteko GI-2630 errepidean eta GI-2639 errepidean, Elgeta eta Eibar artekoan, ez dute, oraingoz, inolako lanik egitea aurreikusten.

Antzuolan ere arazo ugari

Antzuolaren kasuan, hainbat puntutan eragin zituen eragozpenak euriak: Galartzarako bidean; Irimogoiaren; Uzarragarako bidean, GI-3112 errepidean, eta trenbide zaharrean, Jauregi pareko tunelaren sarreran. Lehen biak Udalen ardurapekoak dira eta dagoeneko garbi daude. Azken biak Aldundiaren ardura dira, eta, garbiketa lanak egiteko, lokatza lehortu arte itxaron behar izan dutela adierazi dute. Uzarragarako bidea baina dagoeneko erabilgarri dago.

Trenbide zaharraren kasuan, hainbat luizi gertatu ziren; handiena, Jauregi pareko tunelarako sarreran. Ondorioz, tunelarako sarrera guztiz estalita geratu zen, bertatik ezin zela pasa. Pasa den astean gertatu zen luizia eta egunean bideak zotapatuta jarraitzen zuten.

"Espero baino hazkunde txikiagoa" ekonomian

Laboral Kutxak 2020ko euskal ekonomiaren aurreikuspenak aurkeztu zituen eguaztenean

J.O. DEBAGOIENA

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia 2019ko uztaillean aurreikusitakoa baino hamarren batzuk gutxiago haziko da 2020. urtean, Laboral Kutxaren arabera. Aurtengo uztaillean adierazitakoaren arabera, EAEko ekonomia % 2,2 haziko zen aurtengo, eta 2020. urtean % 2,1 haztea aurreikusten zen.

Hala azaldu zuten Laboral Kutxako ordezkariak Euskal Ekonomia Txostenaren aurkezpenean eguaztenean Iruñean eta Bilbon. Ibon Urgoiti Negozio Garapeneko zuzendaria eta Joseba Madariaga Ikerketa Departamentuko zuzendaria aritu ziren komunikabideen aurrean.

Espainiaren "gainetik"

Bertan azaldu zuten, EAEko eta Espainiako ekonomiak euroraguneko herrialde nagusien batezbestekoa baino "gehiago" haziko dira. Euskadiren kasuan, Espainiako ekonomiaren aurreikuspenaren "gainetik" egongo dela azaldu zuten, eta enplegua sortzen jarraitzea espero dute. Uztaillean adierazi zuten, 28.000 lanpostu sortuko lirateke EAE 2019-2020 biurtekoan. Eguazteneko aurreikuspenean, baina, eta egungo joera aztertuta, ez dute uste 28.000 lanpostu berri sortzeko aukera egongo denik.

Enpleguaren aurreikuspena

Ekonomiaren hazkundera hamarren batzuen jaitsierak datorren urterako enpleguaren hazkunde-aurreikuspena "zuzendu" dezakeela azaldu zuten, baina lanpostuak sortzen jarraitzeko ekonomia % 1,5 baino gehiago hazi beharko dela ohararazi dute. Dena den, horrela izango dela uste dute. Gaineratu zuten, langabezia-tasak ez du behera egingo "azken hiruhilekoetan egin duen erritmo berean".

GUTUNAK

Arrasateko mendebaldeko saihesbidea: Olandixoko tunela eta mantentze-lanak

UNAI BERGARETXE
ARRASATE

10 urte etorriko dira 2020an Arrasateko herriari garraio aldetik arnasa eman zion bide garrantzitsu bat zabaldu zela, mendebaldeko saihesbidea. Markuleteko poligonoa, Garagartza aldeko industriaguneentzat bide berria. Errepide berri honek kamioien joan-etorriak herri barrutik kentzea eragin du. Eta lehengo errepidea kale izenera bihurtu du, oinezkoentzat eta garraio murriztua -3,5 tonatik beherakoak soilik-.

Bide berri horretan dagoen Olandixoko tuneleko mantentze-lanek erabat okertzen dute herritarren lasaitasuna eta segurtasuna aldiro.

Tunela 800 metrokoa da, lehen esan bezala, eta bi norabidetan errei bana dauka. Planifikatzen dituzten mantentze-lanak lanegunetan eta lanordu normaletan izaten dira. Errei bakoitza itxiz batera edo bestera.

Honek tuneletik igaro beharreko trafikoa herri barrutik pasatzea eragiten du. Trafiko astun ugari.

Oraingoan, norabide bakoitzerako bost egunerako daude planifikatuta. 09:00-

13:00 eta 15:00-21:00 tartean. Sekulako eragozpenak dakartza herrirako, industrialdeko enpresentzat eta garraiolariantzat.

Lan hauek egin bitartean, ez dago inongo seinalizaziorik jarrita herri barrutik igarotzeko. Udaltzain zein ertzainik ere ez da izaten.

Errepidearen ardura Foru Aldundiarena da, baina Arrasateko herrian eragiten du.

Bitartean, herritarrok, garraiolariak, enpresek, egoera hau jasan behar dugu aldiro.

Tunelaren hainbesteko maiztasuneko mantentze beharrak harridura eragiten du. Berauek egin behar badira, uste dut badirela beste modu batzuk egiteko.

Minduta

GARI ITURBE
ARETXABALETA

Ez du etenik. Iñaki, orain urte asko ezagutu zintudan. Aurrez, aspaldian egon ez garen arren, komunikabideetan maiz ikusi zaitut. Sorgin ehiza balitz bezala, zure eta Ainhoa Intxaurrandietaren aurka jotzen ari dira boterean daudenak. Errauskailuaren ordezkua izango zen alternatiba bat bultzatzearren zigortu nahi zaituzte. 45 milioi euro eskatzen zizkizueten EAJ/PSEko

agintariak, eta Espainiako Kontu Auzitegiak errugabetu egin zintuzten. Baina gehienetan egiten duten bezala jokatu beharrean, hau da, epailearen erabakia errespetatu beharrean, berriz jo dute zuengana. Hondoratu egin nahi zaituzte, zuen bizitza pertsonal eta familiarra baldintzatu nahi dute. Ez du etenik. Harrituta nago, minduta. Minduta, zuen kontra joan den Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa osatzen duen agintarietako bat nire herriko alkatea delako.

Futboleko Eurokopa, Espainiako Vueltako hainbat etapa... Euskal Herria modan dago

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

Orain dela gutxi jakin genuen futboleko Eurokopako hainbat partidu Euskal Herrian jokatu direla; Bilbon. San Mames futbol zelaian, zehazki.

Eta oraingo astean bertan jakin dugu 2020ko Espainiako Vueltak hainbat etapa izango dituela Euskal Herriko errepideetan: etapa hasierak, etapa bukaerak... denetik.

Batzuen ustez erakusleiho zoragarria dena beste batzuen ustez probokazio hutsa da.

Horrela jarraituz gero, urte batzuen buruan Hego Euskal Herrian zehar ibiliko da Frantziako Tourra...

HANDIK ETA HEMENDIK

Sexuari buruz

BEA SEVER

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Sexologoek *sexu* hitza aipatzen dugunean barreak entzun ohi ditugu.

Larrua jotzeari buruz arituko garela uste izaten da, "egiten dugun" sexuari buruz. Edo genitalei buruz mintzatuko garela, "daukagun" sexuari buruz. Baina sexologian, "garen" sexuari buruz aritzen gara gehienetan. *Sexu* hitza latineko *sexare*-tik dator eta zatituta esan nahi du. Besteengandik bereiziko gaituen sexuazio prozesuari egiten dio erreferentzia. Jaio aurretik hasi eta hil arte iraungo duen prozesu horretan elementu askok izango dute eragina: kromosomek, hormonek, genero estereotipoek, kulturak... [...] Herrialde anglosaxoietan, puritanismoaren ondorioz, *sex* hitza aipaezina da eta *gender* hitzarekin ordezkatu dute. Baina *genero* hitzak gizarte zehatz batean ezarritako estereotipoak izendatzen ditu, gizonei eta emakumeei inposatu zaizkien jokatzeko moduak. Horrek eragina izango du norberaren sexu identitatea eraikitzerakoan, baina ez da elementu bakarra izango. *Genero* hitza erabiltzen duzun hurrengoan jarri arreta ea sexua esan nahi zenuen eta *sexu* hitza erabiltzen duzunean erreparatu ea koitoari buruz ari zaren.

Batzen gaituena

ANGEL ERRO

HTTPS://LABUR.EUS/NAW7E

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Egunotako iragarkiak dio Eguberrietako loteriak lotzen gaituela, batzen gaituela, familiak elkartzen dituela. Nik kontrakoa ikusten dut, berriz: inoizko deskonfiantza handienen sorburua izaten da lagunena eta senideen artean. Halakok erosi badu, nik ere bai, ez dadin bera aberastu eta ni ez. Loteria txartela(k) zenbait lagunena artean erosiz gero, nazioarteko itun baterako baino klausula gehiagoz zaintzen da nork, nola zainduko duen. Egiaztagiriri maila ematen zaien argazkiak egiten dira. [...] Gure etxean kalapita izaten dugu beti. Ez daukat inora joaterik, Espainiaren estatu barruan, aitzak bertatik loteria txartel bat erosteko eskatu gabe. Tirabira batzuen artean maiz amore ematen dut, baina ez naiz sentitzen inori lotuagoa, batuagoa, elkartuagoa. Aitzak, ematean, agian telebistako iragarkiek kutsatuta, zenbakia partekatzea erabaki du, erdi bana, eta nik gordetzeko. Argazkia atera dio. "Juiziora joan beharko bagenu ere", txantxetan bezala, baina biok dakigu seriotan dela. Pobreziak batzen ditu familiak. Aberasteko aukera urrunak, berriz, zertan bihurtuko ginen baino ez digu erakusten.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Itzultzaile neuronalak

Itzultzaile neuronalak. Horra amaitzear dugun urteak euskararen aldetik ekarri digun oparia. Bueno, egia esanda, euskarazko lehenengo itzultzaile neuronalak, Modela, 2018an etorri zen. Hark hobekuntza nabarmena ekarri zuen aurreko itzultzaile gramatikalekin konparatuta, eta 2019an etorri direnek beste jauzi handi bat ekarri dute, bai kalitatearen aldetik, eta baita, Elhuyarren itzultzailearen kasuan, erabilgarri dituen hizkuntza kopuruaren aldetik ere. Eta harrigarriena eta poztekoena, hain zuzen ere, horixe da: horren tarte motzean izandako hobekuntza. Horrek pentsarazten baitigu oso denbora laburrean egundoko aukerak zabalduko zaizkigula hizkuntzen teknologiarri esker. Eta horretan lan bikaina egiten diharduten lantaldeak ditugula.

Itzultzaile automatikoei euskaraz lasai sortzeko aukera eskainiko digute, irakurleak ulertuko duen edo ez pentsatzen hasi beharrik gabe. Elkartean, Whatsapp taldeetan, administrazioan... euskaraz jarduteko aukera, jakinik euskaraz ulertzen ez duenak ere izango duela,

ZORIONEKO GARA, BAINA EZ DEZAGUN AHAZTU HORIEK, BETIERE, LAGUNGARRI IZANGO DIRELA

nahi badu, bidea edukiaz jabetzeko.

Baina paradoxikoa badirudi ere, inoiz baino aukera gehiago izango da gaztelaniaz sortu eta euskaratzearen ardura itzultzaile automatikoaren esku uzteko ere.

*Neuronak*l deitzen zaie itzultzaile berrioi gure garuneko neuronen funtzionamendua emulatzen dutelako. Aplikazioei urte luzetan egindako itzulpenak ematen zaizkie eta sistemak horiek aztertu eta ikasi egiten du. Zenbat eta gehiago elikatzen eta entrenatzen ditugun, orduan eta emaitza hobea.

Zorioneko gara itzultzaile neuronalak izateaz, baina ez dezagun ahaztu horiek, betiere, lagungarri izango direla, eta oinarritzakoa gutariko bakoitzaren neurona sareak euskaraz elikatzea eta entrenatzea dela.

Gabon hauetan Debagoieneko idazleren batek idatzitako euskarazko liburu bat irakurtzea izan liteke entrenamendu modu polit bat.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Liburuen arriskuez

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Araukania eta Patagoniako erregearen hilobia aurkitu dut, ustekabea, Okzitaniako Tortoirac herrian. Txilen izan nuen Orelie-Antoine I.aren berri: 1858an abokatu lana utzi eta Perigueux-etik Valdiviaraino joan zen, erresuma bat sortzeko asmoz. Burmuina literaturaz blai zeraman. *La Araucana* poema epiko luzea irakurrita zeukan, guraso bermeotarrak zituen Alonso Ertzillak XVI. mendean idatzitakoa, eta liburuko gerlari maputxe eder eta adoretzu haiekin "nazio berri eta indartsu" bat sortzea

erabaki zuen. Orelie-Antoinek harreman bikainak lotu zituen buruzagi maputxeekin, eta haien babesarekin Araukania eta Patagoniako erresuma aldarrikatu zuen [...] Koroatzea ospatu, konstituzioa idatzi, bandera diseinatu, armadaxoa antolatu eta Frantziari kolonoak bidaltzeko eskatu zion. Ez zioten jaramonik egin, baina Txileko Gobernua kezkatuta zegoen, garai horretan bertan Napoleon III.a Mexikon monarkia frantziarra ezartzeko ahaleginetan zebilelako. 1862an txiletarrek Orelie-Antoine atxilotu, epaiketan "gaixo mentala" zela erabaki eta Frantziara bueltan bidali zuten. Burua koroarik gabe baina ondo egoskortuta,

Araukaniako erregea bitan itzuli zen maputxeengana eta txiletarrek bietan egotzi zuten. Miserian hil zen.

Iban Zalduak dio bidaia literatura kaltegarria dela, kronikagileek bidea zabaltzen dietelako konkistatzaile, kolonizatzaile eta turista-saldo harrapariei. Ez zaio arrazoirik falta, baina motz gelditzen dela uste dut: literatura osoa da arriskutsua, poema batek ere sukar inperialak piztu ditzakeelako. Esaten dute inor ez dela salbu, liburu indartsu bat esku artean daukanean. Haren ingurukoak are gutxiago.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea

Kooperatiba Elkartea

Otalora Lizentziaduna 31

20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetakoa arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amalia Martinez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,

Amalia Mundinano,

Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,

Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Kooperatiben lege berriak argitasuna ematen du"

JAVIER GOIENETXEA MONDRAGON TALDEKO KONGRESUKO PRESIDENTEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Kooperatiben Euskal Legea onartuko du gaur, barikua, Eusko Legebiltzarrak. Zaharkituta geratuta zegoen 1993koa ordezkatuko du. Arauak, "argitasun gehiago" ematen duela dio Goienetxeak.
Zein da lege honen ekarpenik eta baliorik nagusia? Zergatik da inportantea?
Gaurko egoerara egokitzen delako, lehiakortasuna eta gure izaeraren oreka bermatuz. Lege berriak eguneratzen ditu zaharkituak zeuden hainbat arau.
Ze aldatzen da egungo egoeratik?
Hobekuntza juridikoak sartzeaz gain, proposatutako aldaketek argitasun handiagoa ematen dute, arauen garapena ziurtatuz.
Fagor Etxetresnen porroten moduko egoeretatik erator daitezkeen bazkideen erantzukizunak argitzen ditu legeak?
Bai; guretzat garrantzitsua zen gaia argitzea. Legeak



Javier Goienetxea. TU LANKIDE

kooperatibaren hartzekodunen aurrean pertsona bazkideen erantzukizuna mugatzen du eta ekarpen sozialen enbargaezintasuna ezartzen du. Argi geneukan berez

horrela zela, baina legean idatzita egoteak ziurtasun juridikoa ematen digu. **Kooperatiben sektoreari malgutasuna ematen dio legeak?** Kooperatibetako legegileak jakitun dira eta izan dira

euskal kooperatiben globalizazio mailaz. Honela, talde kooperatiboak araututa, enpresen arteko fusioak ahalbidetu du. Kooperatiba mistoen sorrera ere aurreikusten du legeak. **Bazkide ez diren langileen batez bestekoa %25etik %30era igotzeak sortu du zeresana. Zergatik igoera?** Lege berriak ez du funtsezko ezer apurtzen. Langileen kontratazioa da merkatuen lehiakortasunari malgutasunez erantzuteko modua. Enpresa eredu guztien artean, kooperatibak dira eredurik parte-hartzaileena. Langile guztien %70 bazkideak izango dira gure kooperatibetan, orain arteko antzera. Kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan parte hartuz. Bazkide bakoitzak boto bat izanik erabakitzen. Eta hori kooperatibek bakarrik egiten dute. Enpresa mota aurreratuena izanik ere, aberastasuna ondoen banatzen duen eredua da kooperatiba. **Kooperatibista izatearen gainera arau berezirik bada ala malgutasunak urtu dezake nortasun hori?** Alderantziz, lege honek kooperatibak hobetzea eta lehiakorragoak izatea ekarriko du. Hasteko eta irauteko aukera gehiago

izango dugu, gizartea hobetzen jarraitzeko. Ez daukagu aldatzeko asmorik eta beharrik. Eta hemen egoteko, bizitzeko eta gelditzeko asmoa daukagu, nahiz eta horretarako globalizazioari egokitzea beharrezkoa izan. **Oro har, lege ona da? Kooperatibek pozik hartu dute?** Lege ona da, dudarik gabe. Pozik gaude egindako lanarekin, lortutako emaitzarekin eta talde politiko desberdinetako legebiltzarkideekin lortutako kontsentsuarekin. Legea egiteko parte hartzeko aukera izan dugu, eta eskertzen dugu horrela egin izana. Legea adostasun osoarekin, aho-batez, aurrera ateratzea nahiko genuke. **Lanbideko administrazio kontseiluko kide izatea ez du ahalbidetuko lege berriak.** Irmo sinisten dugu gure presentzia eta parte-hartzea legezkoa eta legítimo dela. Eta beharrezkoa dela gure presentzia enplegu eta formakuntza gaietan daukagun ezagutza eta ekarpenak egiteko gaitasunagatik. Jarraituko dugu lanean Lanbiden ordezkaritza izateko, Nafarroan gertatu den bezala.

ITURRI ONETIK

Oñatiko gaztelekuaren liburua, ia gertu

Oñatiko gaztelekuak oraingo egunotan, Gabonetan, betetzen ditu 25 urte. Hori dela eta, liburua idazten aritu da Iñigo Biain azkeneko hilabeteetan. Oraingoz, izenbururik ez duen liburuak bi zati ditu: lehenengoan, 25 urte hauetako ibilbidea eta aurrekariak jasotzen ditu; bigarrenean, gaztelekuan antolatutako diren ekimen eta ekitaldien zerrenda kronologikoa jaso du egileak. Liburua bukatzeaz da, baina oraindik ez dauka izenbururik, eta aurki emango dute argitara.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2003-12-23

Juan Zelaiak, Gipuzkoako Urrezko Domina

Juan Zelaia enpresaburu oñatiarrari Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen saririk inportanteena eman zioten: Gipuzkoako Urrezko Domina. Euskararen eta kulturaren alde egindako lanagatik. Iñaki Gabilondo kazetariak eta Jose Maria Setien gotzain nagusiak ere jaso zuten. Egun batzuk lehenago, Antton Abbadia saria jaso zuen Elayk, eta Aloña Mendik Gipuzkoako kirol elkartetik onenarena; biak, Diputazioak emanak.

HAU BE BADOGU!

Sare sozialak, Gabonei begira

Ate joka daude Gabonak, eta sare sozialetan ere dagoeneko aztoratuta dago Twitter. Izan ere, Gabonak maite eta gorroto dituztenak daude:
@naagoresanchez: "Ez nago prest psikologikoki Gabonak irauten duten denbora dana klasekideak eta pisukideak ikusi gabe egoteko".
@fushunahia: "Gabonak gorroto ditut jo".
@iraitz: "Gabonak gustatzen ez zaizkion bakarra al naiz?".
@axkopa: "Gabon zoriontsuak? Zer motatako Gabonak eta zer motatako zoriona? Zertan ari gara".

Zerbitzu "jasangarriago eta eraginkorragoa"

Kale garbiketarako zerbitzu berria aurkeztu dute asteon Udalak eta Arrasateko kale garbiketaz arduratzen den CESPAn enpresak; hala, dagoeneko erabilgarri daude 'Lineaverde' webgunea eta 'Lineaverde' aplikazioa, garbiketa kudeatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aplikazio berri honen bitartez herritarrek kale garbiketan parte hartzeko duten aukera azpimarratu du Oscar Garciak, Oبرا, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Auzoetako batzordeko buruak. "Aplikazioak iradokizun-buzoi bat dauka, eta baita intzidentziak markatzeko eta geolokalizatzeko erreminta bat ere, eta hori garrantzitsua da, guztiok inplikatu gaitzkeelako kale garbiketan".

Geolokalizazio sistema

Hain zuzen ere, geolokalizazioa sistema da berrikuntzetako bat, ibilbideak "erabateko gardenak" izateko eta herritarren kexak "hobeto" kudeatzeko. "Kexa bat heltzen bazaigu esanez, adibidez, kale batetik ez direla pasatu garbitzaileak, garrantzitsua da jakitea egia den ala ez. Izan ere, batzuetan, jendea dagoenean ez dira pasatzen eta jendea ez dagoenean bai. Erreminta honekin jakingo dugu zehazki nondik pasatu diren garbitzaileak, ze ordutan pasatu diren eta zer egin duten", azaldu du.

Herritarren parte hartzea, berrikuntza, jasangarritasuna eta moldagarritasuna dira zerbitzu berri honen ildo nagusiak. Azken honetan zerbitzua emateko baliabideak gehitu dituz-



Garbitzaile bat, Oscar Garcia zinegotzia eta Estibaliz Sanz CESPAn kidea. A.A.

tela gaineratu du Garciak. "Arrasatek zazpi eguneko zerbitzua dauka, goizez eta arratsalde. Urarekin egiten den garbiketa egunerokoa da eta orain, makineria berriarekin, kaleak ur beroarekin garbitzeko aukera daukagu. Modu horretan, garbitasun pertzepzioa askoz ere handiagoa da".

Zerbitzu "osoa"

CESPA enpresa arduratzen da Arrasateko kale garbiketaz, eta, enpresako Gipuzkoako ardura-dun Estibaliz Sainzek azpima-

rratu duenez, zerbitzu berri hau Arrasateko ezaugarrietara egokitu da. Zerbitzu eraginkorra, bideragarria eta jasangarria da".

Gaineratu du eskaintzen duten zerbitzua osoa dela. "Zerbitzu guztiak indartu egin ditugu; egunez eta arratsalde garbitzeaz gain, goiko auzoetan ere areagotu egin dugu. Horrez gain, jaietan ere aparteko zerbitzua eskainiko dugu, prestaketa lanetan, jaiek dirauten bitartean, eta bukatu ostean. Azkenik, intzidentziei aurre egiteko guardia zerbitzua ere egongo da".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Klima, negozio

Harrigarria da kapitalisten gaitasuna edozein kausa txalogarri negozio bilakatzeko, kontraesanik handienei larri sendoen erakutsita. Ia barregarri iruditzen zait EAEn agintean dagoen alderdiko arduradunak AHTa, Errauskailua... eraiki bitartean, Klimaren Gailurrean egotea Madrilen, kezka aurpegia ipiniz; hainbat enpresari potolorekin batera. Esperpentikoa da, eta ziur abagunea baliatuko dutela beste makroproiektu bat negoziatzeko.

Bitartean, EITBn, tarterik garrantzitsuenak klimari eskaintzen dizkiote, beti urrutiko irudiak ipiniz; Amazoniako sute bat edo... Gure herrietako porlanaren masifikazioa, oster, ahaztu egiten zaigu. Zenbat autobide, AHTarentzako zenbat azpiegitura eraiki dira azken hamarkadetan? Zenbat plan urbanistiko jasangaitz egin dira -Gasteizko hezeguneen suntsipena, adibidez-? Euskal eliteek euren buruaren propaganda egiteko erabiltzen dute eurek sortutako arazoen inguruko posturoa, hedabide handiak lagun.

Ez dago besterik: planeta zaintzeko, sistema aldatu behar da, ez makillatu. Ekonomia eta kontsumoa planifikatuko dituen sistema bat behar dugu, eta sistema horrek izen bakarra du: sozialismoa.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Uraren kontrola mugatzea, "ideia ona"



Herritar batek argazki hau bidali du Goienara, esanez "ideia ona" iruditzen zaiola Garagartzako garbigunean uraren kontrola mugatzea. Halere, fosoa ixtea ez zaio horrenbeste gustatu.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



AS Reformak

• ERREFORMAK ORIGORREAN
• BIOERAKUNTZA

Tel.: 607 95 79 11

www.asreformak.net
ARRASATE

*Ohiturei eutsiz, jan dezagun bistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!*



JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA



Euskal okela, bertan egindako txorizoa,
tripakiak eta solomoa

Olarte kalea 20
ARRASATE

Gabonetako egunak alaitzeko, askotariko ekintzak Arrasaten

Ludoteketako eta gazte txokoetako ekintzez gain, Errege magoen desfilea eta artisautza azoka ere egongo dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Alde batetik, haurrek eta gaztetxoek ez dute aspertzeko aukerarik izango, datorren astean hasita mota guztietako ekintzak izango dituzte eta. Ludotekei dagokionez, abenduaren 26an, eguna, *slime* eta *just dance* tailerrak izango dituzte, 17:00etatik 21:00etara. Hilaren 27an, egubakoitza, Ezkioko Igartubeiti baserrira egun osoko irteera egingo dute, 10:00etan abiatuta. Gailera tailerra eta zentzumenen bisita egiteko aukera ere izango dute. Abenduaren 28an, azkenik, mendi irteera egingo dute, 10:00etan irtenda.

Eski irteera, eta askoz gehiago

Gazte txokoetan ere hainbat ekintza izango dituzte egunotan. Hilaren 26an, jolas *martzianuak* egingo dituzte, 17:00etatik 21:00etara. Abenduaren 27an, berriz, Lexuri Doyagueren eskutik, bidaien kronikak egingo dituzte *street art* ikuspegitik, baita grafiti tailerra ere. 28an, *gaztetxer* lehiaketaren txanda izango da, 17:00etatik 21:00etara. Egun berean, eski eta snow irteera egingo dute Valdezcarayra. Plaza mugatuak dira; beraz, izena eman beharko da, *Arrasate.eus* webgunean, edo gaztetxekoan, abenduaren 21a baino lehen -bihar-. Materiala norberak eramanda, 30 euro, eta materiala alokatuz gero, 50 euro. Abenduaren 29an, magia ikus-kizunaz goatzeko aukera izango dute, 17:00etatik 21:00etara;

eta 30ean, bingoa izango dute, ordu berean. Datorren urteko lehen egunetan ere izango dituzte ekintzak. Urtarrilaren 3an, esaterako, Wii dance dantza saioa egingo dute, 17:00etatik 21:00etara, eta urtarrilaren 4an, ping-pong torneoa, ordu berean.

Txikilandia, hiru egunean

Urtero moduan, Txikilandia egingo dute aurten ere Uarkape pilotalekuan, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, 10:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Artisautza lanak gozagai

Arrasateko Eskuarlean artisau kolektiboak antolatuta, Gabonetako artisautza azoka egingo dute aurten ere; abenduaren 23an, astelehena, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era eta hilaren 24an, martitzena, 11:00etatik 14:00etara.

Desfileak, hainbat berrikuntza

Errege magoen desfilean parte hartzeko izen-emateak 23an, 26an eta 27an egin beharko dira, 17:00etatik 18:00etara, Abadetxeko lokaletan. Koruan parte hartu nahi dutenentzako entsegua izango da egun horietan eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, 17:30etik 18:30era, leku berean.

Desfilea 19:00etan hasiko da, Garibain, eta aurtengoak ibilbide luzeagoa izango du. Bestalde, karroza "landuagoa" izango dute, eta abestiak altuago entzungo dira, mikrofono eta bafleak izango dituztelako.

'Arkitektura Lehen Hezkuntzan' liburua aurkeztu dute

2017ko udan egindako lanekin, guztiz eraldatuta gelditu zen Arizmendi Ikastolaren Arrasateko Santa Teresa gunea. Konfiantzaren Pedagogia izenekoaren irizpideak jarraitutako egokitzapen arkitektonikoak izan ziren, eta orain, aldaketak nola, zergatik eta zertarako egin ziren azaltzeko, *Arkitektura lehen hezkuntzan* izeneko liburua ar-

gitaratu dute. "Gure helburua izan da eraldaketa arkitektonikoa egitea, baina, betiere, pedagogia arloko beharrei erantzuten diena", dio Iban Roak, Santa Teresa guneko zuzendariak.

Egindako aldaketek eragina izan dute Santa Teresaren eguneroko martxan. "Bagenekien espazioak eragin handia zeukala, baina benetan harrituta geratu gara ze eragin daukan egunerokotasunean, ikasleengan, irakasleengan, gurasoengan, komunitatearengan, guztiongan".

Aita Menni ospitaleak elikagai bilketa jarri du martxan

Aurten ere bat egin dute Zaporeak elkartarekin, eta urtarrilaren 6ra bitartean jasoko dituzte herritarrek emandako produktuak, hiru zentrotan: Arrasateko ospitalea (Gesalibar, 15); Jose Miel Barandiaran egoitza, Durangon (Jose Miel Barandiaran kalea, 1) eta Txurdinagabarri egoitza, Txurdinagan, Bilbon.

50 Gabon ospatzen ditugu zurekin



Legatz osoa
1-2 kg

6,95
€/kg



Esneko arkume
garbia, erdia
edo osoa*

12,95
€/kg

Labeko denbora.

Arraina 180 gradutan egin labean; kilo bat artekoak 15 minutuan egin eta kilo gehigarri bakoitzeko 10 minutu gehitu. Garrantzitsua da erretilua kolpeztatzea, arraina itsatsi ez dadin.

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili santamasetan!

Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

Eskaintza baliozkoa:
2019ko abenduaren 24ra arte

EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

"Oso pozik nago lortutako emaitzekin"

JOSU URIBARREN KORRIKALARIA

Irailean hasi zen lasterketetan parte hartzen eta marka hobetzen joan da. Domekan, Santamas Krosa irabazi zuen eta lanean jarraitzeko gogotsu dago arrasatearra

Amaia Aranegi ARRASATE

Josu Uribarren orain arte areto futboleko aritu da, Mondrate taldean. Aurreko urtean, mendian korrika egiten hasi zen eta irailetik aurrera serioago hartu du korrika, eta bere lehengusu korrikalariak, Beñat Arnaiz Uribarrenek, entrenamenduekin laguntzen dio. Domekan, Santamas Krosa irabazi zuen.

Nola prestatu zenuen Santamas Krosa?


Irailean hasi nintzenean, nire helburua Donostiako maratoi erdia zen, eta horretarako prestatu nintzen, ez diot korrika egiteari utzi. Beraz, Santamas Kroserako prestatuta nengoan, eta Arrasaten zenez, parte hartu nuen.

Nola bizi izan zenuen lasterketa?

Berezia da herrian lehiatzea. Domekan eguraldi ona zegoen eta leku askotatik etorri zen jendea animatzera, eta animoek gehiago laguntzen dute. Giro aparta zegoen Arrasateko kaleetan zehar.

Irabaztea espero zenuen?

Ez; beste pertsona asko zeuden ni baino faboritoagoak zirenak. Aurrean ibiltzeko aukerak nituen, baina ez nuen pentsatzen irabaziko nuenik. Gainera, Arrasaten badaude beste korrikalari asko marka onak lortzen di-



Uribarren, Santamas Krosean. J.U.

tuztenak. Inork ez zuen espero nik irabaztea, eta sekulako poza sentitzen dut.

Nolako entrenamendua jarraitzen duzu?

Lehengusuak esaten dizkit egin beharrekoak. Asteaz 5-6 aldiz entrenatzen naiz. Orain arte, futbolarekin batera entrenatzen nintzen. Korrikaz gain, astelehen eta asteazkenetan futboleko entrenamenduak izaten nituen. Biak partekatzen egon naiz eta horrek asko nekatu nau.

Orain, korrikan bakarrik arituko zara?

Bai, futbola itxi dut eta urtarrietik aurrera korrikan zentratuko naiz. Hasieran, ez nuen pentsatzen horrelako marka onak lortuko nituenik, eta bi kirolak partekatzeak gai ikusten nuen nire burua. Baina ezinezkoa egin zait bietan %100 aritzea. Hala ere, Mondratek partiduren baterako laguntza behar badu, prest nago.

Epe laburrean, badaukazu lasterketaren bat egiteko asmorik?

Ez daukat oraindik beste lasterketa batean parte hartzeko asmorik. Orain, Gabonak disfrutatu nahi ditut, eta urtarrian entrenatzen jarraituko dut. Hortik aurrera, lasterketa batean parte hartzeko aukera ikusten dudanean, ikusiko dut.

Denbora laburrean emaitza onak lortu dituzu. Lanean jarraitzeko asmorik badaukazu?

Irailean serioago hasi nintzenetik hainbat lasterketatan parte hartu dut: Donostiako maratoi erdian, Behobian, Arrasate-Oñatin, Soraluze-Bergaran... Guztietan emaitza hobetzen joan naiz eta oso pozik nago lortutako emaitzekin. Domekan, Santamas Krosa irabazi nuen eta horrek asko poztu ninduen. Orain, poliki-poliki lanean jarraitzea eta marka hobetzea da nire helburua.



AKE PADEL

Padel txapelketako finalak

Domekan, abenduaren 15an, jokatu zituzten Santamasetako Padel Txapelketako bi finalak. Kategoria mistoko finala nahiko estua izan zen, Amaia Zabaleta eta Juan Luis Etxaniz izan ziren garaile Maitane Roaren eta Mikel Mondragonen aurka. Gizonezkoetan, aldiz, alde handiagoarekin irabazi zieten Jorge Aranesek eta Patxi Vallejek Magallanesi eta Larreari.

Profesional mailako pilota partiduak izango dira domekan

Urtero moduan, santamas egunean, abenduaren 22an, profesional mailako pilota partiduak izango dira Uarkape Udal Piletalekuan.

Arratsaldeko bostetan hasita, promozio txapelketako partidua jokatu dute lehenik: Alberdi eta Salaverri, alde batetik, eta Salaberria eta Garmendia, bestetik. Ondoren, txapelketa nagusiko partidua jokatuko dute, Ezkurdia eta Martija eta Artolaren Imazen aurka, hain zuzen. Bi bikoteak sailkapenaren goiko aldean daude; Ezkurdiak eta Martijak bi garaipen eskuratu dituzte orain arte eta Artolak eta Imazek, berriz, hiru garaipen. Sarrerak agortuta daude.

Arrasateko atletek emaitza onekin hasi dute denboraldia

Pista estaliko denboraldia domekan, abenduaren 15an, hasi zen Anoetako belodromoan. Arrasateko atletak izan ziren bertan, eta ezin hobeto hasi dute denboraldia; honela dio Fernando Zufiriak: "Ekainean izan ziren aire librean egindako azken lehiaketak. Beraz, opor osteko lehen proba izateko, emaitza onak lortu dituzte gure pertika-jauzilariek, marka pertsonalak gaindituz".

Istar Dapena atleta arrasatearra pertika-jauzian Gipuzkoako marka hautsi zuen, 5,30 metroko jauziarekin. Malen Ruiz de Azua ere bertan izan zen, eta jauzi ona egin eta 4,38 metroko marka lortu zuen.

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zoriontsuak!

Iturriotz 21 - Tel.: 943 79 03 84 - eyaelec@telefonica.net

ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Ford Kuga 2019 Edition

18.350€-tik guztiz hornituta

FCE Bank-en finantzaketa hilabete amaiera arte



**GRUPO
EASO
MOTOR**
www.grupoeasomotor.com

Lintzirin-Oiartzun
A8 salida 48 N1 a Irún
Polígono Lintzirin, 10
Teléfono 943 260 426

Lasarte-Oria
Pabellón 2
(Salida N1, nº 451)
Teléfono 943 376 753

Beasain
Automóviles Mujika
Carretera N1, Km 419
Teléfono 943 887 400

Irún
Vertiz
J. Thalamas, 48
Teléfono 943 629 200

Arrasate
Automóviles Mugarri
C/San Andrés, 6
Teléfono 943 790 744

Ford Kuga gama, aukera barik: WLTP, ziklo mistoaren kontsumoa 6-9,9 l / 100 km. WLTP. CO2 emisioak: 158-224 g/km (NEDC, 136-204 g/km). Indarrean dagoen araudiari egokitutako neurriak. CO2 emisioen balioak aldatu egin daitezke hautatutako ekipamenduaren arabera. NEDC balioak izango dira ibilgailua eskuratzearekin loturiko fiskalitatea kalkulatzeko balio dutenak. Kuga Trend 1.5 EcoBoost 88 kW (120 ZP). Eskaintzak hau guztia barne hartzen du: BEZa, garraioa, IEDMT -garraio bide batzuek izaten duten zerga berezia, autonomia-erikidegoen arabera aldatzen dena; hortaz, komeni da kasu bakoitzean aztertzea-, sustapen-deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SE-rekin finantzaturia Ford MultiOpcion bidez, gutxienez 12.000 euroko finantzaketarekin eta gutxienezko iraupen-konpromisoa 25 hilabetekoa izanda. Kreditu-balorazioaren arabera operazioa. Eskaintza baliagarria hilean eskatutako eta matrikulatutako autoentzat. Iragarki honetan agertzen den modeloak ez dauka zertan bat etorri eskaintzen den autoarekin. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabete bukaera arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ford.es.

Musika eskaintza zabala izango da Gabon jaietan

Kultur taldeen urte osoko lana herritarrei erakusteko momentu ezin hobe eskaintzen dute santamas eta Gabon garaiek. Hori horrela, musika ekitaldi ugari eskainiko dira gaurtik aurrera Arrasaten, herriko musikarien eta gonbidatuen eskutik

Amaia Aranegi ARRASATE

Santamas eta Gabon giroan murgiltzearekin batera, herriko musikariekin prestatzen dituzten emanaldiak eskaintzeko unea iristen da, baita kanpotik etorritako gonbidatuen musikaz gozatzeko ere.

Arrasate Musikalek, urtero bezala, Gabonetan kontzertu bereziak eta ohitura bilakatu direnak antolatatu ditu. Gaur arratsaldeko sei eta erdietan, Kulturaten, Ikasleen Gabon kontzertua eskainiko dute. Abenduaren 26an, 11:30ean, Aita Mennin, Izan Suzuki taldearen kontzertua egongo da, Amaia Garroren gidaritzapean. Eta abenduaren 31n, Gabon zaharreko kontzertua eskainiko du Bandak, 13:00etan, Amaia Antzokian. Sarrera 3 euro izango da 20 urtez gorakoentzat.

Goikobaluk Harremani laguntzeko kontzertu solidarioa eskainiko du gaur, 20:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokian. Batutako dirua Mundukideren Mozambiqueko programara eta Indiako familia txiroetako 200 neskatila baino gehiago artatzen dituen umezurztegi batera bideratuko da.

Arrasateko gaztetxeak ere santamasetarako egitaraua prestatu du. Gaur, emanaldi akus-

tikoak izango dira, gaueko hamarretan hasita: Ekiñe Casado, Idoia Asurmendi eta Asier&Lierni. Bihar, 22:30etik aurrera, herriko taldeak izango dira kontzertuak ematen: Bloom, Libertad Condicional eta Rebel Noise. Eta domekan, santamas egunean, 23:00etan hasita, *Virgin Mari DJ-Set* emanaldia egongo da.

Bihar, abenduaren 21a, zapatua, Herrixa Dantzan egingo dute, einGO taldearen musikarekin. Portaloi elkarteak eta Santamas Komisiñuek antolatuta, Seber Altube plazan egingo dute dantzaldia, 18:00etan hasita –eguraldi txarra egiten

badu, Biteri plazan izango da–. Askotariko dantzak egingo dituzte, einGO taldearen zuzeneko musikarekin: soka, lotuan, soltean, jauziak, kontradantzak, joko-dantzak... Helburua animatzen direnak elkarrekin ondo pasatzea izango da.

Abenduaren 23an, astelehena, AMAK taldeak emanaldia eskainiko du. Euskal Herriko lau emakume musikari ezagun dira; guztiak dira ama, trikitilari eta pandero-jole, eta, aspaldiko partez, taularen gainean dira berriz ere. Bakoitzaren izenaren lehen letrarekin osatu dute taldearen izena, AMAK; eta eurak dira: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Mai-

der), Maixa Lizarribar (Maixa eta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten). Astelehenean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Amaia antzokian izango dira. Sarrerak hamar eurotan eros daitezke leihatilan eta www.arrasate.eus atarian. Informazio gehiago, gaurko PUNTUA aldizkarian.

Kooltur Ostegunak

Abenduaren 26an, eguna, Japoniako Brahman taldeak itxiko du urteko Kooltur Ostegunetako musika zikloa. Ibilbide luzeko eta eskarmentu handiko taldeak, punk-rocka hardcore-arekin nahasten ditu. Talde desberdin eta exotiko hau 1996an sortu zen eta 2018. urtean harrera ona izan zuen seigarren diskoa kaleratu zuen. Japonian oso ezaguna den laukote honek jarraitzaile sutsuak ditu bertan, eta egunean Arrasateko gaztetxean kontzertua eskainiko dute, gaueko hamarretan.

Urteko azken egunean, abenduaren 31n, Arrasateko Txor-bela otxotearekin kalejira izango da, 18:30ean, Arrasateko kaleetan zehar.

Urtariletik aurrera txalaparta ikastaroa Ttakunen eskutik

Arrasateko Ttakun txalaparta taldeak txalaparta ikastaroa antolatatu du urtariletik aurrera. Ikastaroa Kimu txalaparta taldeko Sergio Lamuedra txalapartari profesionalak gidatuko du. Saioak bi ostegunetik behin izango dira, Mankomunitatean. Plazak mugatuak dira. Izena emateko: 646 29 60 23 (Antton) eta 605 81 40 26 (Zalaka).

'Goazen 6.0' antzezlan musikala urtarilean iritsiko da Arrasatera

Urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 17:00etan, *Goazen 6.0* antzezlan musikala izango da Amaia antzokian. Emanaldi honek ETBko *Goazen* telesailako protagonisten bizipenak eta abenturak eramaten ditu agertoki gainera. Sarrerak hamar eurotan esku-ratu daitezke www.arrasate.eus atarian eta egunean bertan leihatilan.

alez-ale
produktuak solastu

Turroiak
Txokolateak
Lekaleak
Fruitu lehorrak
Zerealak eta haziak
Teak eta infusioak
Eztiak eta marmeladak

Maalako Errabala 8,
Arrasate • 687 96 30 74

Txi ki land ia 2020

Urtariletik aurrera

U2 OSTEGUNA
10:30-13:30
UR PARKEA
Musikakolatu igariekutan
17:00-20:00
JOLAS PARKEA
eta
GAZTE GUNEA
Urtariletik aurrera
TAILERRAK
Gazteekin
18:00etan
IPUIN KONTALARIA
ipuin ikuslan
KARAOKEA
Kanta nagusian

U3 OSTIRALA
10:30-13:30 / 17:00-20:00
JOLAS PARKEA
eta
GAZTE GUNEA
Urtariletik aurrera
TAILERRAK
Gazteekin
17:00etan eta 18:00etan
IPUIN KONTALARIA
ipuin ikuslan
KARAOKEA
Kanta nagusian

U4 LABURBATA
10:30-13:30 / 17:00-18:30
JOLAS PARKEA
eta
GAZTE GUNEA
Urtariletik aurrera
TAILERRAK
Gazteekin
18:30etan
IKUSKIZUNA
Kanta nagusian
IRRIEN TALUPADAK

Antolatzailea: **txatxilipurdi**

Arrasaten, urtaririlak 2, 3 eta 4

Babesleak:
goiena
ION
BASIDA
zaidibar
UBALATZ
OLGETA
ALDEDI
LABORAL
k

Laguntzaileak:
mondagorLingua
goiena
ION
BASIDA
zaidibar
UBALATZ
OLGETA
ALDEDI
LABORAL
k



Aurten Barañainen egindako Bertso Egunaren irudi bat. XDZ

Aramaion ospatuko da 2020ko Bertso Eguna

Euskal Herriko bertsozaleen urteroko festa handia herriko baliabide eta aukeretara egokitu eta, eguerdiko bertso ibilbide gidatuaren ondotik, lau bertso bazkari egingo dituzte beste hainbeste elkartetan. "Jai ederra" izango dela iragarri du Xabi Igoak

J.I. ARAMAIO

2017ra arte beti Donostian egin ohi zen Bertso Egunak hirugarren aldia izango du izaera ibiltariz. Mungian egin zen lehenengoa, Barañainen aurtengoa eta Aramaion izango da datorren urtekoa, ohi bezala, urtea hasi eta lasterrera, urtarrilaren 18an. "Bizkaian eta Nafarroan egin ondoren, Arabari zegokion hurrengo Bertso Eguna hartzea, eta Aramaion izatea proposatu zuten elkartetik", dio herriko bertso eskolako Xabi Igoak.

"Proposamena iritsi zenean, ilusio berezia egin zigun, nahiz eta ardura puntu bat ere baden, antolaketa elkartetik eraman arren, bertso eskolarentzat ere izango zirelako egitekoak"; baina ez zuten zalantzarik egin baieztaraz ematerakoan.

Bi zati nagusi izango ditu Aramaion egingo duten Bertso Egunak, bigarrena lautan banatuta. Izan ere, 12:30ean, bertso ibilbide gidatua egingo dute Aramaio kaleetan; Amillena elkartearen

laguntza izango dute honetarako: "Bertso poteo ibiltaria izango da, gure herriaren berri emateko. Herriko hiru gune hartuko ditugu oinarri, eta, bakoitzaren gaineko informazio historiko eta turistikoa jaso ondoren, gai bati edo biri kantatuko diegu, gune bakoitzean hiru bertsolarik", azaldu du Igoak; Igoa bera izango baita eguerdian bertsoan jardungo duenetako bat, herriko eskolako Martin Abarrategi eta Ane Zuazubiskarrekin eta Andoni Egaña, Irati Majuelo, Jokin Uranga, Oihana Bartra, Oihana Iguaran eta Sustrai Colinarekin batera.

Bertso ibilbidea amaituta, berriaz, bazkariak izango dira, lau bazkari, beste hainbeste elkarte

ANE ZUAZUBISKAR, MARTIN ABARRATEGI ETA XABI IGOA IZANGO DIRA URTARRILAREN 18KOEN ARTEAN

gastronomikotan: Nerea Elustondo eta Unai Iturriaga izango dira Ehiztari Txokoa; Eneko Lazkoz eta Miren Artetxe, Izarra elkarte; Onintza Enbeita eta Sebastian Lizaso, Uribarriko elkarte; eta Ane Labaka eta Iñaki Viñaspre, Zabolakoan – azken bietara joateko autobus zerbitzua egongo da-. Txartelak salgai daude urtarrilaren 10era arte www.bertsosarrerak.eus atarian, 20 eurotan.

Areto handirik, adibidez, ez, eta Bertso Eguneko egitaraua eta egitura herriaren errealitate egokituta eman diote 2020koari aipatutako forma. Eguna amaitzeko, 19:00etan plaza hasita, Urola Erdiko trikitilariak ariko dira kaleak alaitzen.

Batzarra eta Kuadrilla Artekoa
Bertso Eguna aprobetxatuko du Arabako Bertsozale Elkarteak urteko batzarra egiteko eta Bertso Kuadrilla artekoa aurkezteko ere; goizean izango dira horiek.

Danel Herrarte eta Xabi Errasti, Arabako txapeldun kadeteetan

Zapatuan jokatu ziren, Legution, Arabako pilota txapelketako hainbat final; kadete mailakoa ere bai. Bertan, Danel Herrarte eta Xabi Errasti aramaioarrek etxeko taldeko Donairerekin eta De Tororekin neurtu zituzten indarrak, eta 22-17 irabazi zuten. Bestetik, Aramaio bigarren izan da txapelketaren sailkapen orokorrean, eskuz.



Irabazleak, txapelarekin. APE

Orixolerako igoera urteko azken egunean izango da oraingoan

Urtarrilaren 1ean egin izan dute Orixolerako urte aldaketa bueltako igoera. Aurten, ordea, abenduaren 31n egingo dute. 08:30era egin dute hitzordua, kiroldegian, 09:00etan abiatzeko mendirantz. Ohi bezala, salda izango da animatzen direnendako: "Herritarrak gonbidatuta zaudete, ea talde ederra osatzen dugun", diote mendi elkartetik.

Lehen sorospen eta larrialdi kasuetarako ikastaroa bihar

Udalak, Osakidetzarekin, lehen sorospen ikastaroa antolatu du. Biher, zapatua, izango da, 10:00ak eta 14:00ak artean, udaletxean. Bihotz-biriketako geldialdiari buruzko prestakuntza eta desfibriladorearen erabilera eta ondorioak ezagutzea dira ikastaroaren xedeak. Udaletxean galdetu behar da ikastarorako tokirik baden edo ez.

Kepa Errastiren 'Lur' antzezlanak ikusgai, urtarrilaren 4an

Xake Produkzioak konpainiaren *Lur* antzezlanak ikusteko aukera egongo da urtarrilaren 4an kultura etxean, 18:30ean, Txirritolak antolatuta. Zazpi urtetik gorakoentzako lana da, eta generoarekin lotutako gaiak lantzen ditu. Oso kritika onak jaso ditu antzezlanak, eta saritua ere izan da. Kepa Errasti aretxabaletarrak sortutako lana da.



Kepa Errasti eta Mikel Laskurain. GOIENA

Antzinako argazkien erakusketa, gaurtik aurrera kalean

Udalak aspaldi jasotako argazkiak dira, zaharrena 1900ekoa, artxiboan dituenak. Kalitate handiena dutenak aukeratu dituzte, garbitu, txukundu –Alex Mendikutek lagunduta–, euskarri egonkor batean atera eta kaleko paretetan zintzilikatzeko –bertan utziko dituzte–. Inaugurazioa gaur izango da, 17:00etan, Pedro Ignazio Barrutia kalean.

Urtarrilaren 20an batuko da Irakurle Klub Feminista

Esnearen kolorekoa izeneko liburua da hurrengo proposamena, eta irakurri ondoren solasaldia egingo dute, urtarrilaren 20an, 18:00etan, kultura etxean. Nell Leyshon idazlearen lana liburutegian hartu daiteke, mailugan. Klubean parte hartzeko izena 945-43 01 67 zenbakian edo berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidean eman daiteke.

Aurrekontua gertu proiektu berriei ekiteko

Urtea bukatu aurretik onartu gura izan ditu udalbatzak 2020ko diru kontuak. Guztira, hamar milioi euro pasako aurrekontua da eta inbertsioetarako 866.902 euro erabiliko dituzte; iazkoarekin alderatuta %31,5 egin du gora horrek

Mirari Altube ARETXABALETA

Atzo, abenduak 19, onartu zuen udalbatzak 2020ko udal aurrekontua, 10.093.788 eurokoa; iaz baino 87.000 euro gehiago dituzte gastatzeko. Sarrerei dagokionez, Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik 5.069.625 euro jasotzea espero dute, iaz baino 165.000 euro gehiago. Inbertsioetara, oster, 866.902,91 euro bideratu dituzte.

Adinekoendako gizarte zentroa

Inbertsioetan izarra izango da adinekoendako gizarte zentroa. Agintaldiko proiektu estrategikoetako bat da Udal Gobernuarendako, eta komentua egokitu dute horretarako. Lanen lehen faseari ekingo diote 2020an, beheko solairuan Basotxo erretiratuaren elkartearen egoitza eta eguneko arreta zentroa egokitzea. Milioi bat euro aurreikusituzte; 450.000 euro 2020ko inbertsioan sartuta eta gainerakoa, 2019ko gerakinarekin ordaintze-



Belorrieta inguruko etxeak eta kaleak. MIRARI ALTUBE

ko. Proiektuaren idazketa lizitazioa ateratzear dute. Komentua inguratzen duen horma birmoldatzeko proiektua ere idatziko dute datorren urtean -30.000 euro-.

Horrez gain, Santa Kurtz kaleko saneamendu lanak izango dira Hirigintza arloko proiekturik garrantzitsuenetakoa;

hori 2019ko diruzaintzako gerakinarekin ordainduko dute. Inbertsioetan, oster, honako hauek jaso dituzte: bide publikoetan hobekuntza lanak -50.000 euro- eta Bedarreta auzoan espaloiak egokitzea -25.000 euro-. Kuarteleko patioan lan batzuk egiteko partida ere badago -10.000 euro-.

Argiteria kontuetara hainbat diru bideratzea ere onartu zuten. Batetik, Ibarra futbol zelaian led argiak jarriko dituzte -76.000 euro-; bestetik, Arbizelaiko trialsin-gunea argizatuko dute -10.000 euro- eta zebra-bideak ondo argizatzeko lanak ere egingo dira -20.000 euro-.

Ongizate Sailari dagokionez, esku-hartze psikosozialera bideratu dute partida garrantzitsu bat -70.000 euro-. Egoera babesgabeen dauden adin-txikikoei eta gizarte bazterketa egoeran dauden helduei ematen dieten zerbitzua indartzeko izango da.

Nerabeekin egindako parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak bideratzeko asmoa ere badute eta eskatutako ekintzak antolatzeke dirua gordetzea erabaki zen -10.000 euro-.

Emendakin bi aurrera

EH Bilduk lau emendakin aurkeztu zizkion aurrekontuari, eta

Inbertsio handiko urtea



UNAI ELKORO
ALKATEA

2020ko aurrekontuak 10.093.788,37 eurokoak izango dira, iaz baino %0,87 handiagoak. Datuak osotasunean hartuz oso antzekoak diruditen arren, hurrengo urteko aurrekontuko partidak nahiko estutu dira, inbertsioetarako behar genuen dirua egokitzeko asmoarekin.

Inbertsio kapitulura 887.000 euro bideratu ditugu; inbertsio nagusia komentuen eraberritzea izango da, 450.000 euroekin. Edonola ere, 2020ko inbertsio osoa dezente handiagoa izango da, aurreko urteko gerakinarekin zati handiena ez baitu erabili, hurrengo urtean komentuari eta Santa Kurtzeko PEASari heltzeko.

Nabarmendu daiteke HAPoa martxan jartzeko 165.600 euro bideratu ditugula, berehala martxan jartzea espero duguna, eta 70.000 euro familia esku-hartze proiekturako.

Inbertsio handiko urtea izango da, beharrezkoak ikusten ditugun zerbitzuz eta azpiegituez hornitzeko herria; gainera, aspaldiko partez, urtea amaitu aurretik izango ditugu aurrekontuak onartuta.

Estutasunean aukerak



ION ALBIZU
EH BILDU

Gobernuaren kontuak ausarkeriazkoak direla uste dugu. Partida asko larregi estutu dira eta ez da kreditu nahikorik egongo hainbat kasutan. Horrek behartuko gaitu partxeetan ibiltzera.

Inbertsioetan badaude batzuk gure babes osoa dutenak: argiteria berritzea, irisgarritasun kontuak, gazterien ongizatekoak...

Eguneko zentroaren kokapen inguruko desadostasunetatik at, bi alderdion kanpainako proiektua zen; beraz, ados gaude. Dena dela, obraren aurretik horren inguruko proiektua ez egoteak harritzen gaitu: zenbat plaza, kudeaketa eredua, gestio kostuak... Aldi berean, etxer etxeko laguntza zerbitzua desmantelatzen ari da: partida %30 jaitsiz -90.000 euro gutxiago-. Nagusiak haien etxeetan egotea lehentasuna da guretzako.

Dena dela, aurrekontuak babestea erabaki dugu; aukerak ikusten dizkiogu. Gure emendakinak 207.000 eurokoak izan dira. Besteak beste, proposatu dugu gazteen emantzipaziorako udalak hutsik dituen bi etxeak apaintzea eta programa bat sortzea.

Inbertsio garrantzitsuenak

Adinekoendako gizarte zentroa -komentua-	450.000€
Futbol zelaiko argiteria	76.000€
Komentuko harresia egokitzeko proiektua	30.000€
Futbol zelai berriko aldagelak	30.000€
Bedarreta auzoan irisgarritasun lanak	25.000€
Zerabideetako argiztapena	20.000€
Bazterkeria kasuetarako esku-hartzea	70.000€
Bideetan hobekuntza lanak	50.000€
Nerabeei bideratutako ekintzak	10.000€
Kuarteleko patioan egokitze lanak	10.000€
Trialsin-guneko argiztapena	18.000€
Txakurrendako gunea libre egokitzea	8.000€
Inbertsioak guztira	866.902€

ITURRIA: UDALA

Udal Gobernuak erdiak onartzea erabaki zuen. Horien artean daude eguzkia aprobetxatzeko plaka fotovoltaiakoak ipintzea Ibarra kiroldegian eta Almen ikastetxera dagoen errepede zatian bidegorria egitea; azken horren proiektua egiteko konpromisoa hartu zuten.

Onartu ez zizkieten artean daude, oster, Durana kalean dagoen pasabidean bizikletak aparkatzeko eta gordetzeko lekua egokitzea, eta gazteen emantzipaziorako etxebizitza programa sortzea.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Errefuxiatuei lagundu guran, Gabonen bueltan

'Aita Mari' ontzian oraintsu arte izan den Izaskun Arriaran aramaioarrak errefuxiatuen egoera gogorraren berri eman du, eta UDAk eta Zaporeak-ek ekindako elkartasun kanpainarekin bat egin; elikagaiak jasotzen jarraituko dute urtarilaren 2a arte

Mirari Altube ARETXABALETA

Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuak gogoan, UDA eta Zaporeak elkarrekin abiarazitako elkartasun kanpaina aurrera doa. Haien egoeraren eta bizimoduaren berri gertutik ezagutzeko asmoarekin *Varados* filma eman zuten eguaztenean Arkupen, eta ondoren, Izaskun Arriaran, *Aita Mari* ontziko erizain boluntarioak azalpenak eman zizkien gerturatutakoei.

Negu "gogorra"

Afrikatik eta Asiatik iritsitako errefuxiatuak bizi dira Grezian; besteak beste, siriarak, libiarak, kamerundarrak, irandarrak



Arriaran, Elkoro (UDA), Agirre (Zaporeak). M.A.

eta afganiarrak. *Aita Mari* ontziak 79 lagunekin osatutako ontzi bat erreskatatu zuen azken irteeran: "Egun intentsuak izan ziren haiekin bizitakoak ontzian. Eta gehien harritu nauena izan da gaur egun oraindik zelan sufri dezaketen hainbeste pertsonak. Libian gertatzen dabilena sines-tezina da; erreskatatutako gizon guztiak tratatu txarrak jasandakoak ziren eta emakumeak bortxatu egiten dituzte. Ez dute inondik inora itzuli gura, nahia-go dute hil, eta, horregatik, bidaian asko arriskatzeko dute", eta gaineratu zuen: "Baina Greziara iritsi arren, oraindik ez dira Europara sartu. Errefuxia-

tuen kanpamentuetara bidaltzen dituzte eta kasu bakoitza banan-banan aztertuz gura dutela esan".

Kanpamentuetan bizi duten egoera ere oso zaila dela azaldu zuen. "Okerrera egin du, asko. 16.000 lagun daude, asko kanpoan lotan, egunean behin janda, arropa barik, esperantza barik, galduta... Negua oso gogorra izango da, ez dakit zer gertatuko den". Horregatik, Zaporeak egiten dabilen lana babestea –jatekoa gertatu sukaldetan– garrantzitsua dela aipatu zuen.

Elikagaiak, urtarilaren 2a arte

Zaporeakek kudeatutako sukaldeetara bidaltzeko elikagai bilketa egiten dabil UDA egunotan. Hondatuko ez diren elikagaiak jasotzen dabilta –pasta, dilistak, lekaleak...– Ibarra futbol zelaian, arratsaldeetan. Urtarilaren 2a arte luzatuko dutela kanpaina hori jakinarazi dute.

Bestetik, domekan Ohorezko Erregional mailako taldeak Mutrikuren aurka jokatu duen partiduko sarrera ikusle guztiek ordaindu beharko dute –5 euro–, eta diru hori ere Zaporeak elkartearendako izango da.

Eguzki-plakak jartzeko argibideak emateko gertu

Plaka fotovoltaiakoen bitartez norberak kontsumitzen duen energia zelan sortu kezka agertu dute hainbat herritarrek, eta horren gaineko argibideak eman zituzten joan den martitzenean, baita azaldu ere komunitateetan eguzki-plakak jartzeko zer egin behar den. Oier Etxebarria aretxabaletarrek hainbat plaka ditu jarrita etxean, eta horren gaineko azalpenak partekatu zituen: "Kontratututako potentzia berrikustera gonbidatzen ditut herritarrek, hasteko, behar baino gehiago dugulako. Eredua da aldatu behar duguna".

Arrasateko Ekitemik enpresako Xabi Lizaurrek, osterara, eguzki-plakaren gaineko nondik norako guztiak azaldu zizkien: "Instalakuntza nahiko sinplearekin lor daiteke iturri berri-tagarrietatik lortutako energia".

Argibide gehiago gura dituztenei –edo etxean jartzeko interesa izan– helbide honetan erantzungo dietela jakinarazi zuten: eguzkiagun@outlook.com.

Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA
Euskaraz

Deskargatu doan!

Mugikorretarako!
Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!

Gazteen galak
Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko galak

'IXA' websaila
Formatu bertikalean egin den euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakezu.

Eta zure edukiak!
ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

APP Store **Play Store**

Ekitaldi mordoa Gabon giroan murgiltzeko

Organo zein abesbatzaren kontzertuak izango dira, gospel kantuek ere bai, eta bertso saioa urtarilean. Olentzerok, Mari Domingik, Bizarzurik eta erregeek ez dute hutsik egingo, eta urtea umore onez bukatzeko San Silvestre lasterketa, beste behin

Mirari Altube ARETXABALETA

Joan den aste bukaeran eginda-ko Neguko Azokak eta egunotan izandako emanaldiek –musika eskolako kontzertuak, esaterako– Gabon giroan murgildu dituzte herritarrek. Horri jarraik, hainbat kontzertu eta ekitaldi izango dira egunotan.

Gabon giroko kontzertuak

Lehen kontzertua domekan izango da (19:00). Jose Luis Franzesenak joko du organoa parrokan, eta haren alboan kantuan egingo dute Aretxabaleta Abesbatzako lau kidek: Jokin Bengoa, Mari Karmen Etxeandia, Ciria- co Sandoval eta Mariatzen Urkia.

Aretxabaleta Abesbatzak ere ez du hutsik egingo egunotan; abenduaren 29an eskainiko du Gabonetako kontzertua, parrokan (19:00). Oraingoan ere Franzesena izango dute lagun organoan, baita Etxebeste ere, eta, besteak beste, abestuko dituzte *Ave Maria*, *Alleluia* eta *Oh holly night*. Leizarra musika eskolako haur abesbatza ere gerturatuko da hainbat kantu abesteko.

Eta abenduaren 26an, egunean, herrirako bidea ondo baino hobeto ezagutzen duen The Upper Room gospel talde gipuzkoarra izango da Arkupen (20:00).

Bertso saioa, oster, urtarilean izango da aurten: hilaren 3an (19:00), hain zuzen ere. Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Miren Artetxe eta Igor Elortza bertsolariak etorriko dira Amaia Agirrek jarritako gaiekin kantuan egitera. Sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai, Arkupen.

Ohiko desfileak

Barruan ez ezik, kaleetan ere Gabon kantuek nagusituko dira hilaren 24an. Herriko umeak, gurasoak eta Basotxoko kantu taldea kale bazterrek giroten izango dira txistulariekin batera; 10:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik, eta bertan buka-



Mari Domingi herriko ume batekin kontu kontari. MIRARI ALTUBE

ORGANOA LAGUN, ABESBATZAKO HAINBAT KIDEK EGINGO DUTE KANTUAN DOMEKAN

tuko dute. Antolatzaileek gomen- datu diete herritarrei kantuek bukatu arte ez botatzeko bolorik.

Eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira Herriko Plazara umeen gutunak jasotzera. Iluntzean itzuliko dira horiek, eta ohiko desfilea egingo dute kiroldegitik plazaraino (18:30).

Ez da izango egunotako desfile bakarra: abenduaren 31n, Bizarzuri iritsiko da eta urtarilaren 5ean Errege magoak. Musika eskolako musikariak eta herriko gurasoak izango dituzte lagun horiek.

Urteari agurra, lasterka

Urtea kirola eginez eta umore ona lagun bukatuko dute herritarrek aurten ere San Silvestre lasterketari esker. Udalak, UDAk, Aretxartek eta Basotxok elkarlanean antolatuta, 16:45ean hasiko da umeen krosa eta 17:00etan

helduena, Durana kalean –izena bertan eman ahal izango da–.

Haurrendako parkea

Urtarrilaren 2an eta 3an, Gabonetako haur parkea izango dute umeek Ibarra kiroldegian (11:00-13:00 eta 17:00-20:00). 3 eta 12 urte bitartekoendako jolasak izango dira han: puzgarriak, tailerrak eta bideo-jolasak, besteak beste. Egun bakarreko sarrera 6 euro izango da eta bi egunekoa, 10 euro; familia ugarien txartela aurkeztuz gero, hiru garren umeak debalde izango du.

Aretxarteren egutegia, gaur

Azken urteotan egindako legez, Aretxarte merkatarien elkarteko kideek egutegia oparituko diete bezeroei. Haiek protagonista diren 2.900 egutegi inguru atera dituzte eta gaur hasiko dira horiek banatzen dendetan eta tabernetan.



Murrukixoko Iñaki San Migel eta Zariaiko Martin Garaï, ekimenen karteekin. M.A.

'Kurtzebarritik plazara!' leloa presoan aldeko ekimenetan

Abenduaren 31rako Kurtzebarri mendira joateko dei egin dute eta iluntzean Herriko Plazan elkartuko dira

M.A. ARETXABALETA

Orain presoak, Gari Atxabaltara izenarekin Aretxabaletako Sarek azaroan abian jarritako ekimenaren lehen urratsak datoz orain. Herriko mendizale elkartetako kideekin elkarlanean, *Kurtzebarritik plazara!* leloaren baitako ekitaldiak antolatu dituzte abenduaren 31rako. "Zaraia eta Murrukixo taldeetara jo genuen gure proposamenarekin, eta begi onez hartu zuten", adierazi dute Sareko kideek.

Azken urteotan egindako lez, Kurtzebarri mendira joateko dei egin dute; 11:00etan elkartuko dira tontorrean, eta argazki erraldoia atera –eguraldi txarra eginez gero, 12:00etan Mendiola auzoko elizpean aterako dute argazkia–. "Mendizale guztiak animatu gura ditugu bat egitera".

Ondoren, iluntzean (19:00), Herriko Plazan elkartuko dira. "Mendira joaterik ez dutenek

ere bat egin dezakete ekimenarekin. Eta herritar guztiak animatzen ditugu horretara", diote Sarekoek.

Egindako harrerarekin "pozik"

Azaroan dinamikari hasiera emateko egindako agerraldi jendetsuarekin pozik agertu dira: "Askok elkartu ginen eta gustura gaude, nahiz eta hutsune bat edo beste izan genuen. Hala ere, eremu askotakoak gerturatu ziren eta herrian sare bihurtzen hasi garela uste dut. Erakundeekin harremanetan ere bagaude, eta etorriko dira pauso gehiago".

Urtarrilaren 11n, Bilbon

Hurrengo hitzordua Bilbon egingo den manifestazioa izango da, urtarilaren 11n. Autobusak antolatuko dituzte eta txartelak hainbat tabernatan izango dira salgai datorren astean.

Dantzan egin gura baduzu, etorri Basotxora

Goiena komunitatea
Basotxo / ARETXABALETA

Mundu guztia kartzelan, rocka dantzatzen hasi zen, zioen gazteak ginen abesten genuen kantu batek. Eta zelan mugitzen ginen orduan! Eta orain, zer?

Dantzan egitea ona da bai gorputzarendako, bai buruarendako. Jarduera fisiko samurra eta dibertigarria da, eta norberak

hartzen dio neurria. Dantzan egiteak muskuluak indartzen ditu, malgutasuna eta erresistentzia handitu, oreka eta koordinazioa hobetu, osteoporosia zaindu... Estresa murrizten du eta depresioa aldentu. Autoestimua indartzen du, baita norberarengan konfiantza ere, eta komunikazioa errazten du.

Baina Aretxabaletan non egin dantzan? Basotxon. Martitzen guztietan (16:30) elkartzen gara, ikasteko eta praktikatzeko. Animatu eta eman izena!

Inbertsioetarako inoiz baino diru gehiago bideratuko du Udalak

Asteon onartu dituzte 2020. urtera begirako aurrekontuak EAJren eta Elizateen aldeko botoekin eta EH Bilduren kontrako botoekin. Hala, guztira, 5,8 milioiko aurrekontua izango du Eskoriatzako Udalak; iaz baino %4,6 handiagoa



Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran batutakoak. I.B.

Imanol Beloki ESKORIATZA

Udalbatzako kideek 2020ko aurrekontuak onartu zituzten martitzenean egindako abenduko ez ohiko osoko bilkuran. 5.847.911 eurokoa izango da Eskoriatzak 2020ra begira izango duen aurrekontua; iaz baino, %4,6 handiagoa. Hain zuzen ere, 2019an baino 257.882 euro gehiago. Alderdi jeltzaleak eta Eskoriatzako Elizateen Elkarteak emandako baieztokitoekin – zazpi boto– izan ziren onartuak; EH Bilduk, berriz, ezezko hiru boto eman zituen.

Diru sarrera osoaren ia erdia Foru Funtsetik jasoko du Udalak, aurrekonturen ia erdia (2.871.000 euro), eta beste erdia tasak eta zergak dira (2.578.000 euro). Herriarrek jasaten dituzten zerga horiek %1 igoko dira iazkoarekin alderatuta. Horrekin batera, Eskoriatzako Udalak jasoko duen dirulaguntza 363.000 eurokoa izango dela jakinarazi zuten; aurreko urtekoa baino %25 gehiago.

Igoera orokorra

Herrigintzara 1,2 milioi bideratuko dituzte 2019an, aurreikusit

zena baino %35 gehiago: 518.000 euro inbertsioetan, 356.000 euro ekintza eta hobekuntza ikerketetan eta 322.000 euro dirulaguntzetan. Gastu arruntetan eta finantza gastuetan, berriz, iaz baino %4,6 gutxiago gastatuko dute: 2,8 milioi. Eta pertsonal gastuetan, 1,8 milioi, iaz baino %5 gehiago.

Gizarteari dagokionez, berdintasun ekintzetarako 5.300 euro bideratuko dituzte, iazko bikotiza, eta jubilatuen aisialdirako, berriz, 15.000 euro %50 gehiago. Horrekin batera, prekariedade

ikerketara egitea proposatzen du Udal Gobernuak. Jasangarritasunean, Manuel Muñoz kiroldegiko eguzki-plakak konpontzeko 25.000 euro bideratuko dituzte eta Luis Ezeiza eta frontoiko gunean energia jasangarria erabiltzeko proiektua garatuko dute. Euskararako eta kulturarako 697.000 euro izango dituzte eta kirolerako eta kirol instalazioetarako 794.000 euro, kirol eta aisialdirako ekipamendua hobetzeko eta kirol programentzat.

Aurrekontu herrikoia eta parte-hartzaileak direla argu-

diatuz, erretiratuen ortuen hobekuntzetarako 10.000 euro inguru bideratuko dituzte bi urtetan, eta Gatz Bidea konpontzeko izango da partida bat. Elizateetan, 117.000 euro, eta Herriko elkarteei dagokionez: Musika Eskola 48.000 euro, Kirol Elkartetarako 30.000 euro (+%27) eta Errekan Gora egitasmorako 10.000 euro (+%11). Euskaraldiak 9.000 euro jasoko ditu.

518.000 euro inbertsioetarako

Guztira, 518.000 euro bideratuko dituzte inbertsioetarako, inoiz

baino diru gehiago. Adibidez: Joseba Iñurrategi pilotalekua berritzeko 254.000 euro, elizateen bide eta sare hobekuntzetarako 70.000 euro, argiteria hobekuntzetarako 78.000 euro eta irisgarritasuna eta mugikortasunari dagokionez, Dorleta auzoko oinezko zubirako 50.000 euro. Jose Arana kalean oinezko bizikleten erreia jartzea eta Intxaurtxueta auzoko irisgarritasun ikerketara egitea ere aipatu zuten.

EH Bilduren emendakinei ezetza

Aurrekontuak onartu aurretik, lehenbizi, EH Bilduk aurkeztutako emendakinak izan zituzten hizpide. Sei aurkeztu zituzten, guztira: gazteek bizi duten egoerari aurre egiteko neurriak; genero-berdintasuna bultzatzeko neurriak; gaztelekua handitzea eta berritzea; Santa Anako aparkalekua handitzea; ibilgailuen zarata murrizteko zuzenketa; eta elektrizitate jasangarria kontratatzea. Hala ere, EAJk eta Elizateak osatzen duten Udal Gobernuak ez zituen oposizioaren proposamenak onartu eta eztabaida sortu zen osoko bilkuren aretoan.

Inbertsio nagusia, frontoian

Frontoia berritzea izango da inbertsio handiena. Hain zuzen ere, 254.000 euro bideratuko dituzte.

Lanak, hiru fasetan

Erabiltzaileekin adostutakoan, hau egingo dute lehen fasean: zerbitzu sareak berritu, berogailu erradiatzailea jarri, aldagela eta espazio berriak diseinatu eta irisgarritasuna eta konforta hobetu.



Pilota berpiztuz ekimeneko haurrak eskupilotan. I.B.

EAJ: "Aurrekontu baikorrak"

"2020ra begira onartu ditugun aurrekontuak eraginkorrak izango direla pentsatzen dugu, eta oso pozik gaude gehiengo batekin onartuak izan direlako. 11 zinegotzitik 7k onartu ditugu, eta lan egiten ari garen adierazle da hori. Aurreko agintaldiko ildoari jarraituz, aurrekontu baikorrak eta parte hartzaileak, sozialak eta integratzaileak izan dira onartutakoak. Orokorrean, arlo guztiek igoera daukate: kulturaren, jasangarritasunean, irisgarritasunean...; Inbertsioetan ere inoiz baino diru gehiago izango dugu, 500.000 eurotik gora; herriko elkarteentzako dirulaguntzei dagokionez, musika eskolak eta kirol elkarteak igoera garrantzitsuak izango dituzte, esaterako... eta ea martxan jartzen ditugun", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak.

EH Bildu: "Hitz batean, eklektikoak"

"Aurrekontuen gainean egin genuen bileran konpromiso bat eskatu genien, guk aurkeztu genituen proposamenen aurrean. Horiek herriko eragile eta elkarteek proposatutakoak ziren; hortaz, guk konpromiso minimo bat eskatu diegu, idatzita jaso zedin. Zehatzago aurkezteko eskatuta, bigarren dokumentu bat aurkeztu dugu, eta neurri malguak dira, baina ez dira beraieen gustukoak. Hitz batean esanda, eklektikoak dira beraieen aurrekontuak. Azken finean, leku ezberdinetatik hartuta osatu dituzte. Gurekin ez dute konpromisorik hartu nahi izan, eta argi utzi digute. Pena da, guk hainbatetan egin ditugulako proposamenak. Gehiengoak dutenez, beraieen aldetik elkarriketarako eta adostasunerako jarrera bat egon beharko litzateke...", adierazi du Eluska Irazuk, EH Bilduko bozeramaileak.

Elizateak: "Pozik"

"Gure planteamenduak onartu egin ziren bere garaian, eta diru gehiago jasoko dute Elizateak. Hala ere, kontuan hartu behar dira elurra eta sastrakak kentzeko laguntzak, urarena, argiarena, eta baita ere inbertsioak...", adierazi du Iñaki Kerexetak, Elizateetako bozeramaileak.

Euskara ardatz, 'tajin'-a egiten ikasiko dute

Auzoko Eskoriatza egitasmoak antolatuta, 'Munduko janak' izeneko saioa izango da gaur, 18:00etan, kultura etxean. Aljeriako eta Marokoko plater bat nola prestatzen den irakatsiko dute Fouzia Mekideche eta Khadija Gader Auzoko egitasmoko partaideek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, *Munduko janak* lelopean, janari marokoarra eta aljeriarra egiten ikasteko aukera izango dute herritarrek kultura etxean, Olazar Erretiratu Elkarteko sukaldean.

Eskoriatza Auzoko egitasmoak azaroan antolatu zuen Pakistan go jak gozo bat nola egiten den ikasteko tailerra; hain zuzen ere, *pakora* nola egiten den ikasteko aukera izan zen. Zenbait herritar animatu ziren tailerrean, eta, orduan izan zuen arrakasta ikusita, gaur, *tajin*-a egiten irakatsiko dute Auzoko Eskoriatza taldeko kideek.



Azaroan janari pakistandarra egiten ikasteko tailerrean batutakoak. AUZOKO ESKORIATZA

Sukaldaritzaz haratago

"Aljerian eta Marokon, bi herrialde horietan tipikoa den jaki bat egingo dugu gaur batzen garen auzotarren eta auzokideen artean. Hala ere, sukaldaritzaz saio hutsa baino gehiago izango da. Aurreko ikastaroan moduan, aurkezpen jokoak izango ditugu, lehenbizi, bertara etortzen direnek elkar ezagutzeko. Horrekin batera, erabiliko ditugun elikagaien eta tresnerien izenak euskaraz nola diren ikasteko aukera izango dute Auzoko taldeko kideek, eta, kultura-ohiturak partekatuz, oilaskoz eta barazkiz osatuta dagoen *tajin* platera egiten ikasiko dugu, ez dakigunok", adierazi du Iratxe Arresek, Auzoko Eskoriatza egitasmoko dinamizatzaileak.

Euskara praktikatzuz

Euskara maila ezberdinak dituzten partaideak batzen ditu Auzokok, eta, egiten dituzten ohiko saioek beharrezkoak diren arren, halako ikastaroak oso emankorrak direla adierazi du Arresek: "Aurreko saioan ikusi genuen moduan, eskoriatzarrek interesa erakutsi zuten Auzoko taldekoen jakien gainean, beraien hizkuntzez, ohiturez

eta bestelakoez. Talde heterogeneoa izan zen, adin tarte ezberdinetakoa, eta gaur egingo duguna ere halakoa izatea espero dugu. Izan ere, Auzokoko kideak asko hunkitzen ditu eskoriatzarrek euren kultura-

rekiko interesa dutela ikusteak. Gainera, jende berria ezagutzeko aukera ematen duen saioa da, eta ikusiko dugu zenbat batzen garen oraingoan, eta nola irteten den baina, seguruenik, antolatuko ditugu gehiago".

"Nire kultura ezagutarazteak hunkitzen nau"

KHADIJA GADER
HERRITARRA

Khadija Gader Auzoko Eskoriatza egitasmoko kideak *tajin* janari marokoarra nola egiten den irakatsiko du gaur kultura etxean.

Noiz hasi zinen Auzoko egitasmoan?

2012an hasita, bi urte egin nituen Auzokon. Gero, ama izan nintzenean, utzi egin nion joateari. Hala ere, iaz berrartu nuen eta oso gustura ari naiz euskara ikasten, eta baita bertako ohiturak ezagutzen.



KHADIJA GADER

Zer egingo duzu gaur?

Oilaskoa eta barazkiak dituen *tajin* plater marokoarra egingo dut. Askok gustatzen zait irakastea eta ikastea, eta nire kulturaren zati bat herritarren artean zabaltzeak asko hunkitzen nau.

Janaria prestatzeaz gain, euskara praktikatzuz, ezta?

Erabiliko ditugun elikagaien eta tresnen izenak euskaraz ikasteko aprobetxatuko dugu, besteak beste.

Apotzagatik iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi

Martitzenean, abenduaren 24an, 18:00 inguruan egingo zaie ongietorria, Intxaurtxueta auzora iristean

I.B. ESKORIATZA

Abenduaren 24an, Apotzagatik traktorean jaitsiko diren Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria egingo diete herritarrek, Intxaurtxueta. Handik hasita, kalek kale, Gabon kantak abestuko dituzte, Fernando Eskoriatza plazara iritsi arte. Bidean zehar zein amaieran, herriko gaztetxoek Olentzerorekin eta Mari Domingirekin egoteko aprobetxatuko dute.

Hala ere, goizetik izango dira ekintzak herri erdigunean. Izan ere, 12:00etatik 13:00etara bitar-

tean, Olentzeroren laguntzaileak haurren eskutitzak jasotzen izango dira plazan. 12:00etatik 12:30era, Gabon kantak abestuko dituzte herritarrek, eta 13:00etan, Trikitixa Eskolakoekin kalejira izango da. Honekin batera, goizean zehar gaztaina errearekin egiten izango dira plazan, eta hauek jateko aukera ere izango da.

Arratsaldean, urteroko ohiturari jarraituz, 17:30ean, Jose Arana zaharren egoitzara Gabon kantak abestera joango dira zenbait herritar.

Bandalismo ekintzak gaitzetsi ditu Eskoriatzako Udalak

Martitzenean egindako abenduko osoko bilkuran, Fernando Eskoriatza plazan Gabonetarako jarri duten argidun zuhaitzean egindako triskantzak salatu zituen Joserra Zubizarreta alkateak: "Alkate bezala oso gogor salatu nahi dut plazan jarri dugun Gabonetako zuhaitzak jaso zuen basakeria. Asteburuan, zuhaitzaren behealdeko argi

guztiak izorratzera dedikatu da norbait, eta egoera hori salatu nahiko nuke".

Horrekin batera, Eskoriatzako Udaletik komunikabideetara bidali duten oharra honako hau ere badio: "Duela astebate Luis Ezeiza eskolako eta Olazarko tuneleko argiak apurtuta agertu ziren, Torrebaserainoko bidea argi barik geratuta. Ekin-tza guztiak batuta, kalteak 15.000 eurotik gorakoak dira, eta, beraz, ezingo dira erabili herriko beste zenbait hobekuntza egiteko".

GORA ETA BEHERA



IURRE ROMARETAZABAL

"Eskoriatza presente dago Chiapasen"

Iurre Romaretazabalak, Chiapastik, bidalita, "Eskoriatzarekiko maitasun handia dutela" jakinarazteko argazkia. Atxorrotx mendiko margolana atzean, eta kirol elkarteko bufandarekin.



Aresko Saskibaloia Campusean batutako haurrak, Manuel Muñoz kiroldegian ateratako taldea argazkian, iaz. I.B.

Urteari hasiera emateko, saskibaloia campusa

Urtarrilaren 2an, 3an, eta 4an, Aresko Saskibaloia Eskolak Eskoriatzako Kirol Elkartearekin elkarlanean antolatutako Aresko Neguko Saskibaloia Campusa izango da Manuel Muñoz kiroldegian. Izen-ematea zabalik dago abenduaren 27ra arte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtarrilaren 2an emango diote hasiera 2020ko Aresko Neguko Saskibaloia Campusari. Gabonetako gehiegikeriei buelta emateko helburuarekin eta kirolari duen garrantzia emateko asmoz antolatu dute urteroko saskibaloia campusa Aresko eskolak eta Eskoriatza Kirol Elkartek elkarlanean.

2005etik 2011ra bitartean jaiotako hurrei zuzenduta egongo da –biak barne–, eta urtarrilaren 2tik 4ra bitartean, saskibaloia praktikatzeari batera, lagun artean ondo pasatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Hori horrela, 09:30etik 13:30era bitarteko ordutegia izango dute sas-

kibaloiaz gozatu gura duten gaztetxoek.

Julen Fornies eta Zuhaitz Gonzalez koordinatzaileen gidaritzapean, bost entrenatzaile arituko dira hurrekin zenbait ariketa egiten: "Beroketa ariketak, paseen teknikak, erabaki zuzenak hartzeko jokabideak, jaurtiketa hobetzea, biomekanikaren laguntza koordinazio lanerako eta saskibaloiko mugimenduak... landuko ditugu, besteak beste. Horrekin batera, bost bosten kontrakoa ere izango dugu...", adierazi du Gonzalezek".

Ariketa berritzaileak

Hainbat balio transmititzen saiatuko dira antolatzaileak,

eta, horretarako, hainbat helburu zehaztu dituzte. Oinarrian, kirola egitea saskibaloia ardatz izanda izango da, baina bereziki ondo pasatzea izango da antolatzaileen asmoa: "Ariketa berritzaile ugari ikasteko aukera izango dute campusera animatzen direnek, eta gero, horiek praktikan jartzeko aukera izango dute".

Izen-ematea zabalik

Gaurtik irekita, azaroaren 27ra arte egongo da aukera izena emateko. 60 euroko kostua izango du, eta, hiru egunetan egingo dituzten saioez gain, kamiseta jasoko dute opari bertaratzen diren guztiek.

LEINTZ GATZAGA | 21



Zura, Ortizadar, Saez de la Cuesta eta Gabilondo, talde argazkian. INAZIO GABILONDO

Maitasunaren apologia egiteko mezua Gabilondoren eskutik

13.000 ikustaldira iritsi da Ortizadar Gabilondok Instagram sare sozialera igotako bideoa

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Ortizadar Gabilondok *Maitasunaren apologia* izenburupean Instagramen zintzilikatu duen bideoa arrakasta itzela izaten ari da. Haur motxiladuna da Gabilondo; izan ere, ama kartzelan du –Alizia Saez de la Cuesta–, eta kilometro mordoan egin behar izaten ditu Inazio Gabilondo aitarekin eta 9 urteko Zura ahizparekin batera, soilik ordu eta erdi egoteko amarekin. Hala, emozioz betetako bideoan, bizipenak partekatuz, maitasunaren apologia-aren aldeko mezua helarazi gura izan du.

Hatortxu Rock abenduaren 28an izango da, Atarrabian. Aurtengo leloa *Maitasunaren apologia* da; helburua da urrutitze eta dispersio politikari aurre egin behar dioten euskal preso senideei babesa erakustea, laguntzea eta gatibu dauden eskubideak aldarrikatzea. Hala, maitasuna

adierazteko eskubidea aldarrikatu du aurtun Hatortxu Rockek, eta asmo horrekin publikatu du Gabilondok bideoa, bere kasua ezagutzera eramateko.

Egoera "jasanezina"

2001ean izan zen kartzelaratu Alizia Saez de la Cuesta, eta, oraindik, hamaika urte egon beharko du preso. Urte hauetan, askotan aldatu dute kartzela batetik bestera, eta gaur egun Castellan dago. "Nire alabak kartzelan jaio ziren eta 3 urte bete zituzten arte amarekin egon ziren han. Hatortxurako egindako bideoa azken bi bisitaldietan grabatu dugu, eta, alabak izan duen inizatiba hori jaialdirako sarrerak lortzeko helburuarekin egin duen arren, egoera orokor baten berri emateko ere bada. Hala, eskertu egin nahiko genuke herritarrek ematen diguten laguntza guztia", adierazi du Inazio Gabilondok.

Jarindo ezagutzen

Makila eskuen eta ibili basuen egitasmoa kideek Eskoriatza Berbalagunak taldekoekin batera irteera egin zuten pasa den domekan: Gatzagain, Jarindo, Marin eta Eskoriatza. Lau orduko bira eman zuten.

Urtea amaitu aurretik beste irteera bat egingo dute, gainera. Horren ardura Eskoriatzan Feminismoa Taldekoek izango dute.



LORE DIAZ DE GEREÑU

Autodefentsa feminista tailerra, bertan behera

Pasa den domekan egitekoa zen autodefentsa feminista tailerra bertan behera geratu zen. Hori horrela, Emagin Euskal Herriko Bilgune Feministako kideek prestatuta zuten lau orduko formakuntza saioa –data zehazteke– urtarrilean edo otsailean egitea erabaki dute antolatzaileek.

Berdinbidean Gipuzkoak, Bideberrik eta Sorginak Gatzaga-

ko Emakume Taldeak elkarlanean antolatutako autodefentsa tailerrerako izen-ematea ez da uste bezain ona izan. Izan ere, hiru emakumek soilik eman zuten izena; gauzak horrela, beste data batean egitea erabaki dute.

Tailerrean parte hartzeko zenbait bide izango dira, orain arte moduan: Gatzagako udaletxera joanda edo 943 71 47 46 telefono zenbakira deituta; edo Sorginak Emakume Taldearen Whatsapp taldean idatzita.



On Serafin Esnaola, *super 8* kamera ezagunarekin grabatzen, 1970eko San Martzial egunean. JUAN IDIGORAS (B.U.A.- J.IDIGORAS FONDOA)

1965etik 1985era arteko Bergara zinera, Serafin Esnaolaren begiradatik

On Serafin Esnaola apaizak 'super 8' kamerarekin hartutako irudiak oinarri hartuta, Asier Altuna 'Kixi', Migel Angel Elkoroberezibar eta Aitor Alberdi bergararrek elkarlanean sortu dute filma; 35 minutu irauten du eta urtarilaren 2an estreinatuko da, Seminarixoa

Jokin Bereziartua BERGARA

On Serafin Esnaolak 1965 eta 1985. urteen artean Bergaran hartutako irudiak oinarri hartuta *Serafin Esnaolaren begirada* izeneko filma sortu dute. Adin bat duten bergararrentzat erreferente izan zen apaizaren itzal handiaren beste adibide bat da urtarilaren 2an estreinatuko den pelikula.

Hiru emanaldi egingo dira, Seminarixoa, 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan; sarrera hiru euro izango da. Pelikulak 35 minutu inguru irauten du eta, hasiera batean, urtarilaren 2an bakarrik egongo da ikusgai.

"Barrutik egindako pelikula da"

Duela hamar urte pasatxo, 2009ko azaroaren 13an, aurkeztu zuen Migel Angel Elkoroberezibarrek On Serafin Esnaolaren gaineko *Herrigintzaren erretratua* izene-

ko argazkiz jositako liburua, eta asteen aurkeztu duten filmaren zuzendarietako bat ere bada: "Asier Altuna *Kixi*-rekin batera zuzendu dut Serafin Esnaolaren artxibo irudiekin osatutako filma. Euskadiko Filmategiarekin batera gordeta nituen *super 8* milimetroko grabazioen aukeraketa bat egin dugu eta gure erara muntatu. Filmak Serafin Esnaolaren begirada jasotzen du, baina gure betaurrekoekin, eta protagonistak 1965-1985eko Bergara eta bergararrak dira".

Horrekin batera, sentimendu handiarekin egindako filma izan

**URTARRILAREN 2AN,
HIRU EMANALDI IZANGO
DIRA SEMINARIXOAN:
18:00ETAN, 19:00ETAN
ETA 20:00ETAN**

da: "Barrutik egindako pelikula bat da; pelikulan agertzen diren ume haiek gu ginen, eta gure lagunak, gurasoak eta gertukoak. Horiek markatu dute filmaren ibilbidea, estiloa eta estetika bera ere; Serafinek ez zuen bere burua zinegiletzat, baizik eta gizarte hartako testigantzak jaso nahi zituen. Guk Serafinek jasotako altxor horri ukitutxo batzuk egin dizkiogu, besterik ez, eta herriaren eskura jarri. Herritik sortu zena herriari emango diogu".

Aspaldi herritarren partetik jasotako laguntza ere ez du ahazten: "Herritar askok lagundu zidaten zinta zahar haiek bilatzen eta eurei esker orain ikusi ahal-ko ditugu. Sasoi hartan, Euskadiko Filmategira eraman nituen eta eurek zaharberritu zituzten, baldintza oso eskasetan zeuden eta. Lan bikaina egin zuten".



Elkoroberezibar, Aranberri, Markina, Korta, Alberdi eta Garitano. J. BEREZIARTUA

"Elkarlanaren fruitu" izan den obra

Serafin Esnaolaren begirada pelikularen sorrera eta ekoizpena elkarlanaren adibide garbia dira. Hain zuzen, gaiaz arduratu den zinegotzi Ekaitz Aranberri horixe nabarmendu zuen eguazten iluntzeko agerraldian: "Albiste onak ematera gatoz. Batetik, gure ondarea berreskuratu eta balioan jartzeko ekimen baten berri ematera gatozelako; eta, bestetik, gaur azalduko direnak bide berri batzuen hazia direlako; honako proiektu hauek herritarren ekimena direlako, elkarlanaren fruitu". Esker on hitzak izan zituen Aranberri: "Eskerrak eman nahi dizkiegu Proiektors ekimenak, Miguel Angel Elkoroberezibarrek eta Asier Altuna *Kixi*-k osatu duten lantaldeari On Serafin Esnaola zenaren hainbat grabazio gorde, berreskuratu, atundu eta jendaurrera ekartzeagatik. Eskerrik asko baita ere Seminarixoa aretoko zineklubaren ardura hartu duen ZinemaOn herritar taldeari".

ZinemaOn zinekluba martxan dago

Eguaztenean estreinatu zen, *El hoyo* filmarekin, ZinemaOn zinekluba. Pelikularen ostean, Galder Gaztelu-Urrutia zuzendariak solasaldia eskaini zien Seminarixoa bete zutenei; zineklubaren berri emateko agerraldian, nabarmendu zuten bestelako filmak eskaintzeaz gain, saiatuko direla hilero emanaldi berezi bat egiten. "Pelikulako ordezkariaren bat gonbidatzen saiatuko gara". Urtarrilerako eskaintza zehaztu dute eta asmoa da filmok jatorrizko bertsioan eskaintzea, euskarazko azpitituluekin: urtarilaren 8an, *Les Misérables*; urtarilaren 15ean, *La vérité*; urtarilaren 22an, *Sorry we missed you*; eta urtarilaren 29an, *Madre*. Filmak eguaztenetan emango dituzte, Seminarixoa, 20:00etan. Otsailaren 5ean, *Glittering Misfits* filma egongo da eta bertan egongo da Iban del Campo zuzendaria.

Proiektors-en ezinbesteko lana

Filma posible izan dadin, Aitor Alberdi bergararra buru duen Proiektors ekimena ezinbestekoa izan da. "Proiektors Sormen Taldeko Aitor Alberdik animatu gintuen. Bera arduratu da ekoizpenaz eta gu akuilatzeaz",

**ETXEETAN GORDETA
DAUDEN ZINTAK
BERRESKURATZEN ARI
DA PROIEKTORS
SORMEN TALDEA**

zehaztu du Elkoroberezibarrek. 2014an sortu zuten Proiektors, Euskal Herri osoan zehar zeluloidean jasotako lanak berreskuratzeko asmoz. "Helburua da etxeetan gordeta edo erdi-galduta dauden film domestikoak eta zeluloidekoak (edozein formatutan) lokalizatzea eta jabeek nahi badute edukia ikusteko aukera eman eta, nahi izanez gero, formatu digitalera pasatzea", dio Alberdik. Edozeinek halako zintarik izango balu, helbide elektroniko hau eman dute: proiektors@gmail.com.



EAJren udal taldeko zazpi zinegotziak, asteleheneko osoko bilkuraren une batean. JOKIN BEREZIARTUA

"Gobernuak ez du garden jokatu Amillagako obran"

Aurreko agintalditik datorren urbanizazio proiektuan Udal Gobernuak egindako aldaketa batzuen kontra agertu dira jeltzaleak, eta aldaketok "isilean" egin dituela salatu dute; bestalde, EAJ eta PSE-EE gertu daude 2020ko udal aurrekonturako negoziazioei ekiteko

Jokin Bereziartua BERGARA

Amillaga kalean, Ondartzako zubitik –Amillagako Eroskiren ondoan– Ernai kalera sartzeko biribilgunerainoko tartean, urbanizazio lan batzuk daude aurreikusita. Aurreko agintalditik datorren proiektua da eta lizitazio fasean dago egun; EAJk agerraldia egin du, proiektuan izan diren aldaketa batzuk salatzen. "Lehenik eta behin, proiektu berrituan, Laino tabernaren parean dagoen autobus geltokia saihebidierantz urrunduko dute; halakoak kontsultatu egin behar dira, eta erabiltzaileekin alternatibak bilatu. Gobernuak ez du garden jokatu Amillagako obran, aldaketak isilean onartu dituzte;

gainera, ekarpenak egin nahi ditugu bergararren bizi kalitatea hobetzeko bereziki sentsibleak diren proiektuetan".

Horrez gain, jeltzaleek kritikatu dute geltokiaren lekualdaketa ez dagoela justifikatuta Mugikortasun Planean. "Era berean, aztertu beharko da elbarriadako parking bat egokitzeko aukera", gaineratu dute.

Aurrekontua negoziatzeko gertu Bestalde, asteleheneko osoko bilkuran EAJk Gobernuari leporatu zion "hainbat gaitan" ez duela prozedura zuzena jarraitu: "Gobernuak esan zuen gardena izango zela, parte-hartzea sustatuko zuela eta adostasunak

lortzen saiatuko zirela. Gaiak batzordetik pasatu gabe osoko bilkurara eramaten badira zuzenean, ezingo dugu adostasunik lortu", dio Elena Letek. Udal aurrekontua negoziatzeko tesuingururik badagoen galdetuta, Letek dio negoziatzeko prestutasuna dutela: "Begararen alde eta gure programa defendatzeko egingo dugu lan, eta ados jartzeko aukerak egongo dira".

Era berean, PSE-EEko Alberto Alonsok adierazi du 2020ko udal aurrekontua "aurrerakoa" eta sozialagoa izateko negoziatzeko gertu daudela eta horretarako gakoetako bat izango dela berdintasun politketan "inbertsio handiagoa" egitea.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Unzetako begiratokia "oso polita" geratu da



Herriar baten ustez, azken urteetan "oso egoera txarrean" egon den Unzeta etxeko begiratokia "oso polita" geratu da, eta XIX. mendekoaren erreplika egin duen arotza txalotu nahi izan du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Ndank Ndank: adreiluak saldu, kultura etxerako

Senegalgo Dionewar herrian kultura eremu bat eraikitzeko adreiluak saltzen ari dira; 450 saldu dituzte. Adreilu bat euro batean erosi nahi duenak *bizum*-a egin behar du: 688 65 95 06.

Napar feria egingo dute bihar San Antonion

11:15ean irekiko dute 21. feria eta 15:00ak arte hainbat ekintza izango dira; zozketa 14:30ean izango da eta bazkaria 15:00etan.

Jardun: helduen antzerki eskolaren hastapena

Eskolak martitzenetan dira, Zabalotegin, 19:15etik 20:45era. Urtarriletik aurrera parte hartzeko: 943 76 36 61 / 605 71 24 69.

Euskal presoen aldeko elkartasun jaialdia

Kokoxa antzerki taldea, Eyharts, Manex Alberdi dantzaria, poesia eta bertsoak izango dira, besteak beste, abenduaren 29an Seminarixoa (19:30) euskal presoen alde egingo den jaialdian.

Pol-Pol taldea: obserbazio irteera Urdaibaira

Urdabai Bird Centerra bisitatuko dute abenduaren 27an; 08:45ean irtengo dira, Fraiskozuritik. Izena eman behar da aldezturik: mendiabizirik@pol-pol.net edo 685 71 18 44. Prezioa: hamar euro.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak



Kaleko pilota txapelketa finalaren atarian dago

Hogeita hamahiru bikotek eman dute izena herriko pilotazaleen artean antolatu duten txapelketan; domekan jokatuko dituzte finalerdiak, Boluko pilotalekuan (18:00). Finala abenduaren 28an jokatuko dute, eta egun osoko egitaraua antolatu

Xabier Urzelai BERGARA

Bergarako Kaleko Pilota Txapelketa ez da berria, lehenago ere egin izan dituzte pare bat edizio, eta arrakastatsuak izan dira. Baina etenaldi baten ondoren ostera ere ekin diote txapelketa antolatzeari: "Arrano tabernatik hasi zen txapelketa hau antolatzen. Lehenengo edizioan esango nuke 40 bikotek hartu zutela esku, oso harrera ona izan zuen. Ondoren, bigarren edizio bat ere egon zen, eta gero, etenaldi txikia egon da. Hala, Bergara Pilota Elkartetik txapelketa errekupeatzeko proposamena etorri zen, kirol federatutik harago herri mailan ere pilota sustatu gura zutela esanez, eta sei pilotazale batu gara ekimen honen bueltan", adierazi du antolaketa lanean dabilen Ibon Leibarrek.

Udalaren babesarekin

Aurreko txapelketekin alderatuta, baina, oraingoan pilotariak kondizio hobean dabilta pilotan: "Udalaren babesa izan dugu, eta hori igarri egiten da. Aurreko edizioetan, besteak beste, frontoietan ez dugu argirik izan, ahal genuen moduan jokatzeko genituen partiduak, eta orain baldintza hobeak ditugu. Boluan, Osintxun, Udal Pilotalekuan... gaez ere partiduak joka genitzake".

Hala, partiduak antolatzeko bikoteei erabateko askatasuna eman diete: "Pilotari gazteenak 18 urte izango ditu, eta 45 urteren bueltan dabilta pilotariak ere txapelketan daude. Horrek esan gura du partiduen ordutegiak zehaztea ez dela erraza, gehienak lanean dabilta, errelebo ezberdinetan. Hala, hogeita hamahiru bikote horiekin zortzi multzo osatu genituen, eta multzo bakoitzean Whatsapp taldeak sortu genituen, bikoteen artean partiduen egunak eta orduak errazago adosteko. Eta



Ezkerretik hasita, Dani, *Jurju*, Idiakez eta Edorta. BERGARAKO KALEKO PILOTA TXAPELKETA

"ZALEAK GONBIDATU GURA DITUGU DOMEKAN BOLUKO PILOTALEKURA GERTURATZERA"

Etxagi eta Arrano tabernetan partiduetako emaitzak argitaratu izan ditugu, saltsa apur bat egon dadin".

Domekan, finalerdiak

Hala, txapelketa finalaren atarian dago, oraingo domekan (18:00) jokatuko dituzte-eta, Boluan, finalerdiak. Paulek eta Pellok *Jurju*-ren eta Daniren kontra neurtuko dituzte indarrak, eta bigarren partiduan, Urrutiak eta Arrillagak Redondo eta Malax izango dituzte aurrean: "Bi estelar handi dira, zalantza barik! Ea jendea gerturatzeko den partiduok ikustera, eta giro apur bat jartzeko dugu", dio Leibarrek.

Egun osoko ospakizuna 28an

Txapelketako antolatzaileen helburua da abenduaren 28an jokatuko duten finalaren buel-

tan ospakizun eguna antolatzeko: "Egun osoko egitaraua antolatu dugu. Zehaztuta ez bada ere, finala, seguruenik, 19:00etan izango da, baina partidu horrekin batera erakustaldiko beste norgehiagoka bat ere antolatu gura dugu. Lehenago, animatzen direnekin bazkaria egingo dugu Artatse elkartearen -izena eman behar da-, poteo musikatu egongo da, Mendizabalen eta Rezustaren elastikoak ditugu zozketa-tzeko... Eta ondoren, ospakizunarekin jarraituko dugu".

Gazte mailako torneoak hiru hamarkada beteko ditu

Urtarrilaren 3an, Bergarak, Realak eta Osasunak jokatuko dute Alfredo Najeraren oroimenezkoa

X.U. ARRASATE

Gazte mailako Gabonetako Futbol Txapelketako 30. edizioa antolatu du urtarrilaren 3rako BKEk. Eta aurtengoa berezia izango da, duela aste gutxi hildako Alfredo Najera gogoan izango dute-eta torneoan bertan. Hala, torneoko hirugarren partiduen aurretik, 13:00etan, urte askoan BKEko talde ezberdinetako entrenatzaile eta zuzendaritzako kide izan den Najerari omenaldia egingo diote.



Elorza Realeko kapitainarekin, iaz. X.U.

Osasuna eta Realak gonbidatuta

Hala, iaz txapelketa irabazi zuen talde txuri-urdinarekin batera Osasunak beteko du Debagoieneko Selekzioak utzitako hutsunea. Eta bi talde horiekin batera osatuko dute hirukoa, hain zuzen, iaz maila txukuna eman zuen Bergarak. 11:00etan hasiko da torneo, eta Bergarak

eta Realak jokatuko dute lehenengo partidua. 12:00etan, Osasuna eta Bergara izango dira aurrez aurre; 13:00etan, lehen aipatutako omenaldia izango da; eta jarraian jokatuko dute torneoko azken norgehiagoka Realak eta Osasunak.

Emakumezkoen bosteko futbol txapelketa 27an

Infantil, alebin eta benjamin mailetako Bergarako, Antzuolako, Elgetako eta Soralezko jokalarientzako bosteko futbol txapelketa antolatu du BKEk 27rako, Ipintzan. Izena emateko, posta elektronikoa bidali behar da bkefutboleskola@gmail.com helbidera (10 euro). Talde bakoitzak sei eta zortzi jokalaritan izan beharko ditu.

Pilota partiduak gaur Antzuolan eta zapatuan Elgetan

Udal Pilotalekua ez da asteburuan erabilgarri izango; horregatik, gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Txapelketako banakako final-laurdenak jokatu dituzte Antzuolako pilotalekuan, 19:45ean hasita. Bihar, zapatua, berriz, Gipuzkoako errendimenduko final-laurdenak jokatu dituzte Antzuolan, goizeko hamaitan.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Gabonetako kontzertuak 40. aldia du aurtengoa

Bihar, hilak 21, egingo dute aurten 40. aldia izango duen Bergarako Gabonetako kontzertua, Udal Pilotalekuan, 20:30ean hasita. Gaur, aldiz, musika eskolako ikasleen txanda izango da, frontoian hori ere: arratsaldeko sei eta erdietan joko dute txikienek

Jone Olabarria BERGARA

Musika eskolatik azaldu dute-nez, 300 lagun baino gehiago arituko dira bihar Bergarako Gabonetako kontzertuan, 20:30ean hasita. Bergarako Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoia eskainiko dute emanaldia.

Talde bakoitzak hainbat pieza interpretatuko ditu: Bandak Philip Sparke-ren *Concert prelude* eta *Orient express* joko ditu; Aritzeta Abesbatzak *Baldorba*, *Mary Had a Baby*, *Even When He Is Silent* eta *Aritz Adarrean - Oi Bethlehem!* abestiak kantatuko ditu; Orkestra Sinfonikoak Shostakovitx-en *Finale* joko du; eta Orfeoia ere hainbat pieza interpretatuko ditu: *Somewhere in my memory*, *Let the river run*, *Sogno di Volare* eta *Dancing Queen*. Kontzertu amaieran, denek batera, eta Enrike Txurrukaren gidaritzapean, *Alatriste* filmaren soinu bandako *Ave Maria* joko dute.

Sarreraren prezioa zortzi euro da eta alde zuzenetik sarrera guztiak salduz gero, kontzertuaren egunean ez da lehiatarik irekiko. Bestela, kontzertu egunean 19:30ean irekiko da pilotalekuko leihatila eta kontzertua hasi baino hamar mi-



lazko Gabonetako kontzertua. GOIENA

HAMAR MINUTU LEHENAGO ITXIKO DITUZTE ATEAK; 20:20TIK AUERRERA EZINGO DA SARTU

nutu lehenago itxiko dira ateak. 20:20tik aurrera ezingo da frontoian sartu.

Ikasleen txanda

Gaur bertan, abenduak 20, Bergarako Musika Eskolako ikasleek

aspalditik klasikoa den kontzertua egingo dute frontoian. Orkestra Sinfonikoa, Gazte Banda, Haurren eta Hasiberrien Abesbatza, Txistulari taldea, Trikitilari Taldea, Dantza Taldea eta Suzuki Taldea arituko dira.

Talde bakoitzak interpretatuko dituen piezez gain, emanaldiaren bukaeran talde guztiak batera arituko dira agertokian, eta aurten, Lau Teilatu ekimenarekin bat eginda abestia interpretatuko dute txikienek. Emanaldiak ordu eta laurden inguru iraungo du.



Bigarren finalerdian, Pol-Pol tabernan. KOPLA BARIK

Puntu-Puntuan, bigarren finalista taldekako bertso txapelketan

Abenduaren 27an egingo den finalean Uharteko Izkirak eta Puntu-Puntuan taldeak arituko dira txapelaren bila

J.O. BERGARA

Kopla Barik bertso eskolak antolatuta, Bergarako taldekako bertso txapelketaren bigarren finalerdia jokatu zuten pasa den egubakoitzean, abenduaren 13an, Pol-Pol tabernan.

Bertan lehiatu ziren Laboratorium taldea (Madaro, Gari eta Mikel) eta Puntu-Puntuan (Maite, Oxan eta Artola), eta, hain zuzen, azken honek lortu zuen abenduaren 27an kartzela zaharrean egingo duten finalean Uharteko Izkirak (Patxi, Redondo eta Enaitz) taldearekin txapelaren bila aritzeko pasea.

Lehen finalerdian hiru talde aritu ziren: Moon Hilak (Eñaut, Markel eta Unai), Izen Gabekuak (Moto, Arzelus eta Eñaut) eta Uharteko Izkirak (Patxi, Redondo eta Enaitz).

Publikoa, "gustura"

Aurrekoan bezala, Ibon Leibar Txinbo aritu zen gai jartzaile lanetan. Publikoa "pozik" eta taberna "bete-beteta" zela aritu ziren bertsolariak taula gainean, "mozorro eta guzti". Bertsoez haratago, parte hartzeko aukera izan zen eta ikusleak epaile ere aritu ziren.



BERGARAKO UDALA

Gabonetako ikuskizun eskaintza

Bergarako taldeen Gabonetako kontzertuez gainera, hainbat ikuskizun egongo dira gozagai Gabonetako egunetan zehar herrian.

Abenduak 21

• **19:00** La Jose taldearen kontzertua, San Juan auzoko ermitan. Sarrera doakoa izango da.

Abenduak 27

• **16:30 eta 18:00** *Ehuna* haur dantza emanaldia, Seminarixoan. Oihal baten bidez, mundu poetikoan barneratuko dituzte 1-6 urte arteko umeak. Sarrerak, lau euro.

Abenduak 28

• **19:00** The Upper Room Gospel taldearen emanaldia.

Eskarmentu handia daukan Donostiako The Upper Room taldeak Elvis Presley handiaren gospel kantutegian oinarritutako kontzertua eskainiko du Seminarixoan. Honako pieza gogoangarri hauek gailenduko dira: *Oh Happy Day*, *Joshua Fit The Battle Of Jericho* eta *Amazing Grace*, besteak beste. Sarrera, zortzi eurotan.

Erakusleiho onena, Gorostirena

21 merkataritza-establezimenduk hartu dute parte aurten erakusleiho lehiaketan. Lehen saria Gorosti loradendarentzat izan da; bigarrena Mirari jantzi dendarentzat; eta Ninika loradendak jaso du hirugarrena. Herritarren saria ere Mirarik eskuratu du. Guztira, 129 herritarrek eman dute botoa.

2020an, 140.000 euro gehiago inbertsioetarako

Udal Gobernu taldeak aurreko astean aurkeztutako aurrekontu proposamena onartu zuen martitzenean udalbatzak. Talde jeltzaleko ordezkariak abstenitu egin ziren, jarraikortasuneko eta anbiziorik gabeko aurrekontua dela iritzita

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Ezusterik gabe egin du aurrera Udal Gobernu taldeak 2020rako aurkeztutako aurrekontuak. 1.728.293 euroko aurrekontua da -2019koa baino %8,87 handiagoa- eta 2012a ezkerro inbertsioetarako diru kopuru handienekoa. Iraitx Lazkano alkateak azaldu du bi faktorek eragiten dutela horretan: alde batetik, *Olalde* auziarekin lotutako lehen kalteordaina pagatzen amaitu izanak; eta, bestetik, aurreikuspena dela Foru Fondotik etorriko den diru kopuruak %3 eta %4 artean egingo duela gora. "Nire ustez, 2020rako planteatu dugun aurrekontua da Elgeta moduko udal batek eduki beharko lukeen aurrekontua. Nahiz eta kalteordainetan oraindik ere ia 200.000 euro gastatzen ditugun, kopuru jasangarriagoak dira eta aurrekontua nahiko orekatua da. Inbertsioak egiteko zer edo zer gelditzen da, eta Udalak erabakitzeko ahalmen handiagoa du", adierazi du Lazkanok. "Artean ikusten dugu hainbat urtetan gabezia batzuk egon direla dirurik ez delako egon, eta 2020ko aurrekontuan planteatzen diren hainbat inbertsio dira hiri segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko ezinbestean egitekoak ikusten ditugunak".



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.L.


Proiektu nagusiak

2020ko inbertsio nagusiak dira: San Roke kaleko zorua berritzeko 110.000 euro, Haur Hezkuntzako teilatua egiteko 50.000 euro, Udalak plazan duen etxebizitza berritzeko 40.000 euro, industrialdean ingurumen kontuak lantzeko 18.000 euro, baserritarren batzorderako 15.000 euro, herriko mapa topografikoa egiteko 14.520 euro, frontoian LED argiak ipintzeko 5.000 euro, eskolan suteen kontrako atea jartzeko 4.482,68 euro eta udal langileen fitxaketa sistema ipin-

tzeko 800 euro. *Elgeta 2020-2030* parte hartze prozesua ere egingo du Udalak, eta 8.000 euro bideratuko dira horretara.

Zubietako errauste-planta

Bestelako gairik ere izan zen martitzeneko osoko bilkuran. Zubietako errauste-plantarekin lotuta Usurbilgo Udalak bidalitako idatziak, esaterako, soka luzea ekarri zuen. Agerian gelditu zen guztiz kontrajarriak direla gaiaren inguruan bi talde politikoek egiten dituzten irakurketa eta balorazioa.




GOIENA

"Aurrekontua anbiziorik gabekoa da"

AINTZANE OIARBIDE
EAJ

"Bete beharreko arauak betetzen ditu aurrekontuak eta ez dugu kontra bozkatu, baina ez da aurrekontu egokia. Jarraipeneko aurrekontu bat da eta ez du inolako proposamen berriak egiten. Ez du anbiziorik. Uste genuen Gobernu talde honek egingo zuela proposamenen bat etorkizuneko lan-ildoak finkatzeko, baina ikusten dugu ez dagoela proiekturik. Egiten dira proposamen solte eta gutxi batzuk, esaterako, ingurumenarekin edo industrialdearekin lotuta, baina ez dago plangintzarik. Elgetako ekonomiarekin lotuta azterketarik egin da? Nondik nora egin behar da lan enpresekin, langileekin? Egia esan, nahiko hotz gelditu gara eta abstenitu egin gara".



GOIENA

"Oso garbi dugu gure proiektua"

IRAITX LAZKANO
ALKATEA

"Noski dela jarraipeneko aurrekontua; izan ere, bidea oso garbi dugu. Eta oso-oso garbi dugu gure proiektua. Badakigu dirua eduki arren ezin dugula alferrik gastatu, eta badakigu zeintzuk diren gure lehentasunak. Horietako bat da hiri segurtasuna edo irisgarritasuna, eta horretan ipiniko dugu gure ahalegina. Eskolan ere bere garaian txapuz handiak egin zirelako orain diru bat gastatu beharra dago. Haur Hezkuntzako jolastokiko sabaia ere egoera nahiko txarra da, eta bai edo bai egin behar dira moldaketak. Eta etorkizunean zer-nolako Elgeta nahi dugun herriarekin batera erabakiko dugu. Helburu horrekin parte hartze prozesua egingo dugu hurrengo urtean zehar".

Bolo jaurtiketak eta mus txapelketa aurten Gabonetan

Askotariko hitzorduak izango dira egunotan herrian, batzuk ohikoak eta beste batzuk berriak

L.Z.L. ELGETA

Ohikoak dira Gabonetan herri mailako pilota txapelketa zein erretiratuen mus, briska eta tute txapelketak. Pilotako finalerdiak gaur jokatu dira, 19:45ean. Erretiratuek, berriz,

hilaren 26an egingo dute karta joko txapelketa.

Nobedadeak aurten Ozkarbi eta Intxorta elkarteetan jokatu den mus txapelketa eta bolatoki tabernan egingo diren bolo jaurtiketak dira.

Mus txapelketa bihar, zapatua, jokatu da, 17:00etan. Unean bertan eman beharko dute izena interesatuek. Bolo jaurtiketak ez dira guztiz berriak. "Duela urte batzuk egiten ziren, baina azken urteotan ez. Esan daiteke berreskuratzen den hitzordu bat dela", azaldu du Sebas Aranzabalek. "Lehen botaldia gaur izango da, 23:00etan. Hurrengo astebete barru. Jardunaldi bakoitzak bere irabazleak izango ditu. Bigarren saioan erregularitasunaren saria ere izango da".

OHARRAK

'Europako ipuinak' gaur liburutegian

Maider Galarza ipuin kontalariak 7 urtetik gorako neska-mutikoendako saioa egingo du, 17:00etan.

Musika ikasleen emanaldia gaur

Lorea Larrañagaren ikasleek Gabonetako emanaldi berezia egingo dute, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian.

Auto telegidatuen lasterketarik ez domekan

Bertan behera gelditu da gaztelekuak antolatutako lasterketa.

Neska-mutikoen Gabonetako pilota jaia

Abenduaren 29an eta urtarrilaren 6an izango da, frontoian.

Javier Leanizbarrutia 'Sanpete' omendu dute

Elgetako herriak ezustean prestatutako omenaldia egin zion domekan Sanpeteri. "Edozertan" laguntzeko prest egoteagatik egin zioten aitortza; seme nagusiak aureskua dantzatu zion, eta Peñagarikano bertsolariak bertsoak eskaini

Maialen Santos ELGETA

Joan den domeka eguerdian herriko plazan bildu ziren elgetarrak Javier Leanizbarrutia *Sanpete* omentzeko. Jaiotzaz Abadiñokoa, urteak daramatza herrian, eta pertsona estimatua da oso; saltsa guztietako perrexila dela diote elgetarrek. Hain justu, beti "edozertan" laguntzeko prest egoteagatik egin nahi izan zioten aitortza, eta, horretarako, herritarrek eta senideak bildu ziren domekan. Intxortako Lehoiak elkartekoek eta San Roke kaleko jai batzordeko kideek ere gura izan zuten ekitaldian parte hartu, eta omenduari oroigarriak banatu zizkieten, bere borondate ona saritzeko asmoz. Horretaz gain, Sanpeteren seme zaharrenak, Xabat Leanizbarrutia, aureskua eskaini zion aitari, Arantza Gorritxategi txistulariaren laguntzarekin: "Omenaldia egingo ziotela jakitean, nik dantza egingo niola pentsatu nuen", azaldu du semeak. Gaineratu du, bestalde, ekitaldi oso "xumea" eta "hunkigarria" izan zela aldi berean.

Seme nagusiak ez ezik, gazteak ere hartu zuen parte ekitaldian. Biloba izan zen aitonari txapela jartzearen arduraduna, eta, bestalde, omenduaren emazteari lore sorta eman zioten.



Xabat semea aureskua dantzatzeko prest, senideak begira dituela. LARRAITZ ZEBERIO

Sanpeteren bertsoa, herriarentzat

*Igandean etxetik kalera lasai eta kalean ezusteko edarra.
Norberak ere esker ona agertu nahi eta ahoa siku, begietan negarra.
Mila esker danori! Jasotako besarkadak bueltatzeko beharra.
Nik honela jarraituko dut Jaunak ematen badit osasuna eta indarra.*

Sanpetek azaldu moduan, ezustean harrapatu zuen omenaldiak: "Etxetik irten eta plazara iristean, jende mordoa ikusi nuen. Bat-batean, besotik heldu eta plaza erdira atera ninduten". Aitortu

duenez, omenaldia ez zuen "inondik inora" espero, eta, hain zegoen harrituta, ezin izan zuen esker hitzik esan. Hala, eskerrak emateko bertso bat idatzi gura izan du, elgetarrei zuzendutakoa.



Olentzero Elgetako neska-mutikoei goxokiak banatzen, iaz. L.Z.

Olentzero astelehenean jaitsiko da Intxortatik herritarrengana

Hilaren 23an elkartuko da herriko neska-mutikoein. 18:30ean iritsiko da plazara, haurren eskariak entzutera

M.S ELGETA

Olentzero abenduaren 23an jaitsiko da Intxortatik herriko haurrekin elkartzera. Bertan jasoko ditu herriko haurren gutunak eta trukean gozokiak banatuko dizkie. Hurrengo egunean, 24an, Maala guraso elkar-teak antolatutako urteroko Gabon eskea egingo dute elkarrekin abestuz, 11:00etan herri eskolatik hasita. Eguberri egunerako, bestalde, Intxortara igoera antolatu du Kantsatzeke mendi taldeak. 11:00etan abiatuko dira plazatik, eta, behin tontorrera iritsita, mokadutxoa jango dute.

Aurretik, ekintza ugari

Gaur, goizeko lehen orduetan –09:20tik 11:00etara–, eskolako umeek azoka txikia egingo dute plazan, eta ostean, Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita jasoko dute. Bihar, bestalde, Bilboko haur parkera irteera egingo dute gaztelekukoek, aurrez izena emanda. Horretaz gain, astelehenean udal ordezkarien bisita jasoko dute Eguneke Zentroko zazpi erabiltzaileek.

Gabonetako gainerako hitzorduen berri jakiteko, zenbaki honetako gehigarri berezia kontsulta daiteke.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zaindu dezagun gure altxorra!

Egunotan, zaila izan da egoera hainbat bidetan. Azulako bidearen kasuan, basoko langileen eraginez ere izan dela uste du herritar batek. Ingurua gehiago zaindu behar dela dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Peñagarikanok bertsoak bota zizkion

Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria izan zen ekitaldiko gonbidatu nagusia. Bertso ugari eskaini zizkion aspalditik lagun duen omenduari, eta "mesedetxo bat eskatu eta beti egiteko prest dagoelako" eskerrak eman zizkion, bertso bidez. Elkarrekin bizitako anekdotak ere hartu zituen bertsogai Elgetako plaza bete zutenen aurrean.



Peñagarikano bertsolaria, Sanpeteri oroigarria ematen. L.Z.

Inbertsioetarako 450.000 euro pasatxo jaso ditu 2020ko aurrekontuak

Olarango eta Eztalako obra handiek, lau urtetan zehar egingo den Plan Orokorrak eta udal gimnasioa martxan jartzeko kudeaketak baldintzatutako aurrekontu proposamena onartu da asteon. Alegazioak egiteko epea zabalik dute herritarrek

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Guztira, 2.926.500 euroko aurrekontua izango du 2020rako Antzuolako Udalak. Ezohiko osoko bilkuran asteon onartu berri da proposamena EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin. PSEk aurkako botoa eman du.

Aurrekontu proposamena, orain, jendaurrean jarriko dute ikusgai eta alegazioak egiteko epea ere zabalduko da.

Inbertsio garrantzitsuak

Udal Gobernuak adierazi du 450.000 euro pasatxo bideratuko dituztela datorren urtean egingo diren inbertsioetarako. "Argi geneukan Olarango eta Eztalako lanek, lau urtetan zehar egingo den Plan Orokorrak, liburutegia Torresoroara bueltatzeko eta udal gimnasioa martxan jartzeko kudeaketak baldintzatutako aurrekontuak izango zirela. Izan ere, 2020an martxan egongo da gimnasioa. 18.000 euroko inbertsioa egingo dugu kirol makinak eskuratzeko *leasing* sistemaren bitartez", azaldu du Beñardo Kortabarria alkatea.

Olaran etxeko berritze lanak egiteko, aldez, aurren 91.000 euro bideratuko dira eta beste hainbeste datorren urtean: "Proiektua esleitura eta erdi eginda dago. Olarango obra 2020ko udaberrian hastea da asmoa". Bi urtetan zehar egingo da obra eta 2021ean amaituko da. "Igo-gailua jarriko da eta goiko eta beheko pisua lotuta geratuko dira. Horrela, irisgarria izango

da eraikina; tabike batzuk bota eta beste gela handi bat ere egingo da. Besteak beste, margotze lanak, instalazio elektrikoa berritzeko obra edo telekomunikazio sarea egokitzekoak egingo dira". Guztira, 180.000 euro in-

guruko kostua izango du eta bi urtetan ordainduko da.

Eztalako lanak ere abiatuko dira. 282.000 euroko diru partida bideratuko da aldagela berriak egiteko -Antzuolako Udalak, Gipuzkoako Diputazioak eta



Haurrentzako jolas-parkeak aztergai

2020an, *Antzuola eitten* ekimenaren baitan egingo da herriko jolas-parkeen gaineko parte hartze prozesua. "Gurasoekin eta hezitzaileekin jolasguneen gaineko hausnarketa eta gogoeta egitea da helburua. Baita parte hartu gura duten herritarrekin ere".

EH Bildu: "Adostasuna lortu dugu"

"Gure proposamena orain dela bi edo hiru aste bidali genien gainontzeko alderdiei, eta egin dituzte ekarpenak. Bat datoz parte hartze prozesuan herritarrek egindako ekarpenekin: berdintasuna, oinezkoen bidea, ingurumenari kasu egitea... hala, adostasuna izan dugu. Horregatik, gure balorazio ona da, azken urteetan saiatu garen arren ez baita beti adostasunerako biderik egon. 2020ko udal aurrekontuek EAJren eta EH Bilduren aldeko botoak izan dituzte eta. Hirigintzak markatutako aurrekontuak izan arren, oposizioaren partida eskaerak ere aintzat hartu ditugu.

Etorkizuna berdintasuna eta genero politika dira eta Berdinbidean plana ere abiatu genuen; baina etorkizuna ere bada euskara, lehen sektorea... herriak hitz egin du".

Bidegiren aseguruak adostutako hitzarmena dago-.

Parte hartze prozesua

Antzuola eitten prozesuaren baitan, herritarrek hala eskatuta, beste bi gai hausnartuko dituzten: lehena, jolasguneen gainean; bigarrena, berriz, Errekalde auzoaren egoeraz. Auzotarrei zer-nolako auzoa gura duten galdetzeko izango da, alegia. Diruz inbertsio txikiak diren arren -12.000 euro-, Udal Gobernuak herritarren ahotsa entzuteak duen garrantzia azpimarratu du.

Berdintasun politikak sustatuz

Azpimarra egin berdintasun politikak sustatzeko 9.000 euroko partida aho batez onartu duela udalbatzak. Hala, Antzuolako berdintasunaren ikuspegia jasoko duen ekintza plana egingo da. Indarkeri matxistarekin lotutako sentsibilizaziorako, kopurua ere laukoiztu egin dute: 5.000 euro bideratuko da.

Bestelako inbertsioak

Plan Orokorra idazteko 15.000 euro bideratuko dira. "Plegua prest dago eta lehiaketara aterako da proiektua idazteko. Datorren urtean emango genioke hasiera lau urterako plan honi", argitu du Antzuolako alkateak.

Kaleak mantentzeko -arketak, barandak, espaloiak, bankuak...- 70.000 euro bideratuko dira. Baserrietara ura eramateko sarea egiteko, berriz, aurren ere 40.000 euro: "Azken fasea egingo da 2020an. Ur Kontsortzioak eta erabiltzaileek zerbitzua jasotzeko altak sinatu dituzte. Hala, hasiera emango zaie Arlutzetik Zumarraga alderako lanei. Irimoi ingurua bestelako konponketa

mota bat egiteko geratuko da ordea".

Gizarte Zerbitzuetara -babes-tutako etxeak eta eguneko zentroa- 260.000 euro bideratu da.

Aipatu ere, Narruolako historia eta testigantzak jasotzeko bideoak egingo direla -5.000 euro-. "Testigantzen ikus-entzunezkoa egingo dugu eta 2021erako Narruolako eraikinean zer egin erabakiko dugu".

Eta gaztetxea eta gazte txokoa kudeatzeko 10.000 euro bideratuko dira. "Ikuspegi feminista duen proiektua lantzen ari da neska talde bat. Hilean behin ekintzaren bat egiteko asmoa dute. Ez dugu nahi aurrez gertatu dena gertatzea", argitu du alkateak.

Zorrari dagokionez, 185.700 euro pasatxo amortizatuko ditu Udalak. Oraindik 700.000 euro inguruko zorra dauka, baina.

PSEk aurka bozkatu du

"Alderdi sozialistak ezin du inolaz ere onartu 2020ko aurrekontuak bere baitan jasotzen dituen hainbat partida. Hain zuzen ere, Udalbiltzari, Uemari eta ETAKo presoak bisitatzerako joateko familiei ematen zaizkien diru partidekin ez gaude ados; interes alderdikoak defendatzen dituzte. Halaber, Gizarte Ongizateko diru partidak %3ko igoera izatea eskatu diogu Udal Gobernuari.

Bestetik, berdintasun planaren alorrean hartutako erabakiarekin guztiz ados gaude".

EAJ: "Berdintasunak irabazi du"

"Balorazio oso positiboa egiten dugu. Lan sakona egin dugu eta EAJ alderdiak egin dituen zenbait ekarpen aintzat hartu dira aurrekontuan. Adibidez, hirigintzaren inguruko hainbat ekarpen.

Azpimarra jarri gurako genuke, ordea, berdintasunaren gainean denok egin dugun gogoetan. Lorpen komunikatibo bat daukagu Antzuolan. Izan ere, berdintasunak leku esanguratsua hartu du 2020ko aurrekontuetan. Hala, egingo den azterketa sozio-ekonomikoari esker jakingo dugu Antzuolako gizartearen egoera zein den. Hau da, emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak agerian geratuko dira eta horien aurrean ekintza plan pragmatikoa egitea ekarriko du. Berdintasuna geratzeko etorri da, zalantza gabe".

**BERDINTASUNAREN
ALDEKO POLITIKEK
ADOSTASUNA EKARRI
DUTE OSOKO
BILKURAN**



Iaz, Antzuolako plazan, Mari Domingiri eta Olentzerori egindako harrera. IKER AIZKORBE

Gospel doinuek emango diete hasiera Gabonei

Olentzeroren eta Mari Domingiren jaitsiera eta ekitaldiaz gain, egongo da zertaz gozatu Gabonetan. Bihar, 'Elvis gospel' kontzertua izango da Torresoroan. Kiroletan, Gabon Kopa eta San Esteban krosa izango dira protagonista nagusiak

Maialen Regueiro ANTZUOLA
Gabonetan ekintza ugariz gozatzeko aukera izango da: *Elvis gospel* kontzertua, Olentzeroren eta Mari Domingiren jaitsiera eta Gabon Kopa.

'Elvis gospel' kontzertua
The Upper Room taldeak bihar eskainiko du, Torresoroan, *Elvis gospel* izena duen kontzertua.

Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta, abesti propioez gainera, Elvis Presleyren doinuak abestuko dituzte.

Olentzero eta Mari Domingi
Abenduaren 24an, Gabon kalejira egingo dute eskolako umeei eta horien gurasoei, 11:00etan hasita. 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingi San Josetik jai-

tsiko dira eta ondoren ekitaldia izango da plazan.

Gabon Kopa
Abenduaren 26tik 30era bitartean, pilotako Debagoieneko Gabon Kopa izango da Antzuolan, non herriko zein eskualdeko benjamin, alebin eta infantil mailetakoko neska-mutikoei hartuko duten parte.

San Esteban krosa hilaren 26an

Abenduaren 26an, San Esteban krosak hartuko ditu Antzuolako kaleak. 17:30ean, 5 urteko LH-1eko eta LH2-ko ikasleen txanda izango da. 17:45ean, benjaminak eta alebinak irtengo dira. Eta 18:00etan, infantilak eta helduak.

Boluntario beharra
Antolatzaileek boluntarioak behar dituzte ibilbidean egoteko.



Iazko San Esteban krosa. GOIENA



M.A.

Udal Pilotalekuak irudi berria du

Antzuolako Udal Pilotalekuak eraberritzeko zuen premia ikusita, Udalak lan horietarako 18.000 euro bideratu ditu.

Egin dituzten lanen artean daude, besteak beste, itoginak konpontzea, harmailetatik eserlekuak ateratzeko egokitzapenak egitea eta koltxoneta berria jartzea.

Uzarragarako bidea, garbi

Azken asteetan bota duen euriak hainbat luizi eragin ditu Antzuolan; Uzarraga auzorako bidean, esate baterako. Aipatutako bidea Udalaren jabetzarena ez denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari zegokion bidea garbitzeko lanak egitea. Azken egunetan bidea garbitzen aritu ostean, Uzarraga auzora doan bidea antzuolarrentzat erabilgarri dago dagoeneko.



M.A.

OHARRAK

Txistor-jana Landatxopen

Aurten ere Gabonetako egitarauaren baitan txistor-jana izango da Landatxopen. Hitzordua bihar da, zapatua, 18:00etan.

Informazio eskaintza Arrolako en eskutik

Arrola mendizale taldeak bazkietza bajen eta alten gaineko informazioa eskainiko du hilaren 27an, Olarango bulegoetan, 18:30etik 19:30era bitartean.

Urtarrilaren 23an Kursaalera joateko aukera

Urtarrilaren 23an, Javier Camarenaren kontzertua ikustera joateko autobusa egongo da. Izen-ematea udaletxean da.



Mikel Biain, Anjel Iturbe, Izaro Elorza, Lourdes Idoiaga eta Andoni Gartzia. XABIER URZELAI

Oihana Elortza OÑATI

Herritarrek eta ingurumena zainduko dituen herria gurako lukete izatea etorkizuneko Oñati herriko azken bost alkateek. Euskalduna, gobernatzeko eredu propioa duena, feminista eta kulturaren inbertitutako duena ere irudikatzen dute. Anjel Iturbe, Andoni Gartzia, Lourdes Idoiaga, Mikel Biain eta Izaro Elorza egon ziren egon ziren *Kontzejupetik* aldizkariaren bueltan antolatutako solasaldian.

Horixe izan zen martitzenean zinema aretoan bost alkateek egindako solasaldian izan zuten gai nagusia: etorkizuneko Oñati irudikatzea. Aurretik, bakoitzak kontatu zuen bere alkate sasoiara nola heldu eta zein esperientzia hartu zuen.

Alkate izateko arrazoiak

Kronologiko hartu zuten hitza alkateek eta bere legealdietako proiektuak aipatzen hasi aurretik, bere aurretik alkate izandako Eli Galdos aipatu zuen Anjel Iturbek, demokrazia garaioko beste alkatea Oñatin: "Eskerrak eman gura dizkiot gai izan zirelako Oñatik azken hamarkadetan pilatu zuen gabezia handiari konponbidea emateko".

Bere agintaldietan egindako proiektuak aipatu zituen gero Iturbek baina lehenengo, zentral elektrikoaren erosteketa, horrek ekarri zuen zorra eta trukean hango diruak urteko aurrekontuetarako izateko estrategia aipatu zuen. Eta gai hori, herriak

Herritarrek eta natura zainduko dituen Oñati

Etorkizuneko Oñati nolakoa irudikatzen duten galdetu zitzaien joan den martitzenean herriko azken bost alkateei, eta herritarrengan eta ingurugiroarekiko errespetuan jarri zituzten oinarri sendoenak Iturbek, Gartzia, Idoiak, Biainek eta Elorzak

bere energia ekoiztea, alkate batek baino gehiagok aipatu zuen solasaldian, gai horrek duen garrantzia azpimarratuz beti. "Energia ekoiztu, banatu eta merkaturatu egiten du Oñatin, eta uste dut zaindu beharreko eredu dela hori", aipatu zuen, adibidez, Mikel Biainek.

Andoni Gartzia eta Izaro Elortzak, biek aipatu zuten, esaterako, zalantzak izan zituztela pausoa emateko, etxean ume txikiak izanda ez zelako erraza. "Baina Biainen agintaldiak Udaren gertutasuna erakutsi zidan, kudeaketarako beste eredu bat, eta hori puntu inportante bat izan da Udalean sartzeko. Nire orain arteko bidea besteenen

aldean laburra da, baina oso aberasgarria ari da izaten". Gartzia, berriz, "herria maite" duelako erabaki zuen alkate izateko eskaintza onartzea: "Eli Galdosek herria maitatzen irakatsi zidan eta Anjel Iturbek konstantea eta iraunkorra izaten". Lourdes Idoiak kooperatiba mundutik "herriaren zerbitzura" dagoen beste erakunde batera egindako pausoa izan zela esan zuen. "Alkateok egindako lorpenak edo proiektuak ondoan izaten duen lantaldearekin batera egindakoak dira. Nire kasuan, EARekin eta Hamaika Bat-ekin koalizioan, batetik, baina lankide oposizioko Oñatik Ezkerretik, PP, PSOE,

Ereitten eta ANV bakoitza bere garaian". Gai hori lotuta, udal teknikarien lana ere aipatu zuen Idoiak, eta deialdi bat egin herritarrei udalgintzan sartzeko.

Mikel Biainek garai hartako egoera politikoa aipatu zuen: "2011koa izan zen ilegalizazio urte batzuen ondoren kandidatura legala aurkeztu ahal izan genuena, eta momentu historiko moduan dut gogoan garai hura".

Natura eta tokiko merkataritza

Etorkizunari begira jarrita, zozketa bidez erabakitako txandak errespetatuz hitz egin zuen bakoitzak. Aurrera begira, ingurumena zaindu beharra aipatu zuten denek eta baita tokiko

merkataritza kontuan izatea ere. Erosteko ohiturak aldatu beharra eta herriko komertzioek duten garrantzia aipatu zuten bostek.

Hain zuzen ere, gai hori aipatu zuen herritar batek ere ekitaldiaren amaieran, eta kirola egiteak duen garrantziaz jabetzeko udala egiten ari den lanaren bestekoa tokiko merkataritzaren alde egitea eskatu zien herritarrek agintariei: "Ez bakarrik dendariengatik, ingurumenean ere eragin handia du". Gai hori lotuta, eta Oñati industria herria izanik, komertzioetan eta herriko negozioetan dagoen errelebo falta aurre egin beharreko arazo moduan ulertzen dute alkate denek eta konponbidea eman beharrekoa. Izaro Elorzak aipatu zuen oraintxe dela egitekoa Udala Merkataritza Biziberritzeko Planaren eguneratzea.

Etorkizunera begira Oñatik duen beste arazo bat demografia dela aipatu zuten. Zahartzaroren inguruko erabakiak eta neurriak hartu beharra ikusi zuten; bostak zeuden ados ahalik eta zahartzaro onena eskaini behar diela Oñatik herritarrei.

Debagoiena 2030

Herritarrek egindako beste galdeta batzuen artean, herriko pinudiei buruz, basogintzari buruzko beste eredurik ez ote dagoen galdetu zuen beste herritar batek. Eta lurraldetasunari buruz ere bai beste batek. Hain zuzen ere, lurraldetasun ikuspegiari buruz. Biainek zein Idoiak erantzun zuten administrazioen muga barruan lan

'Kontzejupetik' aldizkaria

Kontzejupetik udal aldizkariak 300 zenbaki atera ditu eta aitzakia horrekin antolatu zuten martitzenean solasaldia. Zenbaki horiek jasotzen dituen erakusketa zabaldu dute liburutegian; 31ra arte egongo da ikusgai. Bihar goizean, abenduak 21, aldizkariak eta Oñati Irratiak Olakuako dorrean duen erredakzioa ikusteko aukera egongo da.

egiten dutela askotan baina nazio ikuspegia badutela. Biainek Udalbiltza aipatu zuen puntu horretan, "lurraldetasunari agian gehien hurbiltzen zaion erakundea, Oñati kide dena, nahiz eta aitortu motel dabilela". Puntu honetan Debagoiena 2030 egitasmoa ekarri zuen gogora Oñatiko egungo alkateak: "Bailara ikuspegia duen egitasmoa da eta proiektu horretan sartuta dago Oñati".

Nerabeak eta euskara mailaren kalitatea izan ziren herritarrek egindako galderen artean aipatu ziren beste bi, eta han entzundako proposamen eta ira-

kurketa guztiak kontuan hartuko dituztela adierazi zuten alkateek.


Bihar Goiena telebistan

Aiert Alberdiren kantu batekin hasi eta beste batekin bukatu zen solasaldia eta Urko Egaña bertsolariak hiru bertso bota zituen, hirugarrena Iñigo Arregi kazetariari eskainia. Kultura etxeko zinema aretoa ia goraino bete zen alkateen solasaldia bertatik bertara jarraitzeko. Goienak *streaming* bidez bota zuen eta ia 100 lagunek jarraitu zuten. Bihar, zapatua, Goiena telebistan emango dute 21:30ean.



Kultura etxeko zinema aretoan izan zen ekitaldia martitzen iluntzean. X.U.

Nola irudikatzen duzu etorkizuneko Oñati?



ANJEL ITURBE
ALKATE OHIA (1991-2003)

"Bitartekoak jarri behar dira herriaren etorkizun hobeko baten alde"

Bere garaian egin zuten moduan, orain ere Plan Estrategiko baten beharra ikusten du Anjel Iturbek. Bost bloketan banatutako plana, hamasei gai jasoko dituen.

Iturberen esanetan, Oñati aurrerakoa, aitzindaria, izan da mendetan zehar: Euskal Herriko lehen unibertsitatea, protokolo artxiboa, Euskadiko lehen industrialdea, Lege Soziologia Institutua eta ekoizpen elektriko garbia eta ingurugiroarekiko errespetuzko kontsumorako eta argiteria publikorako enpresa aipatu zituen, adibidez. "Azken horrek hausnarketa eskatzen duela uste dut, beste jarduera batzuetara zabaltzeko eta Oñati herri garbia eta ingurugiroarekiko errespetuzkoa izateko. Plan Estrategikoa behar da herritarren parte hartzea nahikoa duen herriko eragile espezialistekin. Bitartekoak jarri beharko genituzke herri hobeko bat izateko. Dediakzioa eta lana dira gure tresnak, erremintak, Oñati irekiagoa, garbiagoa, gizarteragoa eta bizigarriagoa izateko".



ANDONI GARTZIA
ALKATE OHIA (2003-2006)

"Osasun sistema publikoa mantentzea eta pentsioak dira geroako erronkak"

Hurrengo urteei begiratzeko, gaur egungo Oñatiren argazkia atera edo azaldu zuen, datuetan, Andoni Gartzia. Herriko biztanleriaren datuak, azalera metro karratuetan, langabeziarenak, kanpoan jaiotakoena, biztanleko *per capita* errenta edo industria datuak, adibidez. Hala, bere esanetan, 2040. urte inguruan 50 urtetik gorakoak 15 urtetik beherakoak baino gehiago izango dira Oñatin. "Horri lotuta, bi erronka daude bizitza luzeari begira: osasun publikoa eta pentsioak".

"Oñatiarrek segurtasuna, ekonomia ondo joatea eta osasuna izatea" eskatzen dute, Gartzia esanetan, eta hori oinarri hartuta, lau gomendio eman gura izan zituen etorkizunari begira: "Jakitea egitea, jakitea izaten, jakitea agintzen eta jakitea kudeatzen". Gomendio horiek, baina, udal ordezkari edo agintari ez ezik, herritarrei ere eman zizkien Gartzia: "Norbanakook ere badugu gure ardura eta".




LOURDES IDOAGA
ALKATE OHIA (2006-2011)

"Lehen sektorea indartu behar dugu ingurunea zaintzeko neurrien artean"

Lourdes Idoiagarendako, lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) lehen planora ekarri beharra dago etorkizuneko ingurugiroaren zaintza bermatzeko gura izanez gero. "Sektorea babestu behar dugu eta ekintzetara pasa behar dugu". Bestalde, etorkizuneko Oñati herri euskalduna izatea ere gurako luke Idoiagak, baita adin guztietarako egokitutako herria izatea ere. Horrez gain, tokiko merkataritzari lotuta, turismo planarekin lotu beharra ikusten du berak, "Oñatitik Arantzazura errepidean barrena joan barik, herrira ere etorri eta hemengo dendetan kontsumitzeko. Hala ere, erosketak ohiturak guztiok aldatu behar ditugu".

Udalean parte hartzeko dei egin zien Idoiagak herritarrei: "Herrigintzan aritzea ondo dago, baina udalera lanera etortzea ere bai. Alkateok ezin genduke ezer egingo udal teknikaririk gabe, baina herritarrek ere indibidualistotik atera eta herriaren zerbitzura egoteko konpromisoa behar dute izan".




MIKEL BIAIN
ALKATE OHIA (2011-2019)

"Herri euskalduna, parekidea eta hezitzailea, herritarrek eta ingurua errespetatuz"

Mikel Biainek esaldi bakar batean laburbildu gura izan zuen bere gustuko etorkizuneko Oñati: "Herri euskalduna, parekidea eta hezitzailea, herritarrek eta ingurua errespetatuko dituen".

Hori lortzeko hainbat erronka daudela ere aipatu zuen segidan, horietako bat erronka soziodemografikoa. "Uste dut Oñatik badituela tresnak honi erantzuteko, herri unibertsitario bat da, baina helduei begira ere herri hezitzailea dela ulertzen dut, unibertsitate zaharrean helduendako unibertsitatea jarritz, esaterako. Zahartzaro aktiboarekin oso lotuta dago".

Ama lurraren zaintzak duen garrantzia ere aipatu zuen eta hori Oñatik, historikoki, irisgarritasunaren alde egindako lana aipatu zuen. Kulturari eutsi behar zaiola ere esan zuen: "Gastua baino gehiago, inbertsio modura hartu behar da eta esfortzua egin beharko litzateke hor". Tokiko merkataritzari eustea ere ikusten du eta dagoen errelebo faltari aurre egin behar zaiola ere aipatu.



IZARO ELORZA
ALKATEA

"Luzerako proiektuak landu behar dira eta herritarrek pisu handia dute hor"

Oinarri sendo batzuen beharra ikusten du Izaro Elortzak eta hori begira hiru puntu nagusi aipatu zituen. Lehena, gobernantza eredua. "Uste dugu gobernantza gardena izan behar dela, herritarren parte hartzearekin. Politikak lau urtetako hauteskundeetan markatuta egon barik, epe luzerako erabakiak izan behar dira eta hor zeresan handia dute herritarrek".

Oñati herri feminista izatea ere gurako luke Elorzak, "bere zentzu osoan hartuta. Ez bakarrik generoan, parekidetasunean edo indarkeria erradikalizatu beharrean, osotasunean baizik". Eta azkenik, jasagarritasuna: "Mundu bakarra dugu, zaindu egin behar dugu. Ekintza asko egin daitezke baina eskatzen du kontzientziazio eta aldaketa sakona. Oñatin, energia gaia aipatuta, energia kontsumoa gutxitzen joan behar gara uste dute. Denok saiatu behar dugu gero eta energia gutxiago kontsumitzen, eta nola ez, ahalik eta energia handiena berriztatzailea izaten".

Antzezlanez eta musikaz beteta datoz Gabonak

Gaur hasi eta Gabonak bukatu arte, kultur ekitaldiz betetako egitarauaz gozatu ahal izango da. XUP! Taldearen antzezlanak, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Potx eta Lotxen antzerkia eta Ganbara Txiki Abesbatzaren ikuskizuna dira horietako batzuk.

Miren Arregi OÑATI

Kultur ekitaldiz beteta datoz Gabonak herrira. Adin guztietarako herritarrek gozatzeko moduko ekitaldiak izango dira, baina, bereziki umeengan pentsatuak. Gaur, egubakoitza, esaterako, XUP! Taldeak *Kontraizanak* antzezlanak eskainiko du, 22:30ean, Santa Ana Antzokian. Sarrerak 4 euro balio ditu Txokolateixan eta 5 euro leiha-tilan.

Talde gaztea

XUP! antzerki taldea osatu dute 15 eta 18 urte bitarteko zortzi oñatiarrek –aurrez Irazan Antzerki Guneako kideak– eta arrasatear batek. Hilabetetako lanaren ostean, gaur, egubakoitza, taularatuko dute *Kontraizanak* izeneko antzezlanak. Bertan, gaur egungo gizartean gazteek dituzten kezkak eta buruhausteak jorratuko dituzte. "Antzerki talde batek ikasturte berriari hasiera ematen dio eta egun batean, gela batean giltzapetuta geratzen dira. Gela horretan, hainbat gertaera gertatzen dira, non helburua gazteek ditugun kezkak eta buruhausteak azaltzea den", azaldu dute taldeko kideek.

Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 24a, datorren martitzena, urteko egunik bereziena izango da asko eta askorendako eta bereziki etxeko txikienendako. Bada, azken urteetako joerari jarraituz, Olentzero eta Mari Domingi plazara etorriko dira, bertan, umei, euren eskariak entzutera. Musika Eskolak, Haitzondo Kuadrillak eta Algaraz Elkarrekin antolatuta dute aurten harrera ekitaldia.

Potx eta Lotx, 'Etxean'

Abenduaren 27an iritsiko da Potx eta Lotx pailazo oñatiarren txanda. Pailazoek, haien taldekideekin batera, Santa Ana Antzokian egingo dute *Etxean* ikuskizuna,



Olentzero eta Mari Domingi, Foruen plazan. ARANTZAZU EZKIBEL

POTX ETA LOTX PAILAZOEK 'ETXEAN' IKUSKIZUNA EGINGO DUTE, SANTA ANAN, HILAREN 27AN

17:00etan hasita. Sarrerak eskuargarri daude 3,5 eurotan www.onati.eus webgunean, Txokolateixan eta leiha-tila digitalean. *Etxean* ikuskizuna maiatzaren estreinatu zuten eta ordutik hara eta hona dabilza ikuskizunarekin. Bertan, etxeko egun bat irudikatzen dute pailazoek. "Osabak etxetik irten beharra eduki du eta gu bakarrik geldituko gara etxean", azaldu du Josu Zubiak. "Aspertzearen aldeko aldarria da ikuskizuna, izan ere, aspertzeak, sorkuntzari eta buruari eragiteari ateak zabaltzen dizkio. Oso garrantzitsua da aspertzea", gaineratu du.

Kontzertu didaktikoa

Ganbara Txiki antolatuta, *Koloretako Munstroa* kontzertu didaktikoa egingo da urtarrilaren 4an, zapatuan, Santa Ana Antzokian. Munstro bat da pro-

tagonista, "sentimenduek korapilo handi bat eragin diote gorputzean munstroari eta kaos handi bat du bere barruan", adierazi du Ganbara Txiki zuzendari Aitor Biainek. "Munstroa joango da emozioak ezagutzen, kudeatzen eta barrutik ateratzen. Emozioen inguruko kontzertu izango da, musika, eta antzerkia uztartuko dituena". Sarrerak eskuragarri daude Txokolateixan. Salneurria 8 eurokoa da; 10 urtera artekoendako 5 eurokoa.

Errege kabalgata eta gehiago

Errege bezpera –urtarrilaren 5a– da kontuan hartu behar izaten den beste egun horietako bat. Hiru erregeek, etxeetara iritsi aurretik, Oñatiko kaleetan egingo dute zeharkaldia. Ondoren, udaletxeko osoko bilkuren aretoan harrera egingo diete gaztetxoek. Gainera, gau horretan bertan, askorendako hitzordu bilakatu den Errege bezperako bertso saioa egingo dute Zubikoa kiroldegian, Txinparta Bertso Eskolak antolatuta. Hurrengo egunean, Eguberri bukaera emanez, Musika Bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu.

Ekitaldiak Gabonetan, euskal presoak etxeratze eskatuz

"Joseba Arregi presoaren egoera ikusarazteko" ekitaldia egingo dute gaur, 19:00etan, plazan

M.A OÑATI

Sarek antolatuta, hainbat ekitaldi egingo dira Gabonetan euskal presoek etxeratzea aldarrikatzeko. Gaur, esaterako, 19:00etan, Oñatiko plazan, Joseba Arregi preso oñatiarraren aldeko ekitaldia egingo da. "Haren egoera ikusarazteko ekitaldi berezia izango da", antolatzaileen esanetan. Arregiren adina –73 urte– pertsona kopurutan irudikatuko dute ekitaldi horretan. Abenduaren 24an, Eguberri egunean, Herri Denda jarriko da plazan. 10:30 aldera hasiko da, eta Sare-

ko eta presoek aldeko materiala salduko da, baita Gabonetako saskiaren txartelak ere. Abenduaren 27an, berriz, urteko azken ostirala izanik, elkarretaratzea egingo dute plazan eta hilaren 30ean eta 31n preso eta iheslarien aldeko areto futbol txapelketa egingo da. Bi egingo dira; bata emakumezkoena eta bestea gizonezkoena eta parte hartu ahal izateko gutxieneko adina 14 urtekoa izango da. Izen ematea Boga, Arrano, Ona eta Ongi talbarnetan egin ahal da, abenduaren 23a baino lehen.

Zazpi urte bete izana ospatuko du Antixenak bihar

Goizeko hamaiketan hasiko dituzte ekintzak. 11:00etan zuhaitz landaketa eta tertulia egingo dituzte Iñigo Segurolarekin; 12:00etan asanbladako kide ohiekin solasaldia egingo dute eta ondoren bazkaria. 16:00etan bertso bingoa hasiko da eta 20:00etan kontzertuak Kontuz Erromeriya, Gorka Suaia eta Rude Ska taldeekin.

19:00etan hasita, pintxo-pote solidarioa egingo du Hotz-ek

Hotz Oñatik antolatuta, pintxo-pote solidarioa egingo dute gaur, Oñatiko plazan, 19:00etan hasita. Etxeko tortillez eta ardo goxoz gozatzeko aukera emango dute taldekoek, eta ez hori bakarrik, kikarak eta liburuak ere ipiniko dituzte-eta salgai. Pintxo-potean aterako duten dirua Kikarakada proiektuarendako izango da.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Hoge

Ez omen dira ezer 20 urte, hala dio tango zaharrak. Niri konturatzerako ailegatu zait mende honetako 20. urtea. Datorren urteko egutegiak ikusita akordatu naiz milurtekoaren aldaketa zela eta orain 20 urteko kontuekin, egutegietako digituen aldaketak eragin zezakeen kataklismo informatikoa, milurteko berriari hasiera emateko mundu mailako ospakizunak, mende eta milurteko berriari jaioko zen lehenengo haurra izateko lehiaketak.

Niri berehalakoan joan zaidan denbora tarte honetan bizitza oso bat bizi izan dute orduan jaio zirenek eta ohartu dira nolako munduan bizi diren. Orain 20 urte baino baliabide hobeak dauzkate mundu hobeago batean bizitzeko, osasun edo teknologia aldetik; baina ere berean, hobetzeko geroz eta zailagoa den mundua ere bai, larrialdian dagoen mundua. Belaunaldiak izendatzen direnekin honezkero nolabait izendatuta izango dituzten gazte hauei kudeatzeko geroz eta zailagoa den mundua uzten ari gara, baina gorpilaren norabidea aldatuko duten itxaropena ere euren ganbarari behar dugu, horien aurreko belaunaldikoek horretarako gaitasunik ez baitugu erakusten.

Eskatu egin beharko da 'Mugiment' txartela

'Mugiment' txartela egin edo baja emateko eskatu ezean, herriko txartela egingo zaie, automatikoki, Oñatiko abonatuiei. Eskaera biak urtarrilaren 17a baino lehen egin beharko dituzte interesatuek; 13tik 17rako astean ate irekiak egingo dira Eltzian

M.A OÑATI

Urtarrilaren 1etik aurrera, Zubikoan eta Eltzian egongo dira egun kiroldegian dauden zerbitzu gehienak, izan ere, abenduaren 31n, itxiko egingo dituzte igerilekuak, urtarrilean, berriak egiteko lanei ekiteko. Hori horrela, 2020ko lehen egunetik aurrera, egun Zubikoan dauden kirol zerbitzu gehienak herriko bi eraikinetan egongo dira banatuta: kiroldegian bertan eta Eltzian. Igerilekuak erabiltzeko, Arrasate eta Bergarako udalekin egin du akordioa Oñatikoak, izan ere, lanek urte bete iraungo dutela uste dute eta tarte horretan bailarako bi igerileku



Igerilaria, Zubikoan. GOIENA

horiek erabili ahal izateko aukera emango da.

Abonatuen txartelak

Abonatuen txartelei dagokienez, bi txartel mota izango dituzte aukeran herritarrek datorren urtean: Oñatiko eta bailarako edo *Mugiment*. Oñatiko txartelarekin bakarrik herriko kirol zerbitzuak erabili ahal izango dituzte herritarrek. Oñatiko kirol txartelaren prezioa 2020an izango da aurtengoarena baino %38 txikiagoa, gehi txartelak balio duen bost euroak. Hori, baina, kuotan sartuta dago. Bailarako txartela edo *Mugiment* txartela ateratzen duen herritarrek, berriz, 2019an

herriko txartelagatik ordaindu duen kopuru bera ordainduko du. *Mugiment* txartela edo baja emateko eskatu ezean, automatikoki abonatuak zaie herriko txartela abonatuiei. Hala, aldaketak gura izan ezker, eskaerak lehenbailehen egiteko adierazi dute kiroldegiko arduradunek. Asko jota, urtarrilaren 17a baino lehen egin beharko dira horiek, izan ere, urtarrilaren 13tik 17a bitartean ate irekiak egingo dituzte Eltzian –gimnasioa, ekintza gidatuetaarako gela, aldagelak eta komunak egongo dira bertan–, herritarrek instalazio horiek ikusi ditzaten.

Kirol instalazioak 2020an

Igerilekuen itxierarekin, inguruko hainbat instalazio ere itxi egingo dituzte, hala nola azpiko aldagelak, aerobik gela, karate gela, bulegoak, medikuntza gela, gimnasioa, rokodromoa eta squash aretoak. Zubikoan, bestetik, kantxak erabilgarri egongo dira, baita ekintza gidatuetaarako erabiltzen diren bi gela. Obrek irauten duten bitartean, kantxa urdinean egokituko da Zubikoako sarrera edo harreragunea.

Oñatiko Kirol Sariak banatuko dituzte gaur, 19:30ean

Udaletxeko ekitaldian, urtean zehar herrian nabarmendutako kirolariak sarituko dituzte. Herritarren saria jasotzeko hautagaiak honako hauek dira: Axier Alonso, mendi eskiatzailea; Danel Casais, txirrindularia; eta Beñat Guridi, atleta. Gainera, 2019an nabarmendutako kirolari, talde, entrenatzaile eta ibilbide onenak sarituko dituzte.

Aloña Mendi eta Iintxaren artekoa gaur, 20:00etan

Aloña Mendik eta Iintxak aurreratutako partidua jokatu dute Legazpin, gaur, 20:00etan hasita. Oñatiarrak hirugarren daude, 28 puntu batuta; Iintxa berriz, sailkapenaren erdian, 10 puntu gutxiagorekin. Aurreratutako partidu hau, berez, urtarrilaren 5ean jokatu behar zuten, baina, talde biak adostasunera iritsita, gaur jokatu dute.



Goiena Klubeko bazkidetza %30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.


Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo egiten baldin bazara, **zerga onurak** ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota **%30 merkatuko zaizu errenta aitortzen** egiterakoan.

BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.



Hainbat komertziotan deskontuak. | Puntuak aldizkaria astero etxean.
Deskontuak Goienako iragarki salikatu eta eskeletan. | Zozketak eta promozioak.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



1. Andoni Gartzia, 2. Mikel Larrea, 3. Migelin Igartua –bizkarrez–, 4. Iban Altube, 5. Fernando Rezabal, 6. Jon Barrena, 7. Enrique Kabiketa, 8. Angel Aiausti, 9. Imanol Guridi –bizkarrez– 10. Mari Jose Inza, 11. Santos Aiausti. Argazkia 1992koa da. EZEZAGUNA

Etenaldi eta distantzia ezberdinekin, 41 urtez urtea korrika agurtzen

ATLETISMOA Oñatiko San Silvestre lasterketa izango da Euskal Herriko zaharrenetakoa, 1978an egin zuten lehenengoz. Hainbat etenaldi izan ditu harrezkero. Galdakaon 1961ean antolatutakoa izan zen Euskal Herrian aitzindaria

X. Urzelai / O. Elorza OÑATI

Diotenez, Sao Paulon (Brasil) antolatu zuten lehenengoz San Silvestre lasterketa, 1925ean. Gertuago, Galdakaon, *Circuito de Navidades* lasterketa antolatu zuten hasi ziren 1961ean, baina lasterketa hark ez zuen jarraitkortasunik izan, eta esaterako, 1964tik hona Madrilgo Vallecas auzoko San Silvestre probak sekulako indarra hartu du.

Euskal Herrian, egun, herri askotan antolatzen dute urteko azken egunean lasterketa, formatu ezberdinetan, baina Oñatikoa zaharren artean egongo da. "1978an egin zuten lehenengoz", dio azken urteotan proba antolatzeko ardura izan duen Antxintxiketan taldeko kide Asier Osinagak. Hain zuzen, Osinagaren aita Gotzon Osinaga da erretratuan azaltzen dena: "Argazkiaren atzealdean 1979ko

martxoko data dator. Baina argazkia errebelatu zeneko data da hori [barreak]; 1978ko San Silvestreko erretratua da, eta lehenengo edizio hartan 21 kilometrotako lasterketa egin zuten, pentsa".



Gotzon Osinaga, 1978an. EZEZAGUNA

Frankismoa amaitu berrian

GOIENAK ezin izan du jakin, oraingoan, lehenengo edizio haren atzean zeintzuk egon ziren antolaketa lanetan. "Batean eta bestean galdetu dut, baina ez dut jakiterik izan zeintzuek antolatu zuten lehenengo lasterketa hura. Hori bai, distantzia luzeko proba izan zen, eta, argazkiari erreparatuta, dortsalean *Egin* egunkariaren publizitatea dator. Pentsa, frankismoa amaitu eta berehala antolatu zuten lasterketa", dio Osinagak.

Diotenez, beste edizio berezi batzuk ere izan ziren. "Antza, tabernetan ardoa edateko geldialdiak egiten zituzten, parranda giroan antolatutako lasterketaren bat edo beste egin zuten", baina gero, etenaldi luzea egon zen, 1992an erreuperatu zuten arte (Ikus goiko argazkia). "Lagun kuadrilla batek hartu zuen,

Nahi beste aukera eta formatu

Oñatiko lasterketarekin batera debagoiendarrek beste bost San Silvestre izango dituzte aukeran: Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasateko Musakola auzoan eta Bergaran. Lehenago, baina, Antzuolan San Esteban krosa egingo dute, abenduaren 26an.


Eskoriatzan, brindisa eta gero

San Silbestradien 12. edizioa eta Manuel Muñozen 9. Milia. 11:00etan hasita haurrendako lasterketak egingo dituzte. Gero, 17:30ean, korrikalariak xanpainarekin brindisa egingo dute, eta 18:00etan hasiko da proba. Mozorro onenak saria izango du.

Aretxabaletan ere, jai giroan

Antolatzaileek dei egin dute moztarotuta korrika egiteko:

16:45ean, umeen lasterketa izango da; eta 17:00etan, helduena. Durana kalean hasi eta amaituko da lasterketa.



Bergaran, iaz. HANKALUZE

Musakolakoa, bigarrena

Arrasaten goizean egingo dute San Silvestre lasterketa, Musakola auzoan. 12:00etan abiatuko da 5,2 kilometroko proba, Legarra plazatik. Egunean bertan eman beharko da izena, doan. 16 urtetik gorako herritarrek eman ahal izango dute izena, 11:00etatik aurrera. Horretarako mahaia Legarra plazan egongo da, Ziar-Ola elkartearen ondoan.

Bergaran ibilbide berriarekin

Lasterketaren seigarren edizioa ibilbide erabat ezberdinarekin dator. "Ez du oraingoarekin zerikusirik izango, Bergarako beste auzo batera eramango ditugu-eta korrikalariak, San Migel auzora", diote antolatzaile taldekoek. Distantziari (7 km) eta desnibelari (300 metro) dagokionez, baina, apenas dago aldaketarik: "Herri mailako izaerari eutsi gura izan diogu". Iaz baino 100 lagun gehiago hartuko dituzte aurtan: "Bakarkako izen-ematea segituan agortu zen; bikoteka oraindik 20 dortsal inguru geratuko dira. 450 lagunendako tokia dugu, gehienez".

Hala, lasterketa aurretik (12:00), aurtan hil den Anselmo Gomez taldekidea omenduko dute, eta 11:30ean, San Silvestre Txiki solidarioa ere izango da: "Gaztetxoei proban parte hartzeko eskatuko diegu gozoak ekartzeko, turroiak... Elikadura Bankura eramango ditugu gero".

1992an, lasterketa antolatzeko ardura, *Pistol* zenak, Jesus Zabalek... Horiek 8,5 kilometroko lasterketa egin zuten urteetan, eta ondoren, Antxintxiketan taldekoek hartu genuen erreleboa, 2007an".

Kilometro eta erdi gutxiago

Hala, Antxintxiketan taldekoen lehen lasterketak 8,5 kilometroko distantziari eutsi zion: "Herriari bi itzuli egiten genizkion, Olakuaraino joaten ginen, San Lorentzoraino... Baina sekulako trafiko arazoak sortzen ziren

herrian. Jendeak urteko azken arratsaldean erosketak egiteko aprobetxatzen zuen, eta lehenengo itzulian ez, baina bigarrenean trafiko arazo handiak egoten ziren, jendeak autoak edozein tokitan aparkatzen zituena... Hori horrela, lasterketa herri barruan egitea erabaki genuen, zazpi kilometrotakoa. Distantzia horrekin beste profil bateko atletak erakarri genituen lasterketara, gezurra badirudi ere kilometro eta erdi hori asko igartzen delako; proba herrikoia da egun".

Talde "lehiakorra" izatea da Selektzioaren helburua

FUTBOLA Abenduaren 28an jokatu dute Realak, Alavesek eta Debagoieneko Selektzioak Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa. Iaz, lehenengoz, etxekoek irabazi zuten garaikurra: "Zaila izango da errepikatzea, Realak talde oso ona du"

Xabier Urzelai ARRASATE

Hamalau urte behar izan ditu Debagoieneko Selektzioak Gabonetako Emakumezkoen Torneoa irabazteko. Duela urte batzuk amestu ezin zitekeen helburua zen hori, baina iaz, ametsa errealitate bilakatu zuten: "Meritu osoarekin gureganatu genuen txapelketa, bi partiduak irabazi eta neskek sekulako maila erakutsi zutelako, dena egin zuten ondo", adierazi du Selektzioaren entrenatzaileetako batek, Manu Diazek.

Hilaren 28an (Ibarra futbol zelaian, 16:30ean hasita) jokatu dute torneoaren lehen partida, baina, Diazek garbi dauka iazkoa errepikatzea ez dela batere erraza izango: "Reala Euskal Ligan izugarri ondo dabil, orain arte bost gol baino ez dizkiete egin, eta joan den astean, esaterako, hirugarren dagoen Pauldarrak taldeari 2-9 irabazi zioten. Horrekin batera, iaz taldean izan genituen hainbat jokalaririk ez ditugu Selektzioan izango, baina, hala ere, oso talde ona osatu dugu. Hala, iazkoa errepikatzea zaila izango dela jakinda ere, seguru egon lehiakorrek izango garela. Uste dut hori izan behar dela gure helburua, Realak badaki iaz zer gertatu zitzaizen eta gauzak ondo egitera etorriko dira. Taldea iazko berbera da, baina urtebete helduagoak dira eta aurrerapausoa eman dute. Eta Alaveseko harrobi taldea ere oso talde ona da".

Txapelketa ondo hastea

Realarekin eta Alavesekin alderatuta, Selektzioaren jokalariek ez dute normalean elkarrekin jokatzeko, baina Diazen ustez hori ez da aparteko arazoa: "Entrenamendu saio bat egingo dugu hilaren 26an (19:00), eta bai, egia da igarri egiten dela jokalaririk hauek astero-astero ez dutela elkarrekin jokatzeko, baina hori ez da arazoa, jokalariek bereha-



Iazko irabazleak, Debagoiena, Manu Diaz eta Tito Etxeandia entrenatzaileekin. GOIENA

"IAZ JOKALARIEK DENA EGIN ZUTEN ONDO; AURTEN ERE LEHIAKORRAK IZATEA DA HELBURUA"

la barneratzen dute-eta gure jokatzeko modua".

Hori horrela, entrenatzaile bergararrarendako garbi dago lehenengo partiduak garrantzi handia izango duela: "Torneoa ondo hastea garrantzitsua da, sententzio onak baldin baditugu eta lehiakorrek bagara errazago egingo dugu dena".

Gaztetxoen partiduak, 29an

Hurrengo egunean, 29an, gaitzetzeko mailako txapelketak jokatu dituzte. Infantil mailakoak lehiatuko dira, lehenik, eta gero, eguerdian, kadeteen txanda izango da. Arratsaldean, azkenik, alebin mailako norgehiagokak jokatu dituzte. Gipuzkoako talde ezberdinak arituko dira elkarren aurka jokatzeko. Realak izango da, eta Valladolideko talde bat ere gonbidatu dute torneoaren.

Bost taldetako jokalariek Selektzioarako:

Tito Etxeandiak eta Manu Diazek bost taldetako ordezkariak batuko dituzte Debagoieneko Selektzioan: Bergarakoak, Leintz Arizmendikoak, Leintz Aloñakoak, Racingekoak eta Eibarkoak.

Hautatu dituztenak

- Olatz Alberdi (Bergara)
- Haizea Arriaran (Bergara)
- Ane Vicente (Bergara)
- Jone Jauregi (Bergara)
- Maider Jorge (Bergara)
- Ane Larrañaga (Bergara)
- Naiara Azkarate (L.A.)
- Olaia Calvo (L.A.)
- Joana Gorosarri (L.A.)
- Iraitz Zabala (L.A.)
- Nerea Arregi (L.A.)
- Malen Osa (L.A.)
- Oihane Bengoa (Eibar)
- Naroa Urreta (Eibar)
- Mirian Agirre (Leintz Ari.)
- Maialen Esnaola (Racing)

FUTBOLA Mondrak bihar jokatu du eta UDAk domekan

Ohorezko erregionalean jardunaldia normal jokatu dute asteburuan. Etxean jokatu dutenak dira Mondra (zapatua, 16:30, Mojategi) eta Aretxabaleta (domekan 16:30, Ibarra). Arrasatearrek sailkapenaren erdian dagoen Urolaren kontra jokatu dute, eta Mutriku hartuko dute aretxabaletarrek, seigarren postuan dagoen taldea.

ARETO FUTBOLA Bihar, Araia hartuko du Eskoriatzak etxean

Maila nazionalen sailkapenaren erdian dagoen Alipendi Zalditxo de Araia taldearen bisita izango du Eskoriatzak bihar (18:00). Joan den astean batutako puntuarekin bederatzi dituzte eskoriatzarrek. Euskadiko Txapelketan, Sestaora joan beharko du Aretxabaleta zapatuan (16:30) eta Mondratek, berriz, atsedena izango du.

ESKUBALOIA Arrasaten eta Bergaran hitzordu bereziak Gabonetan

Bergaran, hilaren 21erako, Eskubaloia Eguna antolatu dute. 10:00etan, hiruko torneo egingo dute kadeteek, infantilek eta gurasoek, eta 17:15ean, jokalaririk ohien partiduak egongo dira. Luntxa egongo da 20:30ean. Arrasaten, berriz, hilaren 26, 27 eta 30rako ate irekiak antolatu dituzte, eta entrenamendu saioak egiteko batuko dira (10:00-13:00).

SASKIBALOIA MUK Arha Hotelesen kontra agurtuko du urtea

Joan den astean La Flecharen kantxan lortutako garaipenak (65-77) eten du abendu hasieran Mondragon Unibertsitateak izandako krisialdi laburra; abenduko zubia erabat okertu zitzaion talde arrasatearrari. Hala, zapatuan 18:30ean etxeko zaleen aurrean jokatu du MUK urteko azken partidua, Arha Hotelesen kontra.

FUTBOLA Ipintzan eta Oñatin Realaren torneoko partiduak

Infantil txiki mailako Realaren Nazioarteko Txapelketako 35 edizioa jokatu dute Gabonetan, eta urtarilaren 2an kanporaketa partiduak jokatu dituzte Azkoagainen (Oñati) eta Ipintzan (Bergara). Bergaran D multzoko partiduak jokatu dituzte, 09:15ean hasita, eta F multzoko partiduak jokatu dituzte Oñatin, 09:30ean.

FUTBOLA Prest dituzte Bixente Etxeandia eta Txelis torneoak

Mondrak eta UDAk prest dituzte kategoriatxikiak begira antolatzen dituzten Bixente Etxeandiaren eta Txelisen omezezko torneoak. Aretxabaleta abenduaren 26an, 27an eta 28an jokatu dute, eta Arrasatekoa abenduaren 28rako antolatuko du Mondrak, 09:30etik 14:00etara. Hor, Gipuzkoako hainbat talde batuko dira Mojategin.

ESKUBALOIA Talde nagusiek kanpoan dute hitzordua

Fagor Industrial Aloña Mendik zarpigarren postuan dagoen Urdanetaren kantxan jokatu du zapatu eguerdian (12:00, Bilbao), eta Ford Mugarri Arrasatek, berriz, hirugarren postuan dagoen Zarauzko Txiki polit taldearen kantxan jokatu du, 17:30ean. Etxeko bi ordezkariak irabazi egin zuten joan den astean.

TXIRRINDULARITZA Vuelta Debagoienetik igaroko da 2020an

Martitzenean aurkeztu zuten Espainiako Vueltaren 75. edizioa eta abuztuaren 18an, laugarren etapan, Debagoienetik igaroko da tropela. Txirrindulariek Iruen hasiko dute etapa, eta Debagoienera Udanatik sartuko dira, handik Arrasatera joango dira eta Kanpanzar igoko dute. Arraten (Eibar) amaituko dute 169,5 kilometroko etapa.

Ohiturari eutsiz, bertso saio asko Debagoienean

Arrasateko AED elkartearen eskutik Amaia antzokian izango da, 20:00etan, bihar, zapatua; eta urtarrian Aretxabaletan eta Oñatin egingo dituzte, hurrenez hurren; Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hainbat finalista izango dira Debagoienean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Beñat Gaztelumendi bertsolariak jantzi zuen zapatuan Gipuzkoako txapel preziatua, Donostia Arenan jokatu zuten finala irabazita; bigarren aldiz irabazi du Añorgakoak txapelketa hori, eta oraingoan, aitaren eskutik jaso zuen saria; izan ere, Gipuzkoako Bertsotze Elkarteak urte luzetan Bertsotze Elkartearen egindako borondatezko lan isila aitortu eta eskertu nahi izan dio keinu horrekin.

Alaia Martin, Ane Labaka, Beñat Lizaso, Jon Maia, Nerea Elustondo, Oihana Iguaran eta Agin Laburu izan zituen Gaztelumendik taularen gainean lagun, eta Labururekin lehiatu zuen buruz burukoan.

Finalaz, Debagoienekoan ahotik 6.000 lagun bildu ziren Donostia Arenan, Illunben, zapatuan, finalarekin gozatzeko, eta horietako asko Debagoieneko bertsolari eta bertsotzeak; horien artean zen Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Iñaki Olalde. Saio ederra izan zela dio: "Giro ona egon zen, eta irabazleak ondo merezitako saria eraman zuen. Gaztelumendi zuzen ibili zen saio guztian zehar, eta gero, saltotxo bat gora egiteko bakar-kako lanean Beñat itzela da, eta



Beñat Gaztelumendi txapelduna, lehiakideen txalo artean. ALBERTO ELOSEGI (GBE)

hala egin zuen erakustaldia, saiokoan nahiz buruz burukoan". Eta haxe gaineratu du: "Agin Laburuk bigarren saria ateratzeak asko poztu ninduen, eta, faboritoen artean baneukan ere, saioan jasotako inpresioengatik, nik neuk Beñat eta Alaia Martin pasatuko nituen buruz burukorra. Alaia zoragarri dabil, eta uste dut entzulea ondo merezita bereganatu duela".

Arrasateko Ane Zuazubiskar bertsolaria txapelketako final-laurdenetara heldu da aurren, eta zapatuan Donostia Arenan

zen, bertsolari moduan baino gehiago, kazetari lanetan jarduteko: "Barrutik bizi dugunontzako txapelketa polita izan da, eta finala ere ederra. Oso gorai-patua izan da finala parekidea izan dela, eta hala da, baina kontuan hartu behar da txapelketa 48 bertsolarik abiatu genuela, eta 17 ginela emakumeak. Bertsolari askok dioten moduan, lagungarria litzateke antolatzen diren saioetan emakume gehiago izatea, horrek hurrengo txapelketan emakume gehiago izatea bultzatzea dezakeelako".



GIPUZKOAKO BERTSOTZALE ELKARTEA

"Gogoia dut saioetan aske abesteko"

ANE LABAKA BERTSOLARIA

Lasarte-Oriakoa "gustura" da txapelketan egindako lanarekin eta "gogotsu" dago datozen saioetarako. **Zelan txapelketan?**

Pozik nago egindakoarekin, eta finalean oso babestuta sentitu nintzen; konplizitate handia izan dut, besteak beste, Beñatekin. Izugarri gustatzen zaizkit haren bakarkakoak; merezitako txapela, duda barik!

Estreinakoz izango zara ibarreko saio horietan; gogotsu zaude?

Arrasaten ez dut sekula kantatu eta Oñatiko saio horretara ere lehenengoz noa. Gogo handia daukat txapelketatik kanpo modu askeagoan kantatzeko.

Zer eskatuko diozu urte berriari?

Aurtengoak gauza asko eman dizkit sortzaile moduan, eta hurrengoan ere hala jarraitu gura nuke, ilusioz sortzen.

Oñatin, sei finalista

Jon Maia eta Oihana Iguaran izan ezik, Gipuzkoako Txapelketako beste sei finalistak izango dira Oñatiko Txinparta Bertso Eskolak urtarriaren 5erako Zubikoa kiroldegian, 22:30ean, antolatu duen jaialdian. Sarrerak hamar eurotan salduko dituzte, aurrez, Txokolateixan.

Arrasaten, AEDren eskutik

Urteetako ohiturari jarraituz, Arrasateko euskara elkarteak Amaia antzokian proposatu du bihar, zapatua, 20:00etan saioa. Taularen gainean izango dira: Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Julio Soto, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes, Maite Berriozabal gai-jartzalearen agindutara. "Finalaren ostean asko komentatu da molde oso ezberdineko bertsolariak izan zirela, eta biharko saioa ere bada horren erakusle; sarritan batera kantatzen ez dutenak entzuteko aukera polita izango dugu, argazki polita izango da, eta saio bizia eta zorrotza izango dela uste dut; oso gustuko dudana bertsokera nahasketa ederra izango delakoan nago".

Aretxabaletan, urtarriaren 3an

Amaia Agirrek proposatutakoak kantatuko dituzte Aretxabaletako Arkupe Kultura etxean urtarriaren 3an, 19:00etan, Andoni Egañak, Onintza Enbeitak, Miren Artetxek eta Igor Elortzak. Astelehenean jarriko dituzte sarrerak salgai, Arkupen.

GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO FINALISTAK ETA PUNTAKO BERTSOLARI GEHIAGO ESKUALDEAN

SANTAMASAK

GOIENA TELEBISTA, JAIK

ABENDUAREN 22AN, DOMIKAN, 22:00ETAN ETA 23:30EAN

BABESLEA:



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Cibeles perbitzu ofiziala

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Alde zaharrean, Maalako errebalan, 60 metro koadroko etxebizitzaz salgai. Igogailuarekin. Gupil-aukientzat egokitu. Berogailu indibiduala. Trastelekua barne. Telefonoa: 655 82 47 29

Bergara. Zubiaurre kalean 80 metro koadroko etxebizitzaz salgai edo errentan. 15 urteko eraikina da. Igogailua, berokuntza sistema, hiru logela, bi komun eta bi balkoi. Erdi jantzita. Garaje itxia aukeran. Telefonoa: 635 25 54 44

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izateko pertsona atsegina eta arduratsua behar da. Esperientzia eta legezko agiri guztiak beharko litzuzke. 667 01 89 13 eta 607 89 08 40

Bergara. Pertsona euskalduna behar da umeak goiz eta arratsalde zaintzeko. Ordu gutxi. 608 53 58 04 edo 676 17 18 14

Umeak zaintzeko pertsona behar da. Etxerako pertsona behar da. 5 eta 2 urteko umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostegunera, goizez. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefonora. Bergaran. 610 05 99 37

402. ESKAERAK

Arrasate. Orduka etxe eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Telefonoa: 663 04 53 99

Bergara. Beharrezko agiriak eta esperientzia duen neska arduraduna lan bila, etxean bizi izaten edo orduka, adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 664 78 59 74

Bergara. Emakumea Bergara erdialdean errentan hartzeko etxebizitza bila. 666 07 42 98

Bergara. Legezko agiriak dituen emakumea prest

etxeko lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko. 666 07 42 98

Debagoiena. 23 urteko mutil arduratsua gertu eraikuntzan, tabernan, garbiketan edota zaintzan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala hasteko moduan. 691 60 44 52

Debagoiena. 30 urteko mutila gertu baserriko lanak egiteko eta garbiketan aritzeko. Telefonoa: 631 15 19 94

Debagoiena. Astean zehar edo asteburuetan, etxean bertan bizi izaten, lan egiteko gertu. 611 18 93 60 (Selenia)

Debagoiena. Astelehenetik ostiralerako haurrak edo edadetuak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota era guztietako jostintza lanak egiteko prest. Pertsona arduratsua. Telefonoa: 602 65 07 72

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu, orduka edo egunka, garbiketak egiteko edo gauetan nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 631 86 83 69

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko edo zerbitzari lanak egiteko. Dokumentazioa egunean. 631 95 04 42

Debagoiena. Emakume euskalduna, erizain laguntzaile ikasketekin, umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Euskara, gaztelania eta keinu hizkuntza menperatzen ditut. 647 46 68 53 (Nerea)

Debagoiena. Emakumea prest, etxean bizi izaten edo orduka, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 643 95 55 27

Debagoiena. Emakumea prest, etxean bizi izaten edo orduka, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile izateko. Deitu 643 59 76 06 telefono zenbakira

Debagoiena. Erizain laguntzailea, soziosanitario tituluduna, gertu arratsaldetan eta asteburuetan orduka lan egiteko. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. Deitu zenbaki honetara: 688 74 02 01 (Gloria)

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkan mutila nagusiak zaintzeko gertu. Baita baserrietan ere. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun emakumea sukaldari laguntzaile bezala orduka lan egiteko prest. 688 75 95 68

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko zein zerbitzari lanetan aritzeko. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko edota zerbitzari lanetan aritzeko. 654 11 15 14

Debagoiena. Estilista lanetan, nagusiak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Baita etxean bertan bizi izaten ere. 633 54 77 92 (Marta)

Debagoiena. Garbiketa lanetan aritzeko prest. Aste barruan arratsaldez edo asteburutan goizez eta arratsaldez. Orduka ere bai. 622 24 86 64

Debagoiena. Gizonezkoa lan bila, berehalako pres-tutasunarekin. Igeltserotza, arotz eta metalurgian ezagutza. Zerbitzari lanak, supermerkatuko kutxazain, administrari eta giza baliabideen ezagutza ere bai. Deitu: 631 36 01 64 edo 688 75 95 67

Debagoiena. Haurrak edo nagusiak etxean bertan bizi izaten zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko

edota txakurrak zaindu eta paseatzeko prest. 631 43 37 81

Debagoiena. Mutil arduratsua zaintza lanak egiteko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Telefonoa: 667 07 91 53

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 632 44 71 84

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke orduka edo eguneko jardunaz. Titulazioak eta gidabaimena dauzkat. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena. Nekazartzan, baserriko lanetan zein animaliak zaintzen, margolari zein igeltsero laguntzaile moduan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 602 17 81 32

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketak egiteko.

Orduka, etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 04 13 49

Debagoiena. Neska arduratsua, legezko agiriarekin, gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 58 79 64

Debagoiena. Neska atari, etxe eta abarrak garbitzeko gertu. Baita nagusiak eta umeak zaintzeko ere. Orduka, jardun edo etxean bertan bizi izaten. 604 37 79 34

Debagoiena. Neska gertu atari, etxe eta abarrak garbitzeko edota nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka, jardun edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 631 15 13 45

Debagoiena. Nikaragua-ko mutila gertu nagusiak zaintzen, nekazaritzan, abeltzaintzan, aroztegian edota eraikuntza lagun-

tzaile lanetan aritzeko. 631 79 31 92

Debagoiena. Okin lane-tan edota bestelako lan-bideren baten jarduteko gertu.

Debagoiena. Pertsona helduak zaintzeko, zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko edota txakurrak zaindu eta paseatzeko prest. 631 92 80 40

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest, bai orduka edo etxean bertan egonez. Baita umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 632 87 39 75

Debagoiena. Soziosanitario titulua eta esperientzia dituen mutil arduratsua lan bila, etxeko zerbitzua emanez pertsona dependienteekin. Gida-baimena eta autoa ditut. 641 62 50 09

Oñati. Garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 657 31 79 65

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

SANTAMAS AZOKAK EMAN DUENA, IRUDIETAN

‘Jaiak’ Domeka, 22:00 eta 23:30



XABI URZELAI

'ETORKIZUNEN OÑATI IRUDIKATZEN'

‘Solalsaldia’ Astelehena, 21:30

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMIKA, 22
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Kantari Gasteiz 2	09:00 Hala bazan 6
11:00 Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia	09:30 Kantari Gasteiz 4	09:30 Kantari Gasteiz 4
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari Gasteiz 3	10:00 Kantari Gasteiz 3
12:30 Hiri baratzea 10	10:30 Hala bazan 7	10:30 Kantari Gasteiz 2
13:00 Hala bazan 7	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Harira eztabaida	12:00 Hala bazan 6
14:30 Albisteak	13:00 Osoko bilkura: Bergara	12:30 Hala bazan 7
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Erreportajea: 54.Durangoko Azoka	13:00 Osoko bilkura: Oñati
16:15 Albisteak	15:00 Hala bazan 6	14:00 Elkarrizketa: Sara Gandara
16:30 Kantari Gasteiz 2	15:30 Hemen Debagoiena	14:30 Asteko errepasoa
17:00 Albisteak	16:30 Kantari Gasteiz 4	15:00 Hemen Debagoiena
17:15 Hala bazan 7	17:00 Kantari Gasteiz 3	16:00 Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia
17:45 Albisteak	17:30 Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala	16:30 Hala bazan 6
18:00 Hemen Debagoiena	18:00 Erreportajea: 54.Durangoko Azoka	17:00 Kantari Gasteiz 4
19:00 Kantari Gasteiz 3	19:30 Asteko errepasoa	17:30 Kantari Gasteiz 3
19:30 Hala bazan 7	20:00 Hemen Debagoiena	18:00 Osoko bilkura: Bergara
20:00 Hemen Debagoiena	21:00 Hala bazan 6	19:00 Erreportajea: 54.Durangoko Azoka
21:00 Hala bazan 7	22:00 Osoko bilkura: Oñati	20:00 Hemen Debagoiena
21:30 Elkarrizketa: Sara Gandara	23:00 Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala	21:00 Asteko errepasoa
22:00 Hemen Debagoiena		21:30 Hala bazan 7
23:00 Hala bazan 7		22:00 Jaiak: Santamasa
23:30 Elkarrizketa: Sara Gandara		22:30 Hemen Debagoiena
		23:30 Jaiak: Santamasa

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- A.Fleming, (poligonoa) 60 m², 2 logela, trastelekua egokituta 30.70 m². 160.000€.
- Baxaria, 70 m², 3 logela, biatzara sartutako. Gorpua aukeran. 129.500€.
- Zubieto, 70 m², 2 logela, berrituta, berazterekin, biatzara sartutako. 150.250€.
- Azenoroka, 170 m², duplexa, 4 logela, laia 0. Biatzara sartutako. 195.000€.
- Arriakale, 180 m² duplexa, 4 logela, igogailua. Biatzara sartutako. 373.500€.
- Boli, 45 m², trastelekua, igogailua, biatzara sartutako. 145.000€. Gorpua aukeran.
- San Antonio, 76 m², berrituta, igogailua jabearen kutsura. 99.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Iñaki Paredakua, 93 m², igogailua, berazterekin, berrituta. 160.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Zubizarra, 50 m², 1 logela, potoa txubolarenkin. 90.000€.
- Zubizarra, 60 m², 2 logela, berazterekin, mizidorenkin. 75.000€.
- Zubalotegi, 80 m², 2 logela, igogailua, berrituta, biatzara sartutako. 140.000€.
- Modernika, 75 m², 2 logela, biatzara sartutako. 169.000€.
- Morko, 60 m², 2 logela, igogailua, biatzara sartutako. 130.000€.
- Modura, 57 m², 2 logela, berrituta, biatzara sartutako. 129.000€.
- Izargara, 54 m², 2 logela, igogailua, biatzara sartutako. Gorpua aukeran. 216.000€.
- Aukarrenta, 60 m², 2 logela, berazterekin, biatzara sartutako. 100.000€.
- Zubieto, 70 m², 3 logela, biatzara sartutako, egokituta. 114.192€.
- Zubieto, 45 m², 3 logela, berrituta, biatzara sartutako. 88.000 PREZIO JEITSIERA.
- Zubalotegi, 45 m², 3 logela, trastelekua handia, biatzara sartutako. 115.000€.
- Zubalotegi, 54 m², 3 logela, 2 trastelekua, biatzara sartutako. 90.000€.
- Oñitza, 79 m², 3 logela, igogailuarekin. Aukera ona. 70.000€.
- Oñitza, 75 m², 3 logela, trastelekua handiarekin. 63.000€. Aukera ona.
- Modernika, 86 m², 3 logela, ofizietatik barne. Berrituta, biatzara sartutako. 150.000€.
- Modernika, 100 m², 3 logela, igogailua. Biatzara sartutako. 178.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Koldo Elizakale, 87 m², 3 logela, trastelekua parking, egokituta. 160.000€.
- Fraskizuri, 100 m², 3 logela, igogailua. 198.000 €.
- Morkotegi, 96 m², 4 logela, berazterekin, igogailua. 149.500€. PREZIO JEITSIERA.
- Fraskizuri, 109 m², 4 logela, trastelekua, igogailua. 180.000€.
- Biskarantze, 130 m², 4 logela, igogailua, trastelekua. 270.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Zubizarra, 60 m², 2 logela, biatzara sartutako. 45.000€.

ANTZUOLA:

- Errekalde, 94 m², 3 logela, igogailua. Egokituta. 99.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Errekalde, 90 m², 3 logela, igogailua, biatzara sartutako 135.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Belakoa ezraa, 60 m², 2 logela, berrituta. Biatzara sartutako. 120.000€.
- Errekalde, 70 m², 2-3 logela, igogailua, biatzara sartutako. 125.000€.
- Kalebarra, 79 m² – 77m2. Berrituta. 61.000€. - 51.000€.
- Buztinezuri, 68 m², trastelekuaarekin. Berrituta. 40.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Kalejai, 80 m², lgo pixua 40.000€. - 2 pixua + garbiera 70.000€. Berrituta.

ELGETA:

- Solbador, 75 m², 3 logela, igogailua, berazterekin, trastelekua. 75.000€.
- San Rikio, Duplexa, 83 m², berrituta, biatzara sartutako. 190.000€.



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/
telebista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

HILDAKOAK

Santi Berezibar Irasuegi.
Arrasaten, abenduaren 4an. 75 urte.

Juan Angel Egaña Iza.
Seguran, abenduaren 5ean. 68 urte.

Pedro Velasco Alonso.
Arrasaten, abenduaren 5ean. 66 urte.

Kontxi Zubizarreta Gaztañaga.
Aretxabaletan, abenduaren 6an. 63 urte.

Juan Antonio Zubiria Etxeberria.
Aretxabaletan, abenduaren 7an. 71 urte.

Emilio Hervas Hervas.
Bergaran, abenduaren 7an. 87 urte.

Josefa Aizpitarte Larrinaga.
Arrasaten, abenduaren 8an. 85 urte.

Jose Manuel Tena Alfonso.
Arrasaten, abenduaren 9an. 53 urte.

Maria Anginzoniz Basauri.
Arrasaten, abenduaren 9an. 84 urte.

Johann Paul Kernstock Biain.
Oñatin, abenduaren 9an. 85 urte.

Shanti Sanz Sanz.
Arrasaten, abenduaren 9an. 61 urte.

Javier Campo Redondo.
Arrasaten, abenduaren 10ean. 55 urte.

Jose Antonio Abarrategi Dominguez.
Arrasaten, abenduaren 10ean. 57 urte.

Maria Antonia Odriozola Bergara.
Oñatin, abenduaren 10ean. 88 urte.

Esperanza Errasti Pagaldai.
Arrasaten, abenduaren 10ean. 88 urte.

Mari Carmen Lazkano Balzategi.
Bergaran, abenduaren 11n. 93 urte.

Aurora Iruzubieta Fernandez.
Aretxabaletan, abenduaren 13an. 87 urte.

Eloy Rivas Saez.
Eskoriatzan, abenduaren 13an. 82 urte.

Natalia Andrea Moreno Rojas.
Aretxabaletan, abenduaren 14an.

Eugenio Larrañaga Bolinaga.
Antzuolan, abenduaren 15ean. 82 urte.

Antonio Duinat Aginagalde.
Arrasaten, abenduaren 16an. 83 urte.

Jose Antonio Oianguren Gabilondo.
Eskoriatzan, abenduaren 16an. 77 urte.

Jorge Berricano Yoldi.
Oñatin, abenduaren 16an. 80 urte.

Teresa Elortondo Etxabe.
Arrasaten, abenduaren 17an. 86 urte.

Tomas Garcia Sanchez.
Eskoriatzan, abenduaren 17an. 82 urte.

Javi Parra Pereira.
Arrasaten, abenduaren 18an. 55 urte.

Benito Rodriguez Perez.
Aretxabaletan, abenduaren 18an. 86 urte.

OROIGARRIA

Natalia Andrea Moreno Rojas

Jose Manuel Parraren ama

2019ko abenduaren 14an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri BHlko langile, guraso eta ikasleak.

Aretxabaletan, 2019ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Eugenio Larrañaga Bolinaga

2019ko abenduaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan

egon zareten guztioi, familiaren izenean.

Antzuolan, 2019ko abenduaren 20an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker

ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena

Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:

155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 21	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 22	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 3
Astelehena, 23	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 7
Martitzena, 24	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 25	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 26	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 3
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 20	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 21	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 22	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 23	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 24	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 25	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 26	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 20	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 21	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 22	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 23	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 24	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 25	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 26	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019ko abenduaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 /
943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 /
943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien
egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play eta
App Store dendetan.

OROIGARRIA

Pedro Maria Altuna Beitia

'Cantina'

2019ko abenduaren 10ean hil zen,
Villajoyosan (Alacant), 78 urte zituela.

Oroitze meza zapatuan izango da, abenduaren 21ean,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2019ko abenduaren 20an.

ESKER ONA

Anttoni Zubikarai Arrieta

Tomas Baleztenaren alarguna

2019ko abenduaren 5ean hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,

hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2019ko abenduaren 20an.

URTEURRENA

Arantza Moyua Uribeetxeberria

Aitor Alzelaireren alarguna

2018ko abenduaren 23an hil zen, 63 urte zituela.

Urteurreneko meza 2020ko urtarilaren 4an izango da,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Eliza Nagusian.

—

Handia izan zinen eta izango zara
betiko gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2019ko abenduaren 20an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu




Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1. Omenaldia Basotxon

Aurten ere, Santa Lutzia egunez, 90 urte bete dituzten bazkideak omendu dituzte Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkartean.

2. Bigarren saria irabazi dute

Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeak bigarren saria jaso du Gasteizen izandako fandango eta arin-arin koreografien txapelketan.

3. Sasoibidekoak Goienan

Sasoibideko kideak eta TAFID heziketa zikloko hainbat ikasle Goienako egoitza ezagutzen izan dira, non erredakzioa, irratia eta telebista ikusteko aukera izan duten.

4. Jesus Odriozolak saria jaso du

laz, Euskal Herriko 21. txistor lehiaketako saria jaso zuen, eta martitzenean Euskal Okela saria jaso zuen Jesus Odriozola harakin ofatiarrak.

5. 50 urte ezkontuta

Julia Robles eta Jose Bautista abenduaren 20an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Seme-alaben eta biloben partetik, zorionak, bikote!

6. 600 hilabete elkarrekin

Antonio Fernandez eta Pilar Verdejo. 600 hilabete, 219.000 egun, 5.256.000 ordu eta 315.360.000 minutu. Bilobaren eta seme-alaben partetik, zoriontsuak izan!

7. 50. urteurrena

Felipe Zabaleta eta Margarita Ojanguren 1969ko abenduaren 20an ezkondu ziren Angiozarko elizan. "Zorionak, bikote, zeuen 50. urteurrenean!".

8. Hirugarren saria Santo Domingon

Arizmendiko Gaztelupeko Abesbatzak Santo Domingo de la Calzadako 29. Gabon kanten txapelketan hartu du parte eta hirugarren saria irabazi du.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Pello Gabilondo Olaortua
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Zorionak, Pello! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Etxekoen partetik, muxu potolo bat.



BERGARA
Iratxe Osa Zabala
Abenduaren 29an, 7 urte. Zorionak, politx hori! Azkenian heldu da zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat zure familia osoaren partetik. .



BERGARA
Ekhi Ormaetxea
Abenduaren 26an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxuak danon partetik!



ARETXABALETA
Maria Jesus Uribeetxebarria
Abenduaren 24an gure amamaren urtebetetzea da. Horregatik ospatuko dugu festa eta algaraka. Horrela izan dadila urte askotarako, amama. Asko maite zaitugulako, hor egongo gara zure frituetaz goatzeko prest. Musu handi bat Familia osoaren partetik. Prestatu belarriak!



OÑATI
Eñaut Zubizarreta Iñarra
Abenduaren 24an, 6 urte. Zorionak, Eñaut! Allau da eguna! Ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu!



ESKORIATZA
Jon Cabello Garcia
Abenduaren 23an, 11 urte. Zorionak, Jon! Heldu da zure eguna. Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Noa Rico Campo
Abenduaren 23an, 2 urte. Eiderren eta etxekoan partetik, zorionak, potxola!



BERGARA
Aitor Beistegi Frias
Abenduaren 23an, 7 urte. Zorionak, Aitor! Ondo-ondo ospatu zure 7. urtebetetze eguna! Besarkada bero bat familia osoaren, eta bereziki, anaiaren eta lehengusuen partetik.



OÑATI
Garbiñe Vizcaino
Abenduaren 22an, 45 urte. Zorionak eta urte askotarako, Garbi, etxeko eta lagun denen partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
Danel Lizarazu Altube
Abenduaren 22an, 4 urte. Zorionak, Danel! Segi bizitza koloretan marrazten! Maitasunez, amaxo eta aitabxo.



ANTZUOLA
Maddi Iturbe Gabiria
Abenduaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Maddi! Ahizpa Noaren eta etxeko denon partetik, egun polita izan dezazula eta jarraitu orain bezalaxe, printzesa! Muxu potolo bat.



OÑATI
Izar Diaz Agirregabiria
Abenduaren 20an, 7 urte. Zorionak, Izar! Zazpi urte! Ondo pasatu eguna. Patxo handi bat, familia danaren partetik.



ARETXABALETA
Mari Luz Rus
Abenduaren 20an, 66 urte. Zorionak etxekoen partetik!



OÑATI
Ekhi Urzelai Ugarte
Abenduaren 20an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako. Patxo handi bat, Bergarako eta Oñatiko familien partetik. Ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak, Gari eta Oihan! Ondo ospatu zuen urtebetetze eguna familia eta lagun artean! Patxo handi bat, etxeko danon, eta bereziki, Izaroren partetik!



ARRASATE
Lur eta Manex Zuazubiskar Etxaniz
Abenduaren 19an, 7 urte. Azkenean zazpi urte! Zorionak etxekoen parterik eta ederto pasatu!



OÑATI
Eider Zuazubiskar Rico
Abenduaren 18an, 11 urte. Zorionak, printzesa, etxekoen partetik.



BERGARA
Nahia Lagoma Casas
Abenduaren 18an, 2 urte. Zorionak, maittia! muxu potolo bat, etxeko guztien partetik!



BERGARA
Aner Izagirre Ibarra
Abenduaren 16an, 9 urte. Zorionak, Aner! Familiaren eta lagun partetik! Muxu potolo bat, maittia!



BERGARA
Helene eta Lide Otazo Egurza
Abenduaren 16an, 4 urte. Zorionak, bikote! Patxo mordo bat, etxekuen partetik!



ARRASATE
Jon Dominguez Cabanillas
Abenduaren 17an, 3 urte. Zorionak, Jon! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Patxo erraldoi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Iosu Urrutia
Abenduaren 16an, 42 urte. Zorionak, Iosu! Oso ondo pasatu zure eguna eta segi oin bezalako alaia izaten. Zorionak, bereziki, Pedroren eta Danelen partetik!



ESKORIATZA
Amets Aguirre Gandarias
Abenduaren 16an, 4 urte. Zorionak, maitia. Oso ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu.



OÑATI
Garazi Martins Lera
Abenduaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Garazi! Patxo handi pila bat, etxeko guztien partetik! Egun polita pasatu domekan!



ARRASATE
Sara Goñi Ayani
Abenduaren 14an, 5 urte. Zorionak, polita! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat, etxeko guztien partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
Lier Bardezi Kerejeta
Abenduaren 14an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo erraldoi bat Malenen, aitaxoren eta amatxoren partetik! Asko maitxe zaitxugu!



ARRASATE
Aner Horrillo Zallo
Abenduaren 14an, 6 urte. Zorionak, Aner! Patxo handi bat gurasoen, aitita-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada partetik.



OÑATI
Amaia Igartua Garcia
Abenduaren 13an, 8 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure egunian. Muxu potolo bat, etxekoen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak urtarrilaren 10eko zenbakian argitaratuko ditugu.

EGUBAKOITZA 20

ELGETA Olentzero eta Mari Domingi, eskolan
Ikasleei egingo diete bisita.
Herri Eskolan, 11:00etan.

ARAMAIO Olentzero eta Mari Domingi, eskolan
Ikasleei egingo diete bisita.
Herri Eskolan, 11:00etan.

ELGETA 'Europako ipuinak'
Maider Galarzaren eskutik,
7 urtetik gorakoendako.
Liburutegian, 17:00etan.

OÑATI Odol ateratzea
Urteko azken deialdia.
Enpresagintzan, 17:00etan.

OÑATI 'Olentzeroren bila' ginkana
Kuboko erabiltzaileendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI San Tomas ospakizuna
Erretiratuendako.
Eltzian, 17:00etan.

ARRASATE Erakusleiho lehiaketa: sari banaketa
Erakusleiho onenak sarituko dituzte.
Arrasaten, 17:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako festa
Gaztetxoendako.
Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Txu-txu tren
Txartelak herriko komertzioetan banatuko dituzte.
Herriko kaleetan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Munduko janak' ikastaroa
Marokoko eta Aljeriako jakiak prestatzen ikasteko.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Txistor-jana
Erretiratuendako.
Pake Lekun, 18:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Musika Eskolako ikasleen eskutik.
Seminarioan, 18:30ean.

ARRASATE Gabonetako kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
Kulturaten, 18:30ean.

ELGETA Gabonetako kontzertua
Musika eskolako ikasleen eskutik.
Espaloian, 19:00etan.

GABONETAKO AGENDA



SANTI MENDIOLA

OÑATI Kandelen gaua

Sancti Spiritus Unibertsitateko ateak zabalduko dituzte. Klaustroan kandelak ipini dituzte, eta Gabon kantak abestuko dituzte, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen laguntzarekin. Ongietorri emateko ekitaldia Turismo Bulegoak antolatu du. Irekia, herritar guztiendako.
Gaur, egubakoitza, Sancti Spiritus Unibertsitatean, 19:00etan.

OÑATI Sareren ekitaldia
Etzerako garaia da ekitaldia.
Foruen plazan, 19:00etan.

OÑATI Elkartasun pintxo-potea
Hotz taldearen eskutik.
Foruen plaza, 19:00etan.

ARRASATE Kantu Gira
Portaloi elkartearen eskutik.
Portaloian, 19:00etan.

OÑATI Kirol sariak
Urteko kirolariak eta kirol taldeak sarituko dituzte.
Udaletxean, 19:30ean.

ELGETA Pilota txapelketa
Finalerdiak jokatuko dituzte.
Pilotalekuan, 19:45ean.

ARRASATE Goikobaluren kontzertu solidarioa
Batutako dirua Mundukideren Mozambikeko programara eta Indiako familia txiroetako 200 neskatila baino gehiago artatzen dituen umezurtegi batera bideratuko da.
Parrokian, 20:00etan.

ARRASATE Kontzertu akustikoak
Ekiñe Casadoren, Idoia Azurmendiren eta Lierniren eta Asierren eskutik.
Gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI 'Kontraizanak' antzezlan
XUP! antzerki taldearen eskutik, 12 urtetik gorakoendako.
Santa Anan, 22:30ean.

ELGETA Bolo txapelketa
Lehenengo jardunaldia. Bigarrena, hilaren 27an.
Bolatoki tabernan, 23:00etan.

ZAPATUA 21

ELGETA Bilboko Gabonetako parkera
Gaztetxoendako.
Aurrez eman behar da izena.
Udaletxean, 09:00etan.

OÑATI Ate irekiak udal komunikabideetan
Kontzejupetik eta Oñati Irratia egiten dituzten bulegora bisitak egiteko aukera, aldizkariaren 300. zenbakia
zenbakia
Olakuako dorrean, 10:00etan.

ARRASATE 31. xake txapelketa
Santamasak.
Corazon de Encinan, 10:00etan.

OÑATI Antixena **gaztetxearen 7. urteurreneko jaia**
11:00etan, zuhaitz landaketa eta tertulia Iñigo Segurolarekin;
12:00etan, *Antixena* **gaztetxearen aurrekariak eta prozesua** solasaldia;
14:30ean, bazkaria; 16:00etan, bingoa; eta 20:00etan, kontzertua, Rudeska, Gorka Suaia eta Kontuz Erromeriya taldeekin.
Gaztetxean.

BERGARA Napar feria
Askotariko produktuak eta ekintzak.
San Antonio auzoan, 13:00etan.

BERGARA Txu-txu tren
Txartelak, herriko komertzioetan.
Herriko kaleetan, 11:30-14:30 eta 16:30-20:00.

OÑATI Erakusleihu lehiaketako sari banaketa
Erakusleihu onenak sarituko dituzte.
Udaletxean, 13:30ean.

BERGARA Euskal Herriko XII. mus txapelketa
Begarako kanporaketa.
*Artatse elkarte*an, 16:00etan.

ELGETA Gabonetako mus txapelketa
Izen-ematea, egunean bertan, bost eurotan.
*Ozkarbi eta Intxorta elkarte*etan, 17:30ean.

ANTZUOLA Txistor-jana
Erretiratuendako.
Landatxopen, 18:00etan.

DEBAGOIENA ELGETA 'einGO: plazan dantzan'
Herri-dantzak Portaloi elkartearen eta Santamas Komisioiuen eskutik.
Seber Altuben, 18:00etan.

BERGARA 'La Jose'-ren kontzertua
Debalde.
San Juan auzoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Xanti Smith' txerriaren aurkezpena
Santamasak.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Erraldoi eta kilikien konpartsaren kalejira
Santamasak.
Kaleetan, 19:00etan.

ANTZUOLA 'Elvis gospel' kontzertua
The Upper Room taldearekin.
Sarrerak, hamar euro.
Torresoroan, 19:00etan.

ARRASATE Irurtzungo pertsonaia mitologikoen kalejira
Santamasak.
Uarkapen, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Atxabalta anitza' erakusketa
Hilaren 27ra arte.
Arkupen, 19:30ean.

ARRASATE Santamasetako bertso jaialdia
Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Julio Soto, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes bertsotan.
Amaia antzokian, 20:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako kontzertua
Musika eskolako ikasleen eskutik.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua
Oñati Abesbatzaren eskutik.
Agustindarren elizan, 20:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Musika Banda, Aritzeta, Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia eta Orfeoi Gaztea.
Pilotalekuan, 20:30ean.

ARRASATE Bloom, Libertad Condicional eta Rebel Noise taldeak
Santamasak.
Gaztetxean, 22:30ean.

DOMEKA 22

ARRASATE Santamas eguna
Fruta eta barazki erakusketak eta lehiaketak, ganadu feria, herri kirolak, artisau erakusketak, pilota partiduak...
Herriko hainbat gunetan, 09:00etatik aurrera.

BERGARA Camden Town-en dantza emanaldia
Oporren aurreko dantzaldia.
Seminarixoan, 10:00etan.

ANTZUOLA Txistularien kalejira
Etxeko txistulariak
Kaleetan, 10:00etan.

BERGARA 'Domeketan familian gozatzen' ekintza
Sukaldaritza eta Gabonetako apaingarrien tailerrak.
Oxirondon, 11:30ean.

OÑATI Txistularien emanaldia
Gabonetako kontzertua.
Kontzejupean, 12:30ean.

OÑATI Araba Abesbatzaren kontzertua
Meza nagusian parte hartuko du, eta ostean egingo du emanaldia.
Arantzazun, 12:30ean.

ARETXABALETA Organo kontzertua kantariekin
Jose Luis Franzesena organista eta Jokin Bengoa, Mari Karmen Etxeandia, Ciriaco Sandoval eta Mariatxen Urkia barkarlariak.
Parrokian, 19:00etan.

ARRASATE Virgin Mari DJ Set
Santamasak.
Gaztetxean, 23:00etan.

ASTELEHENA 23

ESKORIATZA Bilboko Gabonetako parkera
Erdiguneko autobus geltokitik, 10:00etan.

ARRASATE Gabonetako artisau azoka
Eskuartean elkartearen eskutik.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ELGETA Udal arduradunak, eguneko zentrora
Hango zazpi egoiliarrei opariak emango dizkiete.
Eguneko Zentroan, 15:30ean.

ARRASATE 'Azken hostoa' ipuin kontaketa
Umeendako.
Kulturaten, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Atxabaltatik Saharara begira' solasaldia
Ostean, kuskus datatzea
Urbaltz tabernan.
*Urbaltz elkarte*an, 18:00etan.

ARAMAIO 'Haziaraba': 'Lorategian' ikuskizuna
Estimulazio artistiko goiztiarreko jaialdia, 1-4 urte arteko umeendako.
Aramaion, 18:00etan.

BERGARA Buruko zapia jartzeko ikastaroa
Jardun elkartearen eskutik.
Jardunen, 18:00etan.

ELGETA Olentzeroren etorrera
Intxortatik jaitsi ostean, gutunak jaso eta goxokiak banatuko ditu.
Mendizaleen plazan, 18:30ean.



DETROIT

BERGARA Detroit eta Stronger Together taldeen emanaldia
Lehenak Enkarterriko power hirukotea da. Melodia eta punk rock influentziak dituzte. Bigarren taldea Berrizkoa da, eta hardcorea da nagusi euren kantuetan. Sarrerak, bost euro.
Gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean, 22:30ean.

ARRASATE AMAK taldea
Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano trikitilarien kontzertua. 90eko hamarkadako lau ahots, lau pandero eta lau soinu.
Amaia antzokian, 19:30ean.

MARTITZENA 24

BERGARA Olentzerori ongietorria
Angiozar bailarako auzo guztietara joango da.
Angiozarren, 08:45ean.

ARRASATE Izotz txirrista
Gaurtik, urtarrilaren 6ra arte.
Ordutegia: 10:00-20:00.
Angiozarren, 08:45ean.

ARETXABALETA Gabon kantuak
10:30ean, herriko umeak eta gurasoak kantuan, txistulariekin eta

Basotxoko kantu taldearekin; eta, 12:00etan, Mari Domingiri eta Olentzerori ongietorria, Herriko Plazan.
Aretxabaletan.

ELGETA Gabon eskea
Maala guraso elkartearen eskutik kalejira, Gabon kantak abestuz.
Elgetan, 11:00etan.

ARRASATE Gabonetako artisau azoka
Gaur, 14:00etara arte.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

ANTZUOLA Gabon kalejira
Eskolako umeen eta gurasoen eskutik.
Herriko Plazatik, 11:00etan.

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Mari
Uribe auzoan, San Andresen, Aprendices plazan, Musakolan eta

Santa Teresan jasoko dituzte Olentzerorendako gutunak.
Gune horietan, 11:20an.

OÑATI Gabon kantak kalejiran
Txantxiku Ikastolako umeendako eta gurasoendako.
Ikastolako jolaslekutik, 11:30ean.

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi
Ongietorria egingo zaie.
San Martin plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Olentzero eta Mari Domingi
12:00etan, eskutitzak jasoko dituzte plazan; 13:00etan, trikiti kalejira, herriko kaleetan; 17:30ean, Gabon kantak zaharren egoitzan; eta 18:00etan, Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria Intxaurtxuetan.
Eskoriatzan.

OÑATI Olentzero eta Mari Domingi
Ongietorria egingo diete musika eskolakoek, Haitzondo kuadrillakoek eta Algaraz elkartekoek. Ostein, kalejira.
Foruen plaza, 12:30ean.

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Mari
Olentzerorendako gutunak jasoko dituzte. Eguraldi txarrarekin, Uarkapen.
Seber Altube plazan, 13:15ean.

BERGARA Kartelada girotua
Orain Presoak ekimenaren eskutik. 15:00etan, itsaski-janaren zozketa.
San Martin plazan, 13:30ean.

ARRASATE Goikobalu abesbatzaren emanaldia
17:00etan, Iturbide egoitzan, eta 17:30ean, ospitalean.
Arrasaten.

ARAMAIO Olentzero eta Mari Domingi
Ongietorria egingo diete.
Kiroldegian, 18:00etan.

OÑATI 'Herri denda'
Oñatiko Sareren eskutik.
Foruen plazan, 18:00etan.

ANTZUOLA Olentzero eta Mari Domingi
San Josetik jaitsiko dira herrira, umeak agurtzera. Ostein, ekitaldi nagusia, Herriko Plazan.
Antzuolan, 18:30ean.

ARRASATE Olentzeroren kalejira
Kabiako biribilgunetik, Gipuzkoa etorbidetik, Maalako errebaletik,

Portaloitik eta Erdiko kaletik pasako da, umeak agurtzen. Azken ekitaldia, Herriko Plazan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi
Haurren gutunak jasoko dituzte.
Udaletxean, 18:30ean.

ARETXABALETA Olentzeroren eta Mari Domingiren desfilea
Kiroldegitik abiatu eta Herriko Plazaraino joango dira txistulariek lagunduta. Ekitaldi nagusia, Herriko Plazan.
Aretxabaletan, 18:30ean.

BERGARA Olentzerori ongietorria Osintxun
Umeei goxokiak banatuko dizkie.
Osintxun, 19:00etan.

BERGARA Olentzeroren ongietorria Angiozarren
Umeei goxokiak banatuko dizkie.
Angiozarren, 19:00etan.

OÑATI 'Gabon kantak' kontzertua
Musika Bandaren eskutik.
Foruen plazan, 19:00etan.

BERGARA Mojito gaua
Gabon-gaua ospatzeko.
Kartzela zaharrean, 23:59an.

EGUAZTENA 25

ELGETA Gabonetako igoera Intxortara
Kantsatzeke mendi taldearen eskutik. Tontorrean txistor-pintxoak egongo dira.
Mendizaleen plazan, 11:00etan.

ESKORIATZA Bacon Maiden
Iron Maiden taldearen bertsioak.
Inkernu tabernan, 22:30ean.

EGUENA 26

BERGARA Hockey txapelketa eta irristaketa topaketa
Hiruko eta lau txapelketak.
Labegaraietan, 09:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

ARRASATE Eskubaloi entrenamenduak
LH-5eko eta 6ko neska-mutikoendako.
Iturripen, 10:00etan.



KIDAM MAGOA

ANTZUOLA Kidam magoa

Asier Kidam magoa umeendako ikuskizuna egingo du. Askotariko trukuak, jolasak eta trikimailuak erabiliko ditu neska-mutikoak txundituta lagatzeko. Umeek ere parte hartuko dute magoarekin oholiza gainean, hainbat joko egiten. Sarrerak salgai leihatilan, hiru eurotan.
Abenduaren 23an, Torresoroan, 18:30ean.

OÑATI Gabonetako ur jolasak
10:30-12:30 eta 16:30-18:30.
Zubikoan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea
3-12 urte artekoendako. 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrerak, bost euro.
Manuel Muñoz kiroldegian.

BERGARA Gabonetako parkea
Askotariko jolasak, tailerrak eta ekintzak 6 urtetik beherakoendako. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan.

ARRASATE Izan Suzuki taldearen kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleak.
Aita Menni Ospitalean, 11:30ean.

ARAMAIO 'Slime & Zientzia bizirik' tailerra
3 urtetik aurrerakoendako. Aurrez eman behar zen izena.
Kultura etxean, 12:00etan.

ARETXABALETA Bizente Etxeandia futbol txapelketa
Debagoieneko futbol eskolako jokalaria elkartuko dira, UDAK gonbidatuta.
Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.

ELGETA Mus, briska eta tute txapelketak
Herri mailako mahai-joko txapelketa, erretiratuendako.
Ozkarbi elkartean, 16:00etan.

ARRASATE 'Jolas martzianoak'
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Buztigintza familian'
Haurrek eta helduek buztina elkarrekin egingo dute.
Zubiate labean, 17:00etan.

ARRASATE Slime tailerra eta 'Just dance' jokoa
Irekia, ume guztiendako.
Ludotekan, 17:00etan.

OÑATI Bingo jokoa
Erretiratuendako, opariekin.
Pake Lekun, 17:00etan.

ANTZUOLA V. San Esteban krosa
Umeendako eta helduendako.
Herriko Plazan, 17:30ean.

ARETXABALETA The Upper Room taldearen gospel doinuak
Elvis Presleyren kantuen bertsioak.
Arkupen, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 27

OÑATI Kuadrillen arteko saskibaloi txapelketa
Aloña Mendiren eskutik, gizonezkoak eta emakumezkoak.
Zubikoan, 10:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

ARRASATE Eskubaloi entrenamenduak
LH-5eko eta 6ko neska-mutikoendako.
Iturripen, 10:00etan.

BERGARA Emakumezkoen Gabonetako futbol txapelketa
Bergara, Antzuola, Elgeta eta Soraluze taldeen artean.
Ipintzan, 10:00etan.

ARRASATE Igartubeiti baserrira
Gaileta tailerra.
Arrasaten, 10:00etan.

ANTZUOLA Gabonetako parkea
Ordutegia: 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.
Eskolako patioan.



DONOSTIA KULTURA

BERGARA 'Aioko' haur antzerkia

Ezberdina izatea altxorra da eta gauzak ezberdin egiteak konponbideak dakartza, baina Aioko uharteko biztanleak ez dira honetaz jabetu. Ezberdin izateagatik ingurukoek baztertu dituzten bi haur izango dira protagonista, 3 urtetik aurrerako ikusleendako ikuskizunean.
Abenduaren 26an, Seminarixoan, 18:00etan.



MIREIA BIKURNA

OÑATI Arrikrutzeko lehoiaren bila

Arkeologia tailerra egingo dute Arrikrutzen. Kobazuloan dagoen lehoiaren bila joateko abentura bizi ahal izango dute, adin guztietako pertsonak. Izenak aurrea eman behar dira: 943-08 20 00 edo arrikrutz@onati.eus.
Abenduak 28an, Arrikrutzen, 10:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako parkea
11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrerak, bost euro.
Manuel Muñoz kiroldegian.

BERGARA Gabonetako parkea
6 urtetik beherakoendako.
11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Eguneko sarrerak, lau euro.
Pilotalekuan.

ARETXABALETA Bizente Etxeandia futbol txapelketa
Debagoieneko futbol eskolatako jokalariaiek elkartuko dira.
Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.

BERGARA 'Ehuna' dantza emanaldia
1-6 urte arteko umeak.
Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 16:30ean eta 18:00etan.

ARRASATE Belenen erakusketa
Urtarrilaren 6ra arte ikusgai.
Kulturaten, 17:00etan.

OÑATI Potx eta Lotx pailazoak
Etxean ikuskizuna.
Sarrerak, 3,5 eurotan.
Santa Anan, 17:00etan eta 18:30ean.

ARAMAIO 'Haziaraba' zinema emanaldia
Iluminar animalarium pelikula emango dute. Emanaldi irekia.
Aramaion, 18:00etan.

BERGARA Jordi Pereyra youtuberraren ikastaroa
DBH-2tik gorako ikasleendako debalde izango da.
Laboratoriumen, 18:00etan.

ARAMAIO '2018ko argazkiak' emanaldia
Erretratuen proiektzioa.
Kultura etxean, 19:15ean.

ARRASATE Bidaien kronikak 'Street Art' ikuspegitik
Grafiti tailerra Lexuri Doyaguerekin.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

BERGARA Taldekako bertso txapelketa
Finala jokatuko dute.
Kartzela zaharrean, 22:30ean.

ELGETA Bolo txapelketa
Gabonetako txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko dute, irabazlea zehazteko.
Bolatokian, 23:30ean.

ZAPATUA 28

ARRASATE Irteera Valdezcarayra
Izena, abenduaren 21a baino lehen.
Garibaitik, 06:00etan.

ARRASATE XIII. Txelis memoriale
Mondra, Bergara, Aloña Mendi, UDA, Urola, Zumaia, Touring, Urki, Amaiak Bat eta Lagun Onak klubetako jokalariai gaztetxoekin.
Mojategin, 09:30ean.

ARETXABALETA Gabonetako saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Ibarra kiroldegian, 10:00etan.

ARETXABALETA Bizente Etxeandia futbol txapelketa
Debagoieneko futbol eskolatako jokalariaiek elkartuko dira.
Ibarra futbol zelaian, 10:00etan.

OÑATI Kuadrillen arteko saskibaloi txapelketa
Aloña Mendiren eskutik.
Zubikoan, 10:00etan.

BERGARA Gabonetako saskibaloi txapelketa
Infantil mailako jokariariendako hiruko tornea egingo dute. Izenak,

egunean bertan.
Labegaraietan, 10:00etan.

ARRASATE Mendi irteera
Ludotekako erabiltzaileendako.
Ludotekan, 10:00etan.

BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketara bisita gidatua
Euskaraz egingo dute.
Laboratoriumen, 11:00etan.

BERGARA Zientzia-tailerra familian
Manu Hernandezekin, ele bitan.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ARETXABALETA Karmele Igartua Sorkuntza Beka: sari banaketa
Ekitaldi irekia izango dago.
Kultura etxean, 12:30ean.

ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan
16:00-18:00etara, 8 urte artekoak; eta 18:00-20:00etara, 9-12 urtekoak.
Kiroldegian.

ARETXABALETA Emakumezkoen hiruko futbol txapelketa
Reala, Alaves eta Debagoieneko Selekzioa aurrez aurre.
Ibarra futbol zelaian, 16:30ean.

ARRASATE Gaztetxer txapelketa
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

BERGARA 'Zer gertatzen ari da Iruña-Veleian?' hitzaldia
Juan Martin Elexpurrekin.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

BERGARA The Upper Room taldea
Elvis Presleyren gospel kantutegian oinarritutako kontzertua. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 19:00etan.

BERGARA Herriko bertso txapelketa
Finala jokatuko dute.
Kartzela zaharrean, 22:00etan.

DOMEKA 29

ANTZUOLA Txistularien saioa
Kalejira egingo dute.
Kaleetan, 10:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa
Infantilak, kadeteak eta alebinak.
Ibarra futbol zelaian, 10:00etan.



BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketara bisita gidatua
Gazteleraz egingo dute.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ELGETA Pilota jaia umeendako
Gaur egungo dute lehen saioa, neska-mutikoendako.
Pilotalekuan, 11:00etan.

ARAMAIO Gabonetako kontzertua
Bizente Goikoetxea Abesbatza.
Parrokian, 12:30ean.

BERGARA Beart elkarteko kideen erakusketa
Taldekko kideek egindako lanak ikusteko azken eguna da gaur, 14:00ak arte.
Aroztegin, 12:00etan.
ARRASATE Magia ikuskizuna
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ESKORIATZA '20.000 legoa itsaspeko zaborretan' antzezlan
Itsasoa maite duten abentura-zale diren haurrendako lana, Txalo taldearen eskutik. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 17:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako kontzertua
Aretxabaleta Abesbatza.
Parrokian, 19:00etan.

BERGARA Kultura emanaldia
Harrera taldearen eskutik.
Gaztetxean, 19:00etan.

BERGARA Elkartasun kultura ekitaldia
Orain Presoak ekimenaren eskutik.
Seminarixoan, 19:30ean.

ASTELEHENA 30

ARAMAIO Bilboko Gabonetako parkera irteera
Izen-ematea, udaletxean, abenduaren 26a baino lehen.
Autobus geltokian, 09:15ean.

ARRASATE Eskubaloiei entrenamenduak
LH-5eko eta 6ko neska-mutikoendako.
Iturripen, 10:00etan.

OÑATI Gabonetako areto-futbol txapelketa
Pesoen eskubideen aldekoa.
Kiroldegian, 10:00etan.



BRAHMAN

ARRASATE Brahman talde japoniarra
Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan, urteko azken kontzertua egingo du Ibarakin (Japonia) sortutako taldeak. Rock doinuak lantzen dituen taldea da, baina, badiu folkaren eta ijito musikaren influentziak. Euskal Herrian egiten diharduen hirugarren biran, geldialdia egingo dute Arrasaten. Sarrerak, bost euro.
Abenduaren 26an, gaztetxean, 22:00etan.

ANTZUOLA Gabonetako parkea
Haurrentzako puzgarriak, tailerrak eta eskulanak. 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.
Eskolako patioan, 11:00etan.

ARRASATE Bingoa
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

MARTITZENA 31

ARAMAIO Orixolera igoera, urte zaharra agurtzeko
08:30ean elkartuko dira, 09:00etan ibilaldia hasteko. Salda beroa egongo da.
Kiroldegian.

OÑATI Gabonetako areto-futbol txapelketa
Pesoen eskubideen aldeko torneoa jokatu dute.
Kiroldegian, 09:00etan.

ARETXABALETA 'Kurtzebarritik plazara!' ekimena
Aretxabaletako Sarek deituta, 11:00etan, talde argazkia Kurtzebarriko tontorrean; eta 19:00etan, elkarretaratzea Herriko Plazan.
Aretxabaletan.

ARAMAIO 'Gabonetako 3D maskarak' tailerra
Umeendako tailerra, 5 urtetik gorakoendako.
Kultura etxean, 11:00etan.

ELGETA Pilota txapelketa
Eskuz binakako lau eta erdiko txapelketako finalak.
Pilotalekuan, 11:30ean.

BERGARA San Silvestre Txiki lasterketa solidarioa
Azken 100 metroetan umeek parte hartu ahal izango dute. Adin guztietarako.
Irala kolean, 11:30ean.

ARAMAIO Umeentzako tailerra: Gabonetako 3D maskarak
5 urtetik gorakoendako. Izenak: abenduaren 18a baino lehen.
Kultura etxean, 12:00etan.

ARRASATE San Silvestre Musakola
16 urtetik gorakoendako.
Legarra plazan, 12:00etan.

ARAMAIO 'Kantujira'
Alaiak Kantuak taldearekin.
Kaleetan, 12:30ean.

ARRASATE Gabon zaharreko kontzertua
Arrasate Musikaleko Bandarekin.
Amaia antzokian, 13:00etan.

OÑATI San Silvestre lasterketa
16:00etan gaztetxoak eta 16:30ean helduak.
Foruen plazan.

ARETXABALETA San Silvestre lasterketa
16:45ean umeak eta 17:00etan, helduak.
Durana kolean, 16:45ean.

ARRASATE Kalejira Txorbelarekin
Gabonetako kantuekin.
Kaleetan, 18:30ean.

OÑATI Musika Bandaren kalejira
Gabonetako kantuekin.
Kaleetan, 18:30ean.

ARETXABALETA Bizarzuriren desfilea
Gutunak jaso eta muxuak banatuko ditu.
Ibarra kiroldegian, 19:00etan.

BERGARA Brindisa eta kartelada
Orain Presoak ekimenaren eskutik.
San Martin plazan, 19:30ean.

BERGARA Karaokea
Ostean, Elvis Cainoren emanaldia.
Gaztetxean, 01:00etan.

EGUENA 2

BERGARA Futbol kanporaketa
Infantil txiki mailako 36. Nazioarteko Real Sociedad txapelketako kanporaketa jokatu dute.
Ipintzan, 09:30ean.

ARRASATE Saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Iturripe kiroldegian, 10:00etan.

ARRASATE Txikilandia
10:30ean, ur-parkea; 11:00etatik 20:00etara, jolas parkea, gazte gunea eta tailerrak; eta 18:00etan, ipuin kontalaria eta karaokea.
Uarkapen.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Labegaraietan.

ARAMAIO Ipuin kontalaria
Lur Kortaren saio bikoitza: 17:00etan, 3-5 urte artekoendako; eta 18:00etan, 6 urtetik gorakoendako.
Liburutegian.

EGUBAKOITZA 3

ARRASATE Saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Iturripe kiroldegian, 10:00etan.

OÑATI 'Oñati ezagutu' jolasa
Turismo Bulegoaren eskutik, gaztetxoendako.
Turismo Bulegoan, 10:30ean.

ARRASATE Txikilandia
10:30ean, jolas parkea, gazte gunean eta tailerrak; eta, 12:00etatik 18:00etara, ipuin kontalaria eta karaokea.
Uarkapen.

BERGARA Gazte mailako Gabonetako futbol txapelketa
Alfredo Najera memoriale izango da. Bergara, Real eta Osasuna, nor baino nor gehiago. Sarrerak, hiru euro.
Agorrosinen, 11:00etan.

OÑATI Gabonetako parkea
Ohe elastikoak, puzgarriak, tailerrak... Sarrerak: egun erdiak hiru euro, eta egun osoak bost. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.
Zubikoan.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako. Eguneko sarrerak, lau euro; eta hiru eguneko bonuak, hamar euro. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Labegaraietan.

ARAMAIO Disko dantza
Gaztetxoendako.
Kiroldegian, 17:00etan.

ARRASATE 'Wii dance' saioa
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

OÑATI 'Galaxien haurtzarora' hitzaldia
Itziar Aretxaga astrofisikariak egingo du berba, Ilatargi taldeak gonbidatuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

ELGETA Arragoa folk taldea
18:30ean, ipuin kontaketa musikatua; eta 19:15ean, kontzertua.
Espaloian.

OÑATI Winter's Song emanaldia
Hots Abesbatzaren eta Ganbera Orkestraren kontzertua. Sarrerak, zortzi euro.
Agustindarren elizan, 19:30ean.



ESKORIATZA XII. San Silbestradie eta IX. Manuel Muñoz milia
 11:00etan, haurren izen-ematea; 12:00etan, 14 urtetik beherakoek
 lasterketak; 12:30ean, bixtor-jana; 17:25ean, brindisa; 17:30ean, helduen
 lasterketa; eta, 18:00etan, luntxa.
Abenduaren 31n, Fernando Eskoriatza plazan.

ZAPATUA 4

ARRASATE Saskibaloi campusa
Eneko Mata entrenatzailearekin.
Iturripe kiroldegian, 10:00etan.

ARRASATE Txikilandia
10:30ean, jolas parkea,
gazte gunean eta tailerrak;
eta 18:00etan, Irrien Lagunekin
Irrien taupadak ikuskizuna.
Uarkapen.

BERGARA Hiruko pilota txapelketa
Gabonetako tornea jokatu dute gaztetxoek.
Pilotalekuan, 11:00etan.

OÑATI Gabonetako parkea
Ohe elastikoak, puzgarriak,
tailerrak... Sarrerak: egun erdiak
hiru euro, eta egun osoak bost.
Ordutegia: 11:00-14:00 eta
16:30-20:00.
Zubikoan.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako. Eguneko sarrerek, lau euro; eta hiru eguneko bonuak, hamar euro. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
Labegaraietan.

BERGARA Gabonetako parkea
7 urtetik gorakoendako.
Eguneko sarrerak, lau euro;
eta hiru eguneko bonuak,
hamar euro.
Ordutegia: 11:00-14:00 eta
17:00-20:00.
Labegaraietan.

ARAMAIO Gabonetako parkea
Puzgarriak.
Kiroldegian, 16:30ean.

ARRASATE Ping-pong txapelketa
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean,
17:00etan.

OÑATI 'Koloretako munstroa' ikuskizuna
Ganbara Txiki abesbatzaren Gabonetako emanaldia. Sarrerak: 10 urtetik gorakoak hamar euro, eta besteek, bost euro.
Santa Anan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Lur' antzeziana
Bere alua maite duen 8 urteko mutilaren istorioa kontatzen du Kepa Errastik, bere sormeneko lanean. Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Erika Olalza eta Errasti bera dira protagonistak.

Kultura ebxean, 18:30ean.

BERGARA Pedro Ormazabal
erakusketa
Argazkigintzatik abstrakzioz
delako bilduma ikusgai dago, hilaren
11ra arte. Bergaran jaio eta Madrilen
bizi den margolariaren lanak ikus
daitezke.
Aroztegin, 18:30ean.

DOMEKA 5

OÑATI Erregeen desfilea
Umeen gutunak jaso eta goxokiak
banatuko dituzte. Harrera
udaletxean egingo diete.
Kaleetan, 18:00etan.

BERGARA Erregeen
desfilea Elosun
Umeen gutunak jaso eta goxokiak
banatuko dituzte.
Elosuko plazan, 18:00etan.

BERGARA Txokolate-jana umeendako
San Joxepe elkartekoen eskutik.
San Martin plazan, 18:30ean.

BERGARA Erregeen desfilea
Masterreka-Bideberri-Ibargai-
Herrilagunak-Irala-Barrenkale-San
Martin plaza-Bidekurutzeta-San
Pedro-Artekale-Arruriaga-Biltegia
ibilaldia egingo dute.
Udal biltegian, 18:30ean.

**ARETXABALETA Erregeen
desfilea**
Ibarra kiroldegitik, Herriko
Plazaraino joango dira. Gutunak jasotzeko
eta goxokiak banatuko dituzte.
Udal biltegian, 18:30ean.

ESKORIATZA Erregeen bisita
Gutunak jaso eta goxokiak banatuko
dituzte, eta umeei harrera egingo
diete.
*Fernando Eskoriatza plazan,
19:00etan.*

ARRASATE Erregeen bisita
Gutunak jaso eta goxokiak banatuko dituzte. Azken ekitaldia eta kantaldia Herriko Plazan egingo dute.
Garibai etorbidean, 19:00etan.

OÑATI Bertso jaialdia
Beñat Gaztelumendi, Agin Laburu,
Alaia Martin, Nerea Elustondo,
Ane Labaka eta Beñat Lizaso
bertsotan. Sarrerak,
Txokolateixan eta leihatilan.
Kiroldegian, 22:30ean.

ASTELEHENA 6

ARRASATE Izotz txirrista:
azken eguna
Gaur da.
Biteri plazan, 10:00etan.

ELGETA Pilota jaiadia
Neska-mutikoek partiduak jokatu
ahal izango dituzte.
Pilotalekuan, 11:00etan.

OÑATI Musika Bandaren kalejira
Errege Eguneko kalejira.
Foruen plazan hasita, 11:00etan.

OÑATI Musika Bandaren kontzertua
Errege Eguneko kontzertua.
Santa Ana antzokian, 12:45ean.

ARRASATE Belenen erakusketa:
azken eguna
 Gaur da bilduma ikusteko
 azken eguna.
Kulturaten, 17:30ean.

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

La odisea de los Giles
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Bobby, el erizo
Domeka: 17:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Si yo fuera rico
Egubakoitza eta
zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30,
22:30.
Astelehena: 19:30.

Frozen II
Zapatua eta
domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Adios
Egubakoitzatza:
22:00.
Zapatua eta
domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Juguetes guardianes
Zapatua eta
domeka: 17:00.

EIBAR
COLISEO
Star Wars
 Zapatua: 16:30.
Dios mío, ¿pero que hemos hecho...ahora?
 Zapatua: 19:45,
 22:30.
 Domeka: 17:00,
 20:00.
 Astelehena:
 20:30.
Jumanji
 Zapatua: 22:30.
 Domeka: 20:00,
 20:30.

ANTZOKIA

Star Wars
Zapatua: 19:30,
22:30.
Domeka: 17:00,
20:00.
Astelehena:
20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

El silencio de la ciudad blanca

Egubakoitz: 18:10.

Zapatutik astelehenera: 11:45, 18:10.

Martitzena: 11:45, 17:30.

La trinchera infinita Egubakoitzetik astelehenera: 19:30, 22:05.	astelehenera: 19:25. Martitzena: 17:00.
Si yo fuera rico Egubakoitz: 16:10, 22:30. Zapatutik astelehenera: 12:15, 16:10, 22:30. Martitzena: 12:15, 17:00.	Legado en los huesos Egubakoitzetik astelehenera: 22:20. Martitzena: 17:30.
Frozen II Egubakoitz: 16:10, 17:20, 18:20, 20:25. Zapatutik astelehenera: 12:00, 16:10, 17:20, 18:20, 20:25. Martitzena: 12:00.	Los angeles de Charlie Zapatutik martitzenera: 12:00.
Parasitos Egubakoitzetik astelehenera: 19:00. Martitzena: 17:00.	Jumanji Egubakoitz: 16:30, 17:30, 20:00, 22:30. Zapatutik astelehenera: 12:00, 16:30, 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 12:00, 17:00.
Puñales por la espalda Egubakoitz: 17:00, 21:35. Zapatutik astelehenera: 11:45, 17:00, 21:35.	Navidad sangrienta Egubakoitz: 20:30, 22:30. Zapatutik astelehenera: 12:15, 20:30, 22:30. Martitzena: 12:15, 17:30.
Midway Egubakoitzetik	Star Wars Egubakoitz: 16:30, 19:30, 22:30.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Olentzeroren oparia

Badira Gabonetan modan jartzen diren opariak. Dendetan agortu egiten direnak. Olentzero erotuta ibili ohi da, haiek topatu ezinik. Jostailuak izaten dira, normalean. Eta aurten jostailu berezi batekin gertatu da hori: Satisfyer. Ez da umeentzat, hori da nobedadea. Jostailu erotikoa da, klitoria estimulatzeko duena. "Bi minutuan, orgasmoa!", dio iragarkiak. Egundoko arrakasta ari da izaten. Eta sekulako hizpidea ari da ematen: "Hainbesterainokoa al da?"; "Lehen, janari azkarra... orain, sexu azkarra?"; "Probatu egin beharko dugu!"; "Zertarako ditugu hatzak?"; "Orgasmotzarra"...

Olentzeroren oparia izango da etxe batzuetan. Gehienetan, auto-oparia: ezkutuan irekiko den kaxatxo. Sexua tabua delako oraindik. Gutxi hitz egiten da plazerari buruz – jatearen plazerari buruz bai, noiznahi! –, eta zer esanik ez emakumeon plazerari buruz. *Klitori* hitza ablazioz hitz egiteko erabili izan dute hedabideek. Euskaltzaindiak *friki* hitza onartu berri du... imajinatzen dituzu *Klitori-xurgagailu* hitzari buruz eztabaidatzen?

Ber(ts)o Saio Erotiko Festiboa egon zen atzo, Donostiako Pandora tabernan. *Klitori*, *koskobil*, *hankarte*, *orgasmo* eta *potota*, errimategian. Gaia plazara ateratzen ari da!

BUKATZEKO



Ihesaldia telesailaren fotograma bat: Borobia, ura edaten. BERRIA

Borobia, 'Ihesaldian' telesailean protagonista

'Ihesaldia' telesailak 1976an Basauriko kartzelan gertatutako ihesaldiarekin lotutako istorioa kontatzen du eta protagonistetako bat Aitor Borobia bergararra da. ETB1ek eman du bost kapitulu izan dituen minitelesaila, domekatik atzo arte

NAROA URIEN BERRIO BERGARA.

1976. urtean, Basauriko kartzelako preso batzuek bertatik ihes eginda baleude bezala egin zuten. Inor ez zen ohartu ziega barruan zeudela, ihes egiteko tunela zulatzen. Hain zuzen ere, horixe da ETBk aste honetan zehar eman duen *Ihesaldia* telesailaren azkeneko atala.

Jabi Elortegik zuzendu eta Pausokak eta ETBk elkarrekin ekoiztutako fikzioaren protagonistetako bat Aitor Borobia bergararra da.

Errealitatea fikzioaren gainetik
Egiazko historia bat oinarri hartuta, gertakizunaren inguruan sortzen den tentsioa erakusten du telesailak: neguko



Aitor Borobia. TRAUKO

hotzak harrapatuta, janari eta botikarik gabe ezkutatuta dauden presoek egoera kaxkarra; ihesaldian sartuta dauden ETAko kideak kontrolatu nahi dituen ETArekin zuzendaritzaren presioak; ustez ihes eginda dauden presoek familien jakin-mina eta kartzelako zuzendariaren azpijokoa ihesaldiak bere lan-ibilbideari kalterik egin ez diezaion. "Istorio errealek fikzioa gainditzeko du. Esate baterako, Diego 25 urte egon da kartzelan eta bost ihesaldi egin zituen, 25 saiakeraren artean. Estatu mailan kartzelatik gehien ihes egin duen pertsona da. Hortik dator *Fugas* ezizena", dio Aitor Borobia aktore bergararra.

Kalitatezko estetika

Plataforma digitalak heldu direnetik, kalitate handiko telesailak agertu dira. ETBk ekoiztutako lana ez da atzean geratu, eta kolore zein argiztapenaren lanketa handia egin dute. Ikusle askoren esanetan, euskal fikzioaren aurrerapauso handia izan da *Ihesaldia*. "4k formatuan grabatu da eta lan oso gogorra izan da bai aktore zein ekipo teknikoarentzat. Baina egia da argiztapena zein musikaren lanketa Netflix-eko edozein telesailaren parekoa geratu dela", azaltzen du Borobiak.

Harrera bikaina

Lehenengo egunean, %2,4ko *share*-a izan zuen telesailak. Azken zenbakiak hurrengo astean zehar argitaratuko dira, baina Borobia baikor azaltzen da: "Lan bikaina egin dugula uste dut eta jendearen erantzuna oso ona izaten ari da".

%30_{eko}
deskontua
eguzkitako betaurreko
GUZTIETAN

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



50 € edo gehiagoko PVP-ko eguzkitako betaurrekoetan aplikatzen da.
Geldetu optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintzeekin batu.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com